


Salbador Zapiroin

«Ataño»

MAITASUNAREN LANAK

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Nobela



ETOR

130-376

2360

MAITASUNAREN LANAK



Auspoa Liburutegia
193

Salbador Zapiain

«Ataño»

MAITASUNAREN LANAK

(Nobela)



Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

ETOR

ARGIALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.

Juan de Bilbao 13. 20003 DONOSTIA

I.S.B.N.: 84-85527-38-0

D.L.: NA. 793-198P

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

ESNEKETARIA

Gure baserrietatik datorren oitura, aspaldikoa ta oraindik ere oso galdu ez dana, goizero mendi-egal oietatik astotxo batekin kalera jextekoa, beren esne ta tratu pixarrak saltzera.

Gaur egunean, jakiña, urrutieneko baserrietaraiño bide zabalak egin dirala-ta, geienetan beiñepein, bate-re modurik duten sendietan, berebilla dabilkitela. Baita bear ere. Aurrerapenak denen erreztasun ta onerako datoz. Ez asko lezateken batzuentzat bakarrik.

Orain idaztera noan gertakari onen garaietarako, asia zan aldaketa; karrikotxeak ezik, baita berebillak ere.

Lenengo, geienak zaldizko kotxetan asi ziran, eta benetako aurrerapena zan ori. Motel xamarra izan arren, estalian, lasaiago, babesgarria eguraldi on ta txarretarako.

Baiña astoarekiko esneketari asko zetorren oraindik Ondarrabi'ra. Aurrerapenari eltzeko ezin iritxi ziranak,

beartsuak ziralako edo bide kaxkarrak zeuzkatelako, oiñez egiten zuten txangoa, astotxo bat lagun artuta. Ura zan merkeena, sendi geienetako eraman-ekarria.

Abere mazala askotan, egoskor-aldi gaiztoak iñoizka izaten bazituen ere. Baiña langillea, zaila ta iraupen aundikoa.

Zamatzean, bazirudien eroriko zala, saskipean es-taltzeraiño. Baiña gure asto txikia orduetan alaxe joango zan, pausorik galdu gabe, bideko ote-mutur ta larraren puja berriak moztu ta janaz.

Ia batere kastu gabeko abere supritua, ganbelan beiak uzten zutenetik mantentzen zuten baserri askotan. Astoa, garai aietan, nekazari-etxeetan lanik geiena egiten zuena. Merezi luke bere omenez estatua on bat jasotzea.

Asko, emakumeak batez ere, ez kale ondotik baka-rrik, baita urrutieneko baserrietatik ere etortzen ziran, buruan saski zabal bat artu ta zamatuak, ler egiteraiño, asto txar baten paltan. «Zenbat buru, ainbeste aburu».

Etzan beti lan errexia ez, ori: eguraldi on ta txar jetxi bearra. Ortik baizetorren beren irabazirik aundiena: esne, arrautz, oillasko, gero baratzako tratu pixar-rrak, fruta... Ortatik biziko zan gure, nekazaria.

Oraindik bizi dan nere anai batek, amaika joan-ettorri egin zuen Donosti'ra. Urte-mordoska bat polita igaro ere eten gabeko lan ortan. Zaldi gaiñean joan ta etorko zan askotan; besteetan oiñez. Baiña euri ta otz-beroak burutik beera artzen zituela. Elurraren gaiñera egundoko jela egin ta zaldiarekin ere ezin. Labaindu egiten baidira.

Bein baiño geiagotan, bestela ezinta, jetxi izan naiz ni bi marmita beteekin, ez txikiak gaiñera. Makil ba-

ten bi muturretan jarri, bizkarrean artuz. Miñik ez emateko, azpian babesgarri bat. Ortxe iru bat kilometro bidean kaleraño.

Alaxe bizi giñan orduko nekazariak, eta jendea arrapazka baserri-billa. Ez, gaur bezela, dena utzi ta kalera iges.

Joxepa —emen azalduko dan esne-saltzailleak ala zuen izena—, Guadalupe azpiko baserri batekoa zan. Ama aspalditik perlesiak joa zeukana. Amabost urte-ekin, oraindik gazteegia, etxeoandretza egin bearrean arkitu zan.

Amak, erdi arrastaka bederen, puskek tira-bidean jarri ezker, egiten zituen sukaldeko lanak. Bi anai bazituen; baiña bera bakarra neska.

Goizero jetxiko zan kalera, ia beti garai berean. Illea, bi mototxetan txikortatua, baratxuri-korda bezela lotu ta garrondoan beera txintxilik zebilkien oraindik. Gonak, zanko erdiraiño. Mantal txiki bat aurrean. Oiñetakoak, espartziñak eguraldi onetan; txarretan, berriz, albarkak, artillezko galtzerdi txuri batzuen gaiñetik. Auek, lokarri beltzakin kiribillean zanko erdiraiño lotuak.

Oraindik inoxente xamarra, orduko baserritar gazte jendea bezela. Gaur amar urtekoak geiago dakite, orduan amaseikoak baiño. Nolako aldaketa egiten duen eziketak! Ez dakit onerako edo txarrerako.

Bere astotxoaren atzetik, askotan bakarrik, baiña geienetan auzokoren batzuen tartean sartuko zan kalera. Etxerakoan ia beti bakarrik. Aingeru berbera zirudien Joxepak orduan.

Astoa betiko leku jakiñean lotuko zuen, eta marmita ta txantxilla eskuan, etxez-etxe asiko zan esne sal-

tzen. Ura bukatzean, berak lendik zekien dendan utzi-ko zituen zeramazkien tratu pixarrak.

Amak eman zizkion enkargu guziak egin ondoren, amabiak aldean etxera, bertako garbiketak egiteko. Ori zuen bere eguneroko lana.

Esne-artzailleen artean bazan sendi bat, txintxo asko ordaintzen ziona. An ere izaki, ordea, mutil gazte bat, emezortzi urte inguru xamarrekoa, ordurako ura ere itxasoko lanetan oitua ta zaildua, bere arraintzale-kolore gorri-beltz aiekin. Oni benetako grazia egiten zion neskatx gazte arek. Askotan, erdi brometan, zirika asten zitzaion.

Lenengo, min ematen zion edo lotsa. Baiña azke-nerako jarri zan aren ziriketara, erantzuten ziola; ta, bi uxapal bezela, an ariko ziran elkar-izketan.

— Zuek, baserritar oiek, etzerate gaizki bizi. Bear dezuten guzia etxean daukazute, lan gutxi eginta. Badakizute eguzkiari ere iges egiten.

— Bai, Krispin. Ori guzia egia izango da. Baiña nik egun osoan ez det zuk bezelako denbora librerik izango. Asto txiki onekin goizero jetxi, emengo lanak egin, gora ta beera etxerik-etxe, amaren enkarguak bukatu ta mendira berriro. Ango garbiketa guziak nere bizkar, biziko bagera. Zu, berriz, nai dezunean itxasora, ederki pasiatzera. Gero, egunaren erdia jai.

— Bai larri-aldi ederrak igaro ere. Alare, guk dena erosi egin bear. Baita baratxuria ere, bear badegu.

— Bai. Ori dena ere egia izango da. Baiña bai iñoiz-ka legatz goxoak jan ere.

— Eta zuek ez al dezute jaten?

— Or denda-bazterretako txakur-pixaz koipetutako sardin zaar ortatik bai.

— Ez dizut ezetzik esango. Baiña nere nekeak badabilzkit itxas zabal ortan. Ez nago zu bezin txuria. Ontzi txar baten gainean txutik, artzen ditut aize zakarrak, euriak, eguzkiak nere burutik beera, emen baiño beroagoak. Zenbait ekaitz gaiztoetan itxasoan arrapatzen gaituenean, berriz, ontzi txar baten babesgarria besterik ez. Naiko itxilluak ibiltzen ditut nere bizia ezin salbaturik.

— Zuk nai dezuna esan, Krispin. Baiña nere aitak askotan esaten duena: denetan dagoela prakak bete lan. Ondo saiatura ateratzen degu guk ere bizi-modua. Arri-eraso edo ekaitz txar batek arrapatzen bagaitu, berriz, kito. Urte guzirako lur jota. Bada-ezbadakoa da base-rriko bizitza.

— Eta nola zabilta zu, orren gaztea, sal-crosketan? Amak ez al du etorri nai izaten? Ez dauka, bada, urruti.

— Pozik jetxiko litzake gaixoa, al balu. Baiña ez da gauza.

— Zer gertatzen zaio? Oraindik gaztea izango da, bada, noski.

— Oraintxe sei bat urte perlesiak arrapatu zuen. Len ere esan nizun nik au. Eta, biziko bagiñan, anaia asi zan lenengo; gero ni. Arrastaka-arrastaka sukaldeko lanak egiten ditu. Ortarako esku-kotxe txiki bat badu, ta arekin ibiltzen da. Baiña besterik ez. Emendik joatean egin bear etxeko garbitasun guzia. Ez det egon bear aundirik izaten, ez, nik.

— Eta zu bakarra al zera emakuzmekorik?

— Bai, Krispin, bai. Neri ere atsegin zait iñoiz eguzkia artzea. Baiña ez det egokierarik ortarako. Arratsalde guzian eta barruan bainago lotua.

Olaxe ariko ziran elkar-izketan, bizi-modurik txarrena zeñek zeraman azaldu nairik, negar-kontuan,

biak batera biltzen ziran guzietan. Eta, azkenean, mutillak artuko zuen marmita; neskak, berriz, txantxilla, elkarrekin ara-onera esneak partitu arte. Gero, agurtuz, bakoitza bere etxera.

KUPIDOREN LANAK

Polliki-polliki, Kupidoren zitzakoak asi zitzaizkien sartzen. Maite-minduak ez bazeuden ere —ori zer zan etzuten jakingo noski—, atsegin zitzaien elkarrekin ibiltzea.

Azkenean, andik edo emendik, mutillak gordeko zuen arentzat legatz ederren bat. Berak zionez, urrikaltzen zalako, bere etxeko gora-beerak neskak kontaktzen zizkionean.

— Torizu, Joxepa. An gaixo daukazun amarentzat ez da gaizki etorriko.

— Baiña, Krispin! Onek asko balio du. Nik ez daukat au ordaintzeko dirurik.

— Neri etzait ezer ere kostatzen. Arraintzaleok beti badegu bat edo beste iñoizka artzeko eskubidea.

— Eskerrik asko. Etzerate gaizki bizi, legatza nai ezik.

Neskak ere, jakiña, artu ta eman ez, etzuen atzetik geratu nai. Mutillak diruari muzin egiten zion ezkeru,

berak zeukanetik eramaten zion: aran, gerezi, sagar, udare; baita bere garaian gaztaiñak ere. Artatik aukera zegoen orduan Guadalupe'ko egalean.

Asi ziran biak, elkar ikusteko pozez, goiz bat joan orduko bestea etortzeko zai. Etzeukaten, ez batak eta ez bestea, biotza len bezin aske. Zer gertatzen ote zitzaien? Zer ote zitekean ura? Zerbait pixtu zan aien barruan, len etzegoena.

Etxean, berriz, ama elbarria kezketan. Iñork agindu gabe, zergatik erosten ote zituen alako legatzak? Orduan ere garesti baizegoen ori.

Alare, enkarguak txintxo egiten zizkion, eta sobratzen zan dirua baita ekarri ere. Etzan ezer alabari esatera ausartzen. Berari ere oso atsegin baizitzaion arrai ori. Nondik ateratzen ote zuen?

Alare, egun batean, naigabetzeko beldurrak, goxogoxo ala esan zion:

— Baiña, Joxepa: etxe arlote baterako kastu geiegia den ori. Astean bi aldiz legatza, aberatsen etxeetan bezela. Gure irabazi pixarrak laxter jango dizkiñagu. Jazteko ere zerbait bear, ordea.

— Au etzait neri xentimorik kostatzen.

Orduan ta geiago larritu zan ama.

— Lapurtu egiten al den, bada?

— Ez, ama. Nik ez det ebasteko griña gaiztorik. Ala nai ta ere, ez dezu egokieran olako legatz ederrik, arrapatzeko.

Gero ta kezkatia go arri zan jartzen ama.

— Norbaitek erregali ematen al din, bada?

— Bai. Nik batere eskatu gabe.

Larritu zan oraindik geiago, agure zaarren bat ez ote zebillen or tartean.

— Kontuz, Joxepa. Ori, i arrapatzeko sarea besterik ez den izango.

— Nik zer egitea nai dezu? Ezetz esan ta ez diot, bada, arpegira botako.

— Ez diñat ori esaten. Gizon zaarren bat al den ori?

— Ez. Esnea saltzen diodan etxeko emezortzi bat urteko arraintzalea.

Asperen luze bat eginta, ama lasaitu zan. Bestela, etxean geratu erazi bearke zuen. Eta ala erantzun zion:

— Alare, gaztea bada, pozten naun. Or ibilli bear den ik ere. Baiña kontuz, alaba. Baserrietako neskatx gazteak atzipetu ta sarean arrapatzeko asmoan, bai omen zebiltzan udaran etorritako agure urderen batzuk. Ulertuko didan noski zertan ari natzaiken mintzatzen.

— Bai, ama. Orrenbeste badakit. Oiek ez daukate nerekin zer ikusirik.

— Zaar oietakoa izan balitz, gaurtik aurrera anaia bialiko niñan, i etxean utzita. Ori uan nere beldurra.

Gero ala zion berekiko:

— Guk ogei urtetan baiño geiago zekitek auek amazazpitan.

Olaxe zebillen Joxepa, ordurako begiak ondo zabaldua.

Orain amak bazekien gaztea zala, ta arraintzalea gaiñera. Etzuen batere gaizki artzen. Baserritarrak iño-xente ta atzeratuak baziran, arraintzaleak ere berdintsuak. Etzeudela batere aurreratuagoak. Gazterik lagun on bat billatzea bentaja izaten zala, neska gazteentzat batez ere.

Andik bi urte baiño lenago, bera izango zan maitasun ori moztu erazteko etsairik gaiztoena.

Krispiñek, lenbizi, artzailleen etxeraíño lagunduko zion. Baiña laxter asiko zan etxe-barruneraíño ere laguntzen. Alai-alai ibiltzen ziran, Ondarrabi'ko karrika guziak barrena, esne-saltzea bukatu arte. Baiña denbora alperrik galdu gabe, betiko garairako etxean bear zuen neskak, bertako garbiketak egiteko, ortarako bera bakkarik zegoen-ta.

Jaietan etxeraíño ere laguntzen zion. Biak astotxoaren atzetik, parrez ta algaraz, alai asko joango ziran. Baiña bidean utziko zuen. Etzan oraindik gurasoen aurrera azaltzera ausartzen.

Berak ogei urte ta neskak emezortzi beteak bazeuzkaten ere, oraindik umeak zirala esango zien eta etziela utziko.

— Orain ere badakartzu legatza. Erregaliz erosiko zaitu —esango zion amak alabari. Baiña pozik artu.

— Emendik aurrera jaiero emango omen dit. Erregali au ona da. Baiña nik ere eramaten dizkiot berari benetan gustatzen zaizkionak, dirurik artu nai izaten ez duen ezkerok: gure etxeko frutuak, bere garaikoak, emen geiegian dagoenetik. Baiña aiek, alare, dena erosi egin bear. Arraintzan dabiltzanak, gaiñera, len ere esan nizun, bai omen dutela eskubidea iñoiz arrairen bat edo beste ekartzekoa. Ta etxean beti arraiarekin aspertuak daudela, beste norbaiti eman bearrean. Orregatik ekartzen dit neri.

— Bai. Ori ala izango den, alaba maitea. Ez ditun oraindik begiak zabaldu edo nori adarra jotzen ari aiz? Arraintzaleak ondo zekin zer ari dan.

— Baita nik ere, ama. Baiña ez diot orri ezeren txarrik arrapatzen.

— Ori dena aldare baten aurrean bukatuko den.

— Nik bezela, Jainkoak ere ala nai dezala. Ta txarra al da ori?.

Amak par egin zuen, baiña maleziz.

— Iñoxente-itxura guziakin ez naun iruzurtuko. Nondik nora abillen ondo dakin. Atsegin zain mutil ori orduan?

— Benetan, ama. Gorputzez ederra da. Tratuan goxoa. Ez nuke lagun ori galtzea nai.

— Biotzean badaukan, ez utzi ateratzen. Eta, ematen diken arte, ekarri. Etzaigun emen gaizki etortzen.

Orregatik, len alaba aritu zan inoxente-itxurak egiten, mutil arengatik ajola ez balio bezela. Baiña amak bedeinkatzen zuen ezkeru, ageri-agerian ibilliko ziran.

Baiña urteak geldi-geldi igaro ta iritxi zan mutilla ogeitaraiño. Kinto-urteetan sartua zegoen, beraz.

BIAK KEZKETAN

Bi urte pasa ziran elkarrekin asi zirala. Baiña baze-
kiten aurki urte batzuetarako berexi bearko zutela. Etzu-
tela, ordura arte bezela, elkar ikusiko. Agian, tarteka-
tarteka, baimenik ematen bazioten, etorriko zan.

Agur ori, luzarorako bada beiñepein, mingarria iza-
ten da, benetan maite diran batzuentzat. Joxepari etzio-
ten lagunak ekartzen zizkion legatzak naigaberik ema-
ten. Aiek zekarzkiona urruntzeak bai. Mutillari, berriz,
zer esanik ez. Bere laguna sorterrian utzita, berak ba-
karrik aldegin bearko zuen erritik urrun, bi urterako
gaiñera, orduko soldaduska ala zan-ta.

Etzekien nora bialiko zuten. Bi urte aietan etortze-
rik izango zuenik ere ez.

Egoarte batean, bada, erriko agoazilla azaldu zi-
tzaion etxera abisu txiki batekin. Etxe geiagotara ere
egingo zuen. Mutillarentzat etzan uste gabekoa. Aurre-
tik jana zeukan. Eriotza bezela da ori ere. Baiña ura
urbil ikustean, ixtilluak izaten dira.

Urrengo igandean, amarretarako, Udaletxean agertzeko agindu zion.

— Bai, bai. Etorri-zai egoten gera. Baiña ez da ori neretzat oso berri goxoa.

Itz oiekin dena esana zeukan, zergatik ez bazuen aipatu ere.

— Batzuk, motell, txoria baiño alaiago joaten dituk.

— Ni bezela emen ondo bizi danak, ez dauka ogei urteetara irixteko gogorik, gizon egiteko zoratzen bizi arren. Askatasun guziak irixten baiditugu orduan. Baiña bi urte alperrik galdu bearrak, min ematen neri.

— Ire adiña izategatik, ni pozik joango niñukek.

— Agureak noski, gazte izategatik, pozik joango lirake. Nik ere ala pentsatuko nuke, zaarra banintz. Baiña nere adiñeko batek, nekez.

— Joandakoak atzeratu nai ta atzekoak aurreratu. Iñor ez gaude geron lekuan kontentu. Baiña ala bear-ko. Ez gera beti ogei urtetan egongo. Badakik: ez gero utsegin. Bestela, zigortu egingo iñuteke.

Nai ta nai ez bete bearreko arazo ori iritxi zitzaion. Baiña oraindik beste urte bete luze bat bazeukan aurretik, soldaduskara bialtzerako. Nork zekien bitarte ortan zer gertatu ziteken?

Joaterako, instruzioak ikasi zituen. Baiña bai urtea aguro joan ere.

Bakoitza bere gudaroztera joateko ordua iritxi zanean, gure arraintzalea Afrika'rako aukeratu zuten.

— Deabruak eramango al zaituzte denak!

Jakin zuenean, ori zan bere lenengo eraso.

— Ez ote zegoen neretzat alderago lekurik?

Bere inguruko kinto guziak España zear zabaldu ziran. Bera bakarrik, berriz, urrutiko basamortu aietara. Afrika'ra, alegia.

Baiña bere kezkek gaiztoenak etziran ara zijoalako. Bera andik etortzerako, lagunak atzera egingo zion beldurra.

Goizean Joxepak, astoarekin etorri zanean, triste arkitu zuen mutilla. Bai-baizekien txotx egiñak zirala nor norako. Neska bera ere urduri zegoen, ez ote zuen urruti aietara joan bearke. Beti bezela, astoaren ondora urbildu zitzaion.

— Egun on, Joxepa —agur egin zion—. Zu alai ta txintxo eguneroko lanera.

— Bai, Krispin, bai. Neretzat ez dago igesbiderik. Emen dago gure bizitza. Goizen batean ez banintz etorriko, egun geiena galdua. Erritik eramaten detan pixarrarekin pasako gera, ta ez dago arrokeri geiegirik.

— Ni ere urte batzutarako ederki zapaldua utzi naute, bada.

— Antz eman dizut, bai, triste zaudela. Urrutira joan bearra agian?

— Ez alde-aldera. Afrika'rako aukeratu naute, bi urte moroen lurean igarotzeko. Bero zapala egiten duela esan didate.

— Orduan, denbora luzerako egingo dituzu emengo pakeak.

— Bolara batean ez daukagu elkarrekin itz egiterik, eta ibiltzerik ain gutxi.

— Ori, Krispin, aspaldi ontan jana geneukan. Zuk soldaduska bukatu arte, ez giñala ezkonduko.

— Ez al gera ordurako bata besteentzat aztuko?

— Elkarren berri jakiteko or daude eskutitzak. Ezin ikusiak eta urrutiak maitasuna azi egiten duela ez diote, bada?

— Baiña ara bakarrik joan bear.

— Ez orixe. Ni bai geratuko naizela betiko lanari lotua. Zure antzeko amaika joango dira ara. Aien artean, emen uzten gaituzunontzaz zu bai laxter aztuko zerala. Ta nik, berriz, bi legatz galduko ditudala.

— Bi legatz? Nola liteke ori?

— Ara joan bear orrek burua moteldu egin dizu. Bat zu; ta bestea, zuk igandero ematen didazuna.

— Jolaserako al zaude? Zuk ez daukazu nik bezelako buru-austerik.

— Zure joan bear ori ez da pazientzia artzen jakitea besterik. Dena egiña utziko dizute. Aien aginduetara burua makurtzea, gu bezela besteren mende oitua dagoen batentzat, errex da. Jolas bat. Ez, ni bezela, emengo lanak egitean, etxera zer eramango detan kontuak ateratzen, beti egunero bat ez eramatezkeroz. Gauz onak ikusten ditut, baiña erosteko dirurik ez. Ori da benetako buru-austea. Nai badezu, trukatuko dizut: ni joango naiz soldaduz jantzita; zu gera zaitez emen, nere lanak egiten.

— Alajainkia! Ixkanbil ona jarriko zenuke zuk koartelean, ara joango baziña.

Algara gozoa egin zuen Joxepak.

— Emakume gazte batek an ixilluak sortuko lituzke, bai, noski.

— Ni, berriz, larrutuko niñuteke, zure etxe inguruan dabilzan katarrak.

— Zergatik ori?

— Zu bialita ni geratzen naizelako.

— Katarrik ez dabil nere inguruan. Oiek jai dute, nik bakarra aski det-eta. Alare, zorionekoa zu, aske zabiltzalako, batera ta bestera joateko aukeran. Nik ez daukat olako egokierarik. Beti lotua. Emengo txangoa egin ta igo orduko, etxea lanez betea. Dena nik egin bear, pozik josten ikastera joango nintzakena. Baiña lanpetik ezin atera. Bi urte, Afrika'n edo nonai, pozik igaroko nituzke.

— Ni konten geratuko nintzake, berriz, bertan.

— Ni joanta ere bai?

— Orrek zerbait illunduko luke nere bizi-modua.

— Bai; geratuko ziñake. Baiña aske. Ez, ni bezela, lanean ta etxeari erantsia. Jainkoak sortu niñuen emakume, ta ez daukat esker txarrik. Baiña gure bizi-modua zuena baiño askoz latzagoa da. Etxeko zamarik txarrenak gure bizkar daude. Amaren lekuan aita balego, ez luke kolperik joko. Ama, berriz, lau gaiñean edo bere esku-kotxean, al duen bezela, arrastaka, erropak josi ta sukaldeko lan guziak berak egin bear. Jana jartzea ere berdin.

— Oillo-ipurdiren batzuk jan al dituzu gaur, Joxepa? Berritsua ta izketarako zaude. Egundo etzaitut orrela nabaitu.

— Ez da, bada, edan detalako. Kapesne pixar batekin nago oraindik. Oillo-ipurdi gutxi jaten da gure etxean. Ikusten baizaitut zu lanturaz, alargun gaixo bat bezela. Garrantzi geiegi ematen diozu orri. Garbi esan, inbiria ematen didazu: etxetik urrun, emengo arazoak aztuta, bi urteko atsedena, jana ta jantzia eskura. Andik etortzean, zuk utzia dena martxan arkituko dezu. Zer egingo ote zenduke, nere lekuan bazeunde? Zoaz

lasai, bizi banaiz beiñepein, andik etortzean emen arkituko nauzu-ta.

— Baiña aldamenekorik gabe?

— Orain arte bakarra dago nere biotzean, eta ez nuke besterik sartzerik nai.

— Zure alaitasun orrek ez du gutxi balio.

— Azaroak euliak bezela motel-motel buruz beera jarrita, zer aurreratuko dezu? Zorionekoa zu, bein ta berriz esango dizut, aske zaudelako.

— Lagun guziak España'ko lurrean geratzen zaizkit. Ni bakarrik bialtzen naute. Ortan ere suerte kaxkarra neretzat.

— Lantura beiñepein badabilkizu ugari.

— Azti bati galdetu nion, eta inguru xamar geratuko nintzala igerri zion. Oien aztitzak eta auntzaren gaberdiko eztula berdiñak dira. Ez dute asmatzen.

— Aztikeritan al zabiltz zu ere? Obe zenduen Guadalupe'ko Amari eskatu. Oraindik gazteak gera, ta urte oiek bereala joango zaizkigu. Berriro ere, len esan dizudana, ez al gera emen elkarrengana bilduko?

— Baiña nere kezkek or daude. Nere beldurra au da: ordurako ez ote zeran besteren baten atzetik joana izango.

— Nik ere berriro ala erantzungo dizut: orain arte bezela pentsatzen badet beiñepein, ez. Baiña zuk ere arraixku berdiña daukazu, ango emakume beltz oieta-koren batekin ezkondata geratzeko.

— Gaur bertsolari batek baiño etorri ohea daukazu, Joxepa. Beltz bat emazte artu? Ori da esatea!

— Nere itz-jario guzia zu alaitzeko da. Zero eroria, kezkaz betea, ikusten baizaitut. Ea zerbait suspertzen zaitudan.

— Eskerrik asko. Baiña, dana dala, igandean Guadalupe'ra joan bear degu, gure kezka guziak Amaren oiñetan uzteko. Gaur arte, ni beti, txapela erantzita, itxasorakoan, Guadalupe aldera begira, agur mari bat erre-zatu gabe ez naiz arraintzara joango. Etortzean ere, eskerrak emanaz, beste bat esango diot. Ekaitzak urean arrapatzen gaituenean, arraintzaleok biotzak eta oroi-menak Guadalupe'ko Amarengana jasoko ditugu. Emengo egun bateko gora-beerak, neke ta kezkek orrela eskeintzen badizkiogu, bi urteko agur luze au zergatik ez? Ez det len bezelako gizarterik arkituko. Zu ere etzaitut ikusiko. Emen geratuko zera betiko adiskideen artean. Neretzat, berriz, dena berria.

— Oraintxe mintzo zera kristau baten antzera. An ere badala Jainkoa. Guadalupe'ko Amak ere emendik lagunduko dizula.

— Aolku bikaiña ori, Joxepa. Geronekoan itzegin nuen andik etorritako batekin. Ango maomatarrak, ala uste det esan zidala, egunean ez dakit zenbat aldiz, auspezka, ustez beren Maomaren eliza daukaten aldera begira, otoi egiten omen dutela. Guk baiño sinismen be-roagoa dute noski aiek.

— Ondo dago ori. Egizu zuk ere beste orrenbeste ta etzera gutzaz aztuko. Bai, Krispin. Igo gaitezen igandean Guadalupe'ra, dena Amaren oiñetan uzteko. Guk baiño obeto daki arek zer komeni zaigun.

AGUR TRISTEA

Urrengo igandean, bada, eguraldi bikaiña zegoela, joan ziran Guadalupe'ra. Andik Ondarrabi'ra ta, bizimodua ematen zion itxasora begira, ezin zan gure Krispin gizarajoa aspertu. Bi urtean ikusiko etzituen inguru zoragarri aietaz ase nai zituen begiak eta biotza.

— Ura, diotenez, ez da orren leku zoragarria izango.

— Ez det uste —zion Joxepak—. Aita an ibillia da, ta toki kaxkarra ta benetan elkorra omen dala ura.

— Jainkoak ez ote dit berriz onera biurtzeko suertarik emango?

— Ez det uste ondarrabiar bakar bat an galdu dani. Etzait orren ezkorra izan, Krispin. Ez dabilta gudan. Nere aita, gudate batean an ibillita, osasuntsu etorri zan. Umorez artzen badezu, bide erdia igarora daukazu. Bi urte auek uste gabeen pasako zaizkizu.

— Etzait itxaropenik palta. Baiña ain leku arrotza izango da ura. Bizia ematen digun Kantauri itxaso ezin-

egon au ta or bean dagoen erri xaar maitea, nere gura-soak, zu ere bai, Joxepa, utzi bearrak naigabea sortzen du nere biotzean. Au ain eder ta lilluragarria da. An ez degu olakorik ikusiko.

— Asi zera berriz ere negarrez. Lekua elkorra omen da, bai. Baiña lagun guziak emengoak izango dituzu. Laxter jarriko zera. Gaztea izan ta orren beldurti joatea ere... Etortzean ez al dituzu denak berriro arkituko?

Biak ere goibel xamar, batez ere mutilla, sartu ziran eliz txiki artara. Bakoitzak bere erara otoitz egingo zuen. Baiña eskatu noski biak bat: andik bi urtera, orduan bezin osasuntsu ta elkar-maitale arkitzeko grazia.

Baiña bazeukaten norbait begira. Arek ikusi gabe, ez omen zala iñor ere etxe artara sartzen. Bertako kargu zeukan serora zan, neskazaar agurgarri bat, orain eliz txiki artatik bere bizi-modua ateratzen zuena.

Bereala antz eman zion, aiek, ala triste ikustean, naiharen bat bazeramatela beren biotzetan. Bai-baizekien kintoak soldaduskara zijoazela, bera ere garai batean ur ortan igarota zan-ta.

— Gure Amaren aurrean egin dezagun azken agurra, ta eskutitzen bitartez elkarren berri ikasteko modua.

— Nik illero-illero idatziko dizut andik, ango ta nere gora-beera guzien berri emanaz. Zuk ere beste ainbeste egingo bazendu... —eskatu zion mutillak.

— Bai, Krispin. Ori neretzat ez da zaillegia. Egu-nero kalera jexten naizen ezkerro, zure eskutitz guziei erantzungo diet.

Aiek ala izketan ari zirala, neska ezaguna baizuen, adin xamarreko emakume bat sartu zitzaien tartera. Bertako serora zan.

— Naigabe txarren bat badaukazute biotzean — agur egin zien—. Neska-mutil gazteak ala ikusi ezkerro,

Guadalupe'ko Amaren oiñetan, ezin berexirik, ez dago zalantzik.

— Naigabea-edo, zer esatea nai dezu? Kezkak beinpein. Ni bi urterako soldaduskara noa. Ez alde-aldera: Afrika'raiño. Gure gaurko maitasuna ordurako oztuko dan beldurra, ta gure Ama jarri nai bitarteko. Orregatik etorri gera onuntza.

— Bai. Bi urte epe luzea da, berexiak bezela bizita maitasunak irauteko, ain urrutira joanta gaiñera. Ni ere, gaurko modura pentsatu izan banu orduan, ez nintzan neskazaar geratuko. Alare, pardel baten ondoan bizi baiño, obe det bakarrik. Jainkoak badaki nondik nora garamazkien, eliz txiki au zaitzeko aukeratua edukiko niñuen-ta. Amatxo onen aurrean egin genduen guk ere azken agurra, nere maitea soldaduskara zijoan-ta. Baiña oso urruti: Ameriketako Kuba'ra. An gudan zebiltzan orduan. Ura etorri arte itxogingo niola, ez bazuten erasoren batean iltzen-edo. Bestela, norbaitek lilluratuta arekin ezkontzeko asmoak artzen bazituen, abisatzeko.

— Zu utzi ta ni beste batekin ezkondu? Ori pentsatzea iseka da noski neretzat. Olakorik, Kontxexi! — erantzun zidan.

Joan zan ta lau urte luzetan itxogin nion, aren berri jakin arte. Ura andik zetorreanean beste batekin ezkondua arkitzeak ere ekartzen zituela askotan uste gabeko ixtilluak-eta. Mutil baten baiño geiagoren eskariak izan nituen. Baiña nere betiko erantzuna: beste bati itza eman niola ta ura azaldu zai nengoela.

— Nora joana dezu, bada?

— Kuba'ko gudara.

— Lekutan daukazu. Aspertuko zera ederki.

Mutil ori, andik illabete batzuetara, emen, Guadalupe'n, ezkondu zan inguruko beste neskatx batekin.

— Onuzkero, il edo beste norbaitekin ezkondua egongo da. Ango soldaduak emen dabilta noski — esango zidan beste mutillen batek.

— Ez. Arekin joandakoak oraindik ez dira azaldu —erantzungo nion.

Baiña aiek ere emen ikusi genituen noizbait. Aren berririk bai al zuten galdetu nienean, erantzun gaizto au artu nuen:

— Joan dan urte bete ontan, ura ezkondua dago ango neskatx batekin, eta abian zuri eskumuiñak emateko esan zigun.

— Sartu dit epela. Itz emanak giñan ta ni aren zai nengoen. Ta, azkenean, iseka egin ta utzi.

Proportzio on askoak galdu nituen, eta iñorako ez nintzala aretxek laga niñuen. Neskari kalte aundia egiten dio orrek.

— Ori billaukeri gaiztoa da orratik.

— Beste batekin ezkontzea ez neretzat. Baiña abisatu. Ortan geratu giñan. Ainbeste denboran zai eduki ta gero, bazterrera bota. Baiña arek neri egin zidana, billaukeri gaiztoa da. Urrutiak eta ez ikusteak, an berriz besteren bat zirika asten bazaio, emengoaren maitasuna aztu egiten du. Baiña emandako itza bete. Nik aolku txiki bat emango nizuteke: beste norbaitekin asten bazerate, esan, zai utzi dezuten lagunari. Bestela, lan txarra egiten diozute elkarri. Baiña zu etzera noski emengoa. Ez det uste iñoiz ikusi zaitudanik —esan zion mutillari.

— Ondarrabiarra bai, ordea. Banekien, bai, ez niñuzula ezagutzen. Arraintzalea bainaiz. Baiña Guadalupe'ri askotan bixita egiten diot.

— Nik baiño suerte ohea izan dezazutela. Ala opa dizutet —eta bere etxera joan zan.

Zer pentsatua eman zien gure bi uxapalei.

— Ori ere billaukeria da, bada —zion neskak.

— Bai, ta ez nolanaikoa. Ez al da gure artean olakorik gertatuko!

— Ez det uste. Nere partetik ez beiñepein. Or ere neska atera zan piña; mutilla ez.

— Dana dala, gu piñagoak izango al gera.

Berriz ere txango on bat egiteko grazia eskatuta, joan ziran andik, bi urterako agurra eginta, Joxepa bere etxera, ta Krispin ere bai, urrengo egunean goiz ateratzeko.

AFRIKA'RA

Egunsentia baiño len, bere guraso ta langille lagunak agurtuz, amaren azken aolkuak entzun, erriari begiratu bat egin, bere bizi-modua ateratzen zuen Kantauri itxaso ezin-egonari berdin, Guadalupe'ko Amari agur mari bat errezatu, egunero beretzaz oroituko zala eskeñiz eta bere eskutik ez uzteko eskatuz, eta ekin zion bere bideari.

Joxepaz ere etzan aztu. Onuzkero karrikara etorria izango zan. Baiña etzuen, laguntzen zion ura irripartsu beregana etortzen ikusiko. Mutillak bazeraman bere utsuna. Baiña Joxepak ere zalantzik gabe nabaituko zuela.

Etzeraman Krispiñek, soñean zeukana besterik. An, soldaduskan, bear zuena emango omen zioten, len an ibilliak ziotenez. Amak arteeran luzatu zizkion xox pixarrak, berekin zeramazkien.

Alaxe, iritxi zan Irun'go geltokira. Txartela duan eman zioten, andik Afrika'ra artean dena ordaindua zeukaten-ta.

Bere azken begiratua andik Jaizkibel ta Guadalupe'ri egiñik, trenean sartu ta Aljeziras alderaiño joango zan, España guzia luzeenean alderik-alde igaroaz. Bere lekura irixterako aspertuko zan ederki, milla kilometroko txangoa gutxieneko bazeukan-ta. Tren motel ta ke beltzez betetakoan egin bearra, gero andik itxasontzi batean Afrika'raiño joateko.

Emendik mutillak eramatea baiño, ez al zan errexagoa izango Andaluzi alde ortatik? Aiek askoz urbi-lago zeukaten. Baiña agintzen zutenak kastu-beldurrik gabe ari ziran, erriaren bizkar dena.

Alare, etzan bakarrik. Bazijoazen lagun geiago. Ta, olako gazteen taldea elkarrengana biltzean, ixkanbilla ta zarataren paltik ez da izaten.

Geienak beren naigabea bazeramaten biotzean; eta, ura aztu ta ixil erazteko, bera bezela zijoaztenen tartean sartu ta otsa ta zalaparta baiño oberik ez da. Gazte-talde arek orixe egiten zuen, bestela ere beren elburura irixterako aspertuko zirala-ta.

Beste erritar bat ere bazijoan saillean. Baiña etzuen ezaguna. Ogei ta bat urteko arraintzale batek gutxi zekien orduan bere erriko berri. Itxasoari lotuak bizitzen ziran auek. Alare, bereala elkar ezagutu zuten.

— Emen amaika lekutakoak izango gaituk, eta geienok euskaldunak. Baiña ondarrabiarrrik bai ote da, ni besterik? —galdetu zuen Krispiñek.

— Ez dek billatzen asi bearrik. Ni angoa nauk beinpein —erantzun zion batek—, baiña baserritarra.

— Gure erria ez dek izugarria. Alare, ez diagu erdiak elkar ezagutzen. Zein auzotakoa aiz i?

— Kostakoa, amutearra. I arraintzalea izango aiz noski. Ni, berriz, nekazaria. Ia bi erri balira bezela, berex bizi gaituk gaur arte. Gu bagiazik eta, gazte geran

arte, nonai billatuko diagu jolasa. Baiña nere guraso gizarajoak kezkatu geratu dituk seme-alaba gazteekin. Ni bainauk zaarrena.

— Ainbeste neketan azi ta orain, bear gaituztenean, utzi ta araiño joan bearra ere, gurasoentzat kezkagarria dek. Alare, eskerrak ez goazela gudara, Kuba alde ortara joan ziran bezela. Baiña ni ere ez niek oso kontentu. Etzeramazkit atsegin guziak nerekin. Beste bat ere kezketan utzia badit an.

— Andregairen bat noski?

— Asmatu dek. Bi urte auetan zer gertatuko dan nork zekik?

— Ezer gutxik kezkatzen au, motell. Itxasoan ondarra bezin ugari zegok ortatik. Nik ere or utzi dit. Nerekin itzegiteko gogorik ez badauka, or konpon dedilla. Praile sartzeko ere, etzeukat inguruan konbentu-paltik.

— Alakoa dek, ordea, ura. Ta, bein bat biotzean sartu ezkeru, zailla dek andik ateratzen, ortan eskarmentu gutxi badaukat ere.

— Afrika'tik etortzean, anbat ez dek orrela pentsatuko. Ori atzera utzi ta besteren baten billa asi inteke. Nor dek galtzeko beldurra daukaken neskatx ori? Agian nik ezagutu nezakek. Lengusuak ere badizkit nik itxas alde ortan.

— Baserritarra dek. Olako etxetakoa.

— Joxepa orduan? Etxe artan ez dek beste neskek. Nere lengusua. Neskatx ederra ezik, goxo ta langille ona ere bai. Benetan alai ta eraxkorra. Ondo ezagutzen dit. Ez nere lengusua dalako, baiña ez dituk Ondarrabia'n alako asko billatuko. Purgatorio berbera zeramak arek, gaixoak. Ama, perlesiak arrapatu ta ezer askotarako gauza ez dana. Amalau urtetarako etxekoandretza artu

zin. Baiña arrosik ederrenak berekin zeramazkik arantzak.

— Oraindik beiñepein usai gozoko atal zoragarri batzuek besterik etzizkiot nik ikusten. Arantzak ezkutan ibilliko dizkik.

— Entzun detanez, beti berearekin atera nai ori ondo sartua ote daukan. Baiña nik ez dit orrenbeste-raiño ezagutzen.

— Atzo Guadalupe'n berexi giñun. Etzidaken ire berririk eman.

— Ez dik jakingo ere ni soldaduskara noanik. Beartsuen etxeko neskatxa dek. Baiña bai benetan eraxkorra.

Biak emakume-kontuan aspertu ziranean —etzien onik egiten ere utzi bearrak, tristura sartu besterik—, besteen saillera urbildu ziran.

Batzuk naigabetuak zijoazten. Asko, alai xamar. Besteak, berriz, jan zituztenak botatzeko zorian zora-biotuak, trenean oitu gabeko jendea.

Azkenean, naigabeak aztutzeko, beren erri aldeko abestiak kantatzen asi ziran euskaldunak, nai zuenak entzun.

— *Esos son vascos y cantan muy bien* —zioten erdaldunen batzuek. Eta aiek ere saillera urbildu ziran, emengo abesti sentikorrek entzuteko.

Alaxe, ixkanbilla ta zalaparta, tarteka bideko legorrrak erretako erriei begiratzuz, noizbait iritxi ziran Aljeziras'erañño.

Kaiera azaldu orduko, itxas-ontzia zai zeukaten. An mokadu bana artuta —ezer askorik ez noski, ta askorentzat obe ez balute jan—, banaka-banaka sartu ziran ontzira. Geiagorentzat ere bazeukan lekua.

— Au, guk itxasoan ibiltzen deguna baiño aundia-
goa ta pasiatzeko atsegiñagoa dek —zion arraintzaleak.

Baiña etzuten ori denak esango. Amasei kilometro-
ko itxas-tarte artan ustu ziran urera askoren urdaillak.
Krispin okerragoko erasoetan oitua zegoen eguneroko
bere lanean.

Kaiako sarreran txistu luze batzuk egin zituen on-
tziak, eta polliki-polliki sartu zan. Barruan zijoazen ogei
ta bat urteko soldadu-gaiak, denak ontzitik begira zeu-
den, zer moduzko lurraldea zan ura ikusteko.

Bazeukaten kaian nork artua, ordu librea zuten-ta
bertakoak. Soldaduak, ongi etorria emateko, kaiara bil-
duak zeuden. Aietako asko aukeratu zai, soldaduska
bukatu ta etxera etortzeko.

Begira zegoela, bi urtez lenago joandako lantegiko
lagun bat bazuen ta bai denen tartetik ikusi ta ezagutu
ere Krispiñek. Urruti xamar zegoen. Keiñu egin zion.
Bai aguro asko oartu bestea.

— I ere onera ekarri al aute, Krispin?

— Bai, motell. Suerte txarreko umeak gaituk gu. Zer
moduz emen?

— Goseak, zikiñak eta kixkaliak eguzkitan, suan-
gillak bezela. Ori dek emengo gure bizi-modua. Biar
itzegingo diagu lasaiago. Gaur ez dezute komonera joa-
teko ere betik izango.

AFRIKA'N

Ontzian beren artean joan zan militar buru egiten zuenak, paper batetik, soldadu-gaiak erten alean, izen-abizenak kantatzen zizkien banaka-banaka bakoitzari.

Aiek, berriz, «emen nago» erantzun eta txuxenean koartelera eramaten zituzten, an bakoitzari bearreneko zitzaizkien tresnak emateko: lo-tokia, jateko azpilla, ta soñeko jantziak ere bai, batzuei txikiegiak, bestei berriz aundiegiak. Gero elkarrekin konpontzen ziran, aundi-txikiak trukatzeko. Ta urrengo egunetik asi zuten koarteleko bititza.

Illea arruntean moztua, soldadu-jantzia ala-moduz josia, atera zan kanpora, aske utzi zutenean. Zaarra ta Krispin alkarren billa, bai laixter topo egin ere, koartel ondoan baizeukan zai.

— Kaixo, Krispin —esku emanaz esan zion Pellok—. Ik ere emengo aldi?

— Bai, motell. España zabalean bat urkatzeko txotx egingo balute, neri eroriko zitzaidakek ura ere.

— Orrek arritzen al au? Lenagotik etorria emen nabillek ni.

— Ik bi urteak pasa dituk noski.

— Bai. Zuek etorri zeraten ezkerro, egun auetakoren batean bialiko niotek.

— Orduan, nere guraso, anai-arreba ta maite-miñari ikertxo bana egingo al diek?

— Nor dek ire maite-miñ ori?

— Joxepa, zuen ta gure esneketaria.

— Ume bat dek, motell, ura. Bai; alai ta lilluragarria zirudiken.

— Len bai umea. Baiña orain ez. Bi urte badituk gero ik ez dekala ikusi.

— Adin ortako neskak bi urtean aldaketa ikaragarriak egiten dizkitek. Mutillak baiño nabarmenago. Baiña amasei urte aiekin, landare bikaiña zetorrela antz eman nioken. Orain emezortzi, etzegok gaizki.

— Nere begientzako ala dek beiñepein, eta nik ezin nezakek ederra dan edo ez epaitu. Ez aiz noski ura kendu nairik asiko?

— Ni ez nauk neska-zalea. I joaten aizenerako, bai, neskatx egiña izango dek.

— Eta zer moduz zabilzate emen?

— Laixter igerriko diok. Atzo ere esan nin: gosea, zikiña ta eguzki kixkalgarrria. Oiek dituk gure eguneroko lagunak. Amaika aldiz oroituko aiz Ondarrabi'ko itxas-ertzean illunabarrean ateratzen duen ipar-aize eze gozo artaz. Baiña beste bat aztu zitzaidaken: eulia. An eltxoa baiño ugariago. Ikusten al dek, saltzen ari diran gizon-emakume oiek mugitzen diranean, nolako eulimoltsoak egatzen diran? Olaxeko bizi-modua zerama-

tek emengoak. Nazkagarria guretzat, baiña ez oientzat. Or ezer erosi nai badek, euliz josia salduko ditek.

— Urte on batzuk igarotzeko, leku onera etorri gaituk orduan.

— Lur legor, setati ta elkorra. Zekena benetan. Begiratu txarra egiten zigutek guri.

Beste xomorro txiki baten berri ematea aztu egin zitzaion. Baiña benetan nazkagarri ta amorragarria.

España'n ikasten ari zan irlandar batek, ala idatzi omen zion bere erriko lagunen bati, dirudienez apaiza izango zan, latiñez idatzi baizion:

«Hic sunt quaedam animalia, mordentia ut canes, currentia ut lepore et olentia ut daemonia». (Emen bada dira xomorro txiki batzuk, txakurrak bezela kozk egiten dutenak, erbiak aiña korritu, eta demoniñoak baiño usai gaiztoagokoak.)

Xomorro txiki oiek tximutxak ziran, lotarakoan bel-durgarriak.

— Egundoko barruti zabalak bai omen zeudek utsak España alde ortan —zioten elkarrri Krispin eta bere lagunak—. Eta au zertarako diagu? Gure buruak galtzeko bestetarako ez.

Ordua zala—ta, bakoitza bere koarteletara sartu ziran, lenengo egunetik beranduegi joaten ez astezkeroz.

Ura andik egun gutxira biali zuten etxera. Baiña azken agurra egiteko egokierarik etzieten eman.

Gure Krispin bereala oitu zan ango bizi—modura. Baiña lagunak esan ziona egia zala laixter igerri zion.

Lan gogorretan oitua zegoen eta etzan gizena joan. Alare, bere gantza pixarrak bereala urtu zitzaizkion. Tximutxa ugari. Beroa, berriz, kixkagarria. Bere erriko Kantauri itxasoko aize presko ura, lagunak esan zion

bezela, bai benetan irrikatzen zuela. Alare, denetan txarrena gosea beretzat. Eta oraindik asi besterik etzuen egin bere kalbarioak.

Ai, orain an baleuzka Joxepari ematen zizkion legatz eder aiek! Ametsetan bestetan etzituen ikusten.

Illabete barru artu zuen andregaiaren eskutitza. Musu eman zion noski. Ondo idatzia. Jakiña, euskeraz. Besterik etzekiten orduan. Etzuen uste baserri haar artako alabak alako eskola zeukanik. Amalau urte baiño len danak utzi zituelarik gaiñera.

Erriko berriak bialtzen zizkion. Pellorekin itzegin zuela ere bai. Bere argazki eder bat gaiñera. Pin asi zan gure Joxepa.

«Argazki au nitzaz aztu etzaitezen bialtzen dizut. Ori aurrean ikusi orduko, oroituko baizera».

Dirurik ezin biali, etzeukaten-ta. Bai-baizekien nola bizi ziran. Idazten zion bitartean, ondo zijoan lana.

Amaika begiratu egiten zizkion argazkiari. Ta, bere iritzian, etzuen ezagutzen ederragorik. Berak bizi ziran lekuan, berriz, ez-ta alderatzekorik ere.

Etzuen erantzun gabe utziko. Tratu egin bezela, patera ta selloa erosi zituen. Etzuen noski Joxepak bezin dotore egingo. Baiña egun berean erantzun zion, argazkiarengatik eskerrak emanaz eta bertako mixeriak kontatuz.

Amazazpina eskutitz egin zizkioten elkarri. Emezortzitik ogei ta laura bitarte ortan, neska mututu egin zan. Andik aurrerako bat bakarrari etzion erantzun.

Mutillak, beraizik ere aitzakirik etzezan jarri, naiz ordaiñik ez artu, illero idatzi zion. Etzion, itzegin zuten bezela, zergatik ixildu zan aipatu ere. Sumindua utzi zuen orrek mutilla. Beste bide batetik ikasi baizuen bizi zala, ta osasuntsu zebillela gaiñera.

KANTINERA

Ondarrabia'n Alardea egiten dala, nolakoa ta zergatik, geienak badakite. Ez degu zertan agertzen ibilli bearrik. Lan onen eginkizuna ere ez da ori.

Erri guziak artzen du parte, goikoak eta beekoak, zarrak eta gazteak. Gazteak Alardean ta besteak begira. Balkoi ta karridak jendez beteak ikusten ditugu, urte oro berdin, ta alare jarraitzen diote.

Guadalupe'ko Amaren omenez egiña, baiña lengo seriotasun ura asko erori zaio. Ez dago len bezelako sinismenik, eta Amarenganako eraxpen ori oztua. Gure elizan igertzen diogu ederki. Len konpañi osoa joaten zan mezetara; orain, geieneko ere, bost edo sei sartuko dira.

Alare, Alarde au erriak asko maite du. Urte oro ikusi arren, eta berdin, ez da aspertzen jendea. Beti badu, ordea, zer ikusi berria, ta auek kantinerak dira.

Gudarozte osoko armadunak gizonezkoak dira. Baiña badira tartean emakumeak, neska gazteak gaiñera.

Auzoan dan ederren ta politena aukeratzen dute beren iritzian, konpañiak berak autarkiak emanta.

Dirudienez, Ondarrabia'ko garaipen sonatu artan parte bizia artu zuten laguntzaille bezela.

Auek, dotore jantziak agertzen dira: oiñetako txuriluzeak zanko erdiraiño; gona txuriak, gaiñ-jazki beltz batekin, ia belauneraiño; zinta batekin lotua, upeltxo bat eskubiko sorbaldatik ezkerreko galtzarpera; guante txuriak; eskubian aize-emaille bat. Arekin agurtzen ditu, karrika ta etxeko balkoi ta leioetatik txaloka ari zaizkionak, al duen irriparrik goxoena egiñaz.

Zalantzik gabe Alardean ikusgarrienak kantinerak izaten dirala. Emakume ta gizonen begirik geienak aien-gana itzuliko dira. Bakoitza nolakoa dan, aundia edo txikia, ederra ta polita edo pillakoa, ibiltari baldarra edo gertua, nork bere gisara epaituko ditu.

Baiña kantinerak ibiltzea al dute erne, bere imintziorik txikienaz ere oartuko dala jendea, batez ere emakumeak.

Olakoxea da, bada, nik Ondarrabia'n ezagutzen detan Alardea. Jakiña, errian egiten duten agermen osoak badu bere ikusgarria. Baiña ori beste norbaitek kontatuko du. Nere lana ez dijoa ortik.

Laixter Alardea zutela-ta, Joxeparen auzoko mutillak, bildu ziran beren buru edo taldeko kapitan egiten zuenarekin batera.

Nor aukeratu, inguruko neskatx batzuen izenak ibilli ziran aotan. Baiña, geienen iritzian, Joxepa zuten aipagarriena. Ederrez ta bere graziz bakarrik ez. Beste bereiztasun batzuk ere bear ditu: neska mazala, alaia, langillea, gizartekoa, bitartekoa. Oso neskatx zuzena batez ere, aukeratzaillei atsegiñena zitzaiena. Ederra ta polita bada, obe. Alardearen zamarik astunena auentzat izango baita.

Astoarekin kalera etorri zan batean, kapitanak ala esan zion:

— Kaixo, Joxepa. Betiko orduan bazatozela txintxo zu gaur ere...

Ori entzunik, Joxepak berekiko: Zertara etorri ote da, ta zergatik egin ote dit goratarre ori?

Bai-baizekien ura zala taldeko kapitana, ta kantina aukeratzeko billera ere egiña zutela.

Auzoko neskatx gazte guziak, nor aukeratuko zuten jakiteko zai egoten ziran. Egun nekegarria igartzeko bildurrik gabe, erriaren aurrean beren irudi ederra egurastea ta ango txalo ta goratarreak maite dituzte. Beren irudi ederraren agermena egin ondoren, askotan etorriko zitzaion ezkontz on bat egiteko aukera.

— Bai. Au da nere goizeroko egin bearra —erantzun zion—. Txar edo on, asi ezker ez det egun bat ere galdu.

— Zenbat urte dira jexten asi ziñala?

— Bost urte. Orain ogei dauzkat, eta amabostekin asi nintzan.

— Eta ortan jarraitzeko asmoan?

— Uzten didaten arte, ni pozik. Baiña laixter etxera ezkontzen zaigu anaia, ta aurki koñata asiko da noski.

— Orain arte etzekoandretza zuk egin omen dezu...

— Etxeko lana bai, alaba bakarra naizen ezker, nerretzat geratu da, ama gauza ez dalako, perlesiak arrapatu zuen-ta. Baiña etzekoandretza arek egiten du.

— Oraindik biotz ori aske daukazu noski?

— Zertara datoz galdera oiek? Asko jakin nai zeneduke! —erantzun zion parrez.

— Ogei urteko neskak zer pentsatzen duten jakin-naia.

— Bai, bai. Erdi aske nago. Ez diot iñori itzik eman. Alare, badet nere ustez aukeratua, urte bete ontan Afrika'n dagoena soldadu. Arraintzalea da.

— Zu baserritarra, ta begiak arraintzaleari zorroztu al dizkiozu?

— Kilometro baten gora-beeran bizi gera beiñepein. Ta, bat izan edo bestea, neretzat maitagarria izan ezkerro, zer ajola dio?

— Bai. Arrazoi dezu. Maitasunak ez dauka frontetik. Alardea zer dan jakingo dezu noski, lanpean bizi izan bazera ere.

— Jesus! Ondarrabiar bati egiteko, ori galdera! Txutik ikasi baiño len ikusi nuen lenengo aldiz. Aspaldi ontan, zuk diozun bezela, lanpean nabil eta ez det ikusteko aukerik izan.

— Aurten ikusi bearko dezu, bada. Ez ori bakarra: bizi gaiñera, kantineratzako zu aukeratu zaitugu-ta.

— Ni? —tomatea baiño gorriago jarri zan Joxeparen arpegia—. Ez dezute aukera ona egin.

— Oso ona aurtengo au, sekula ondo egin badegu. Bai, Joxepa. Mutillak begi zorrotza dute. Geienak zure alde eman degu autarkia. Ez da ederra bakarra izatea aski. Beste doai berezi batzuk ere bear ditu. Guk orri denari begiratzen diogu. Ontzat artuko dezu noski?

— Bai, bai. Ez dizut ezetzik esango, auzoko mutil guziekin ez asarretzezkeroz, neskatz guziak irrika duten lekua da ori-ta. Orduan, erriaren aurrean parregarri egurastu bear nauzute?

— Ez olakorik pentsatu. Aupagarri bai. Ez ditut beste kantinerak ezagutzen. Baiña ez da zu bezelakorik azalduko.

— Baserri-txulotik atera gabeko neskatx batek orrela ibilli bearrak, neri beldurra ematen dit. Zer esango dute gurasoak?

— Aiek kezkatzen al zaituzte? Nere urrengo zoriona, berak emango dizute. Arroto egingo dira, zu auke-ratu zaitugulako.

— Baliteke ori. Baiña nere kezka daramazkit biotzean.

— Zorionak, bada, Joxepa, ta agur.

Kapitana bere bidean joan zan. Neska, berriz, urduri. Egun ortarako nola konpondu?

Bazkaltzerakoan, ori kontatu zuenean, denak mai-tasunez erantzun zioten:

— Kantinera aukeratu aute orduan? Zorionak! Ondo merezia daukan. Iñor izatezkeroz, Ondarrabi gu-zian ez den ederragorik arkituko. Irekin denok pozten gaitun.

Juan Jose anaiak, berriz, ala esan zion:

— Esne-saltze ta gaiñerako lanak nik egingo ditut, len ere ortan oitua nago-ta, artzaille xaarrak ikusiz.

— Nik Alardea ikusterik ez, berriz —esan zuen txo-kotik amak.

Nola ibilli, pausoa nola eman besteekin batera, jen-dearen txaloari agur egiteko irriparrik goxoena nola egin, dena erakutsi zioten. Baiña, Joxeparen iritzian, berez jaiotzen dana dala irriparrik goxoena. Ez ikasia. Ortan arrazoi zeukan.

Baiña kantinera joan aurretik, asi zan Joxeparen apaltasuna zerbait naasten. Esneketariaren kontuak at-e-ratzen zituen bein eta berriz, kalerakoan ta etxerakoan. Ordurako Krispin biotzean zeukan. Baiña irixten al zan

bere maillara? Beste batek, aberatsak alegia, eskari egiten bazion, biali egin bear al zuen?

Galdera oiek egiten zizkion bere buruari. Baiña orren erantzuna geroak emango zion. Lengoa ezin aztu, soldadu joan baiña len ainbeste lagundu baizion arek.

Alare, erriko enparantza baiña naastuago zebilkien biotza. Iritzi guztiak zeukaten ara sartu ta ateratzeko aukera.

Iritxi zan noizbait egun ori. Zoragarria askorentzat. Baiña bazituen bere buru-austeak. Izutua agertu zan.

Txilibitu ta danborren otsera, bere taldearen aurretik, jendea karrikaren bi ertzetan jarria, Ondarrabi'ko kale guztietan barrena egurasten, bere agermena egiten, mendiko lore garbia ximeltzeko arriskuan. Amaikatxoren begietatik sartu zan irudi eder ura.

— Mendiko baserri oietan ere bazeudek landare zoragarriak — zioten denak—. Au ala dek beiñepein.

Amaika txalo entzun zuen bidean. Jainkoak zekien zenbat argazki atera zizkioten. Egundoko nekegarria. Baiña gustoko aldapan ez baidago nekerik.

Bukatu zan ango ixtillua. Konpañiak etxeraiño lagundu zion illunabarrean. An zerbait artuko zuten ta urrengo urtera arte. Bazeukan atsedean pixar bat artzeko gogoia.

Ezer gertatu ez balitz bezela, urrengo goizean, apal-apal itxuraz beiñepein, jetxi zan astoarekin. Askok agurtu zuten, len an ikusi ta aintzakoz artzen etzutenak. Bere artzailleak, berriz, egundoko ongi-etorria.

— Dotore azaldu ziñan. Ez dezu, ez, orain aldame-nekoaren paltik izango.

Bidean ateratako argazkia ere eman zioten. Ori, lengo egunean. Urrengorako aztua dena.

— Eskerrik asko onengatik. Baiña len ere aldameneko-paltik ez daukat, Afrika'ra joana da baiña.

Arraintzalearen etxera joan zanean, an ere ongi-ettorria egin zioten. Bai bere argazkia eskeiñi ere. Baiña etzuen artu, beste bat eman ziotela-ta.

— Ez al diozu Krispiñi bialdu bear? —galdetu zioten.

— Ez dakit, bada, on aundirik egingo dion. Kezkak sortu besterik ez —erantzun zuen goibel xamar Joxepak.

— Auen elkar-maitasunak joan dituk —zioten mutillaren guraso ta anai-arrebak, ordurako bai-baizekiten aren eskutitzei etziela erantzuten—. Millonarioren baten zai geratua izango dek.

Baiña Joxeparen biotza etzuen goratzarre arek geiegi arrotu. Aundi-ametsak egin bazituen ere, laxter moztu zizkieten. Bi aldamenekoren eskaria izan omen zuen, biak bera bezin arloteak eta Krispiñen aldean kaxkarrak.

Mutillaren eskutitzei erantzun ez bazien ere, beste batzuk zeuzkaten erruak, naastu bear etzutenak sartu ziralako. Baiña neskatxaren biotza Krispiñekin zegoen.

TXALAK NAIKO AL DUTE?

Garai bateko oitura, ta amaika ipui badira ori egia dala erakusten digutenak: seme-alaben ezkontza geienetan gurasoak moldatzen zutela. Gure baserrietako neska-mutillak elkar ezagutu gabe, askotan ikusi ere gabe, ezkontzen zirala.

Batak eta besteak dote bezela zenbana ontzako urre eramango zituzten jakitean, eta gurasoak elkarrekin konpontzen baziran, ezkontza egiña zegoen, neska-mutillei galdetu ere gabe askotan.

Amaika errege ta erregin ere elkarganatu ziran, beren borondatearen aurka gaiñera, bi aberrietako agintariei ala komeni bazitzaien. Ori egia dala agertzeko, aski degu garai artako kondaira irakurtzea.

Bein senargaia andregaiaren etxera joan omen zan, gurasoak bialita, arrioa baiño dirua naiago zutela eskatzera.

— Atoz, atoz aurrera. Ikusi zazu andregai ori nolakoa dezun, eta itz bi egin itzazu berarekin —eskatu zioten neskaren gurasoak.

Etzeukan ikusteko gogorik, eta bere erantzun guzia au izan zan:

— Arrioarekin baiño naiago degula diruarekin.

Eta ezkontzeko ordura arte, gero betiko beretzat bearke zuen lagunarekin itzik egin gabe joan zan. Gurasoak agindu ziotena egin zuen, bai, ta gero etxera.

Beste batean ere, emen andregaiak ezagutu nai zuen aukeratu zioten laguna, ta amarekin bazkaltzera joan zan aren etxera.

Sekulako belar-zama ekarri omen zuen mutillak, be-
raizik ere neskaren aurretik, arek ikusi zezan; eta bear
zan lekuan bota zuen gero.

Sortari noski etzion begiratu andregaiak, baiña bai
bazkaltzerakoan irensten zuenari. Amari ala esan omen
zion:

— Mando batek aiña jaten du orrek. Edozeiñek
mantentzen du ori!

Mutillaren belarrietaraiño iritxi ziran neskaren kez-
kak, eta ala omen zion:

— Eta ez al du ikusi nik ekarri detan sorta?

Zoritxarrez, baiña gurasoak egiten zuten garai ar-
tan neska-mutillen ezkontza, auen berri gabe. Txarra edo
ona, or konpon, zaarrak kontentu geratu ezkeru.

Orduan ala zan. Seme-alabak etziran gurasoen tres-
na bat besterik. Berai komeni zitzaiena egingo zuten,
berak ere artara ezkonduak izango baitziran, ta gero ge-
rokoak.

Saiatuko ziran, ori bai, beren seme-alabak al zuten
etxerik onenetan sartzen. Baiña or konpon ezkontzen
ziranak.

Ia dena diruaren gora-beeran zegoen; ez elkar-maitasunean. Ori benetako menpetasuna zan. Gurasoen borondateak besterik etzuen balio.

Ori, jaunak, geiegia zala esan beariko. Baiña gaurkoa ere geiegia da, bada. Gurasoak ez omen dira iñor. Gazteak, nai dutena egiten dute.

Alare, gaur ainbeste bizi-alargun etzebillen orduan. Gaur, berriz, illebeta baiño lenago, bat batera ta bestea bestera ta kito, berriaren billa. Ori eguneroko ogia degu.

Gu kontatzen ari geran garaia etzan ona. Ez, ordea, oraingoa ere. Ura galdu ta aldaketa au bazetorren ordurako.

Baiña oraindik etzan iritxi. Gurasoak ere baziran norbait. Latiñak ziotena «*In medio consistit virtus*».

Joxeparen gurasoak maizterrak ziran, eta orrekin dena esana dago. Beartsuak zirala, alegia. Ama, Kontxexi, perlesiak joa. Aita, Joxe Mari, zurrutari eman xamarra. Len ez omen zan alakoa. Baiña emaztea gaixotu zitzaion ezkerero, naigabeak aztutzeko, griña txar orrek arrapatu zuen.

Seme-alabak, Jaunari eskerrak, onak eta sanoak ziztuzten. Joan Jose, zaarrena, laxter ezkontzekotan. Bigarrena, oraindik soldadu. Ta etxeakoandre bezela egiten zuena, berriz, gazteena: Joxepa.

Beartsuak bai; baiña batuak eta pakean bizi ziran. Diruak baiño geiago balio du orrek, etxeako martxa ondo eramateko.

Gurasoen biotzetan sartu zan, bada, diruaren poza; ta orrek naastu zuen ain bat egiña zegoen sendia.

Auzoan, ez oso urruti, bazan beste sendi bat aberatsotsa zeukana. Ez dakit izana. Baserri batzuen jabe, beñepein. Oien baserri batean bizi ziran Joxepa-ta. Bazituzten semea ta alaba, baiña etziran oso jatorrak.

Neska, Beatriz, buru argikoa zan ta alai ta dotorea. Baiña aul xamarra izaki eta onentzat osasun oneko senarra nai zuten, eta Joan Joxerengana itzuli zituzten begiak.

Semea, Txomin, kankallu bat, indartsua. Baiña etzan jatorra. Eroska, jenio txarrekoa ta birao-zalea. Eleizarako ere etzuen joerik. Oso goibel ta illuna. Itz gutxikoa. Elkar-izketa bati nola jarraitu etzekiena. Arek, bere aldetik, etzion neskatx bati egundo itzik egingo.

Auek osasuna nai zuten, bada, diruaren truke.

Arantzazu'ra egindako txango batean, an elkar topatu zuten; bazkaldu ere bai, Beatrizen ta Txomiñen gurasoak eta Joxe Marik. Au bakarrik zan.

Aspaldian zebilkiten asmo ori aipatzeko, ezin aukera oberik. Agur-itx batzuk egin ondoren, txuxen arira joan zan besteko emaztea.

— Aizu, Joxe Mari: askotan senar-emazteok itzegiten degu, zuek eta gu ez ote giñaken konponduko. Gaur baiño egokiera oberik etzaigu etorriko noski, ortaz zurekin itzegiteko.

— Ez badidazu garbiago esaten, ez dakit zertan konpondu giñezken.

— Alegia, zuen alaba Joxepa gure Txomiñekin ezkondu, ta zure seme zaarrena Beatrizekin. Eta ez det uste auek ere oso aldrebesak diranik. Zer derizkiozu? Beatrizi galdetu genion. Baietz, baietz erantzun zigun; oso atsegin zitzaiola. Ta Txomiñi ere bai, ta onek ere berdin erantzun zigun.

— Ez dakit, ez dakit nola konpondu giñezken. Gure etxean ez dago ontzako urrerik.

— Baiña bai seme-alaba bikain askoak. Osasuntsu ta buru argikoak. Guk ori nai degu. Gureak, gorputz

aundikoak badira ere osasun belaxka xamarrekoak. Baiña ontzako urre-paltik ez daukate.

— Munduaren erdia iruzurtzen du diruak. Ez dakit nere seme-alabak.

— Itzeginda etorriko giñake batera.

— Orduan, diru-truk osasuna nai dezute. Ez al da ori erosten ez dana?

— Bai. Ala da. Baiña gure seme-alabak ez al dute balio? Beatriz, neska dotorea ta alai, osasunez ere ez ain aula. Bizi zeraten baserria berekin eramango luke. Txomin, berriz, mutil aundia da. Osasunez ez dabil gaizki. Ixilla ta itz gutxikoa dala. Orrek, Joxeparekin ezkondu ezker, gure etxea eramango luke.

— Aizazu, Iñaxio: dirua baiño, ez al da osasuna ohea izango?

— Ez nago orren aurka. Baiña diruarekin osatzen da ori.

— Biak dira onak. Baiña dirua besterik gabe..

— Gure eskeñiari muzin egiten diozu orduan?

— Ez dizut onenbesterik esaten. Nere emazteak badu bere itza. Seme-alabak ere ez ditugu ixillean arategira bezela salduko.

— Bai, Joxe Mari. Orrek ala bear du. Aien baiezirik gabe, ez dago ezertan asterik.

— Ez al dago, gaiñera, bi sendiak ondatzeko arraixkurik?

— Badakit nora zoazen. Bi sendietako seme-alabak gaixoak sortu litezkela, eta etxe auetako aberastasunak laxter egingo lutekela porrot. Baiña bi aldeetara sartzen bada osasuna ta dirua?

— Ziurtasunik gabe egiteko, joko txarra da ori, Iñaxio.

— Baiña ezin gentzake txarra bakarra pentsatu.

— Bai. Onerako ta txarrerako, arraixkuak berdintsuak dira. Baiña txotxean jokatze ori... Norbaiti entzun izan diot, bazala gizon txiki, itxusi, kaxkar bat. Baiña oso listoa benetan. Buru argikoa, azkarra. Beste neska gazte bat ere bai ederrenetakoa, baiña bi ta bi zenbat ziran ezin kontatu zituen oietakoa. Mutil kaxkarrak arrazoi au jartzen zuen, arekin ezkondu nai baizuen: «Gu ezkontzen bagera, seme-alabak ederrak izango dira. Gorputzez, zure antzekoak. Talentuz, berriz, ni bezelakoak». Arrazoi ori etzegoen gaizki jarria. Baiña neska ere etzan, nere iritzian, ain buru gabekoa. «Eta, aldrebes gertatzen bada, zer?» erantzun zion. «Ori txarrena pentsatzea da». Arazo serioa da au, ta alde guziak gogoan eduki bear dituguna. Osasunarekin ez dago jolasik. Nere emaztea aspaldian gaixorik dago. Erraiña ere aul xamarra sartzen bazaigu, ospital biurtuko litzake gure etxea, ta mojatxoren bat ekarri bearko genuke oiek zaitzeko. Ulertuko didazute noski.

— Bai, bai. Ulertzen dizugu. Arrazoi orrek badu bere indarra.

— Gaiñera, zailla izango litzake oien asmoak aldatzea. Aspaldian beren aldamenekoarekin dabilta. Mutilla, laxter ezkontzekotan. Emakume gazte osasuntsu baten bear gorria dago gure etxean.

Joxe Marik salbatu nai zuen bere baserria.

— Bai. Orrela aurreratua badago, eziña. Baiña, len esan dizugunez, Beatrizi atsegin zaio mutil ori.

— Bai, ta nori ez? Ederra ta zintzoa baita.

— Baiña Joxepa gure baserrira ezkontzera ez ote litzake makurtuko?

— Orrena errexagoa litzake. Oraindik ogei urte ta gurasoen mende dagoena baita. Baiña onek ere badauka berea, arraintzalea gaiñera. Mutil bikaiña, Ondarrabia'n bat bada. Txiki-txikitan elkar ezagutuak, ez det uste alako artu-eman berorik dabilkitenik. Orrek, agindu ez-kero, laxter utziko luke. Gaiñera, diru-zale oietakoa da.

Aita gezurretan ari zan, edo alaba etzuen ondo eza-gutzen. Kantineira izan zanean, dena bestek eman zion, eta naigabe gogorra artu zuen, ta Krispiñekiko maita-suna aren biotzetik kentzen etzan errexa izango.

Berekoikeri gaiztoa aitarena. Alaba diruagatik ara bialtzeak etzion miñik ematen, bere etxea salbatu ez-kero.

— Bai. Neskatx ederra da. Ikusi genduen Alardean, eta aldareetan dauden aingeru oietakoa zirudien.

— Nik etxean esango det, baiña ez naiz indarrean asiko. Agian gurasoak utzi ta aldegingo luke.

Merienda aiek ordaindu zuten eta etxera etorri ziran elkarrekin.

— Joxe Marik burua zauli dauka oraindik —zioten gero senar-emazteak.

FAMELIA BI ZATITAN

Joxe Mari etxera azaldu zanean, bere betiko oitura zuen ezker, ezer askotarako gauza ez bazan ere, etzion bere emazteari naigaberik eman nai izaten, alakoren batean zerraldo illa erori etzedin. Bera jakiñaren gaiñean jarri gabe, etzuen garrantzizko erabakirik artuko.

Auzokoakin zer itzegin zuen eta zertan geratu ziran kontatu zion.

— Oso ondo pentsatua ori, Joxe Mari. Gure Joxepa ara ezkontzea ondo iruditzen zait. Eta zergatik ez neska onera? Aien diru ta etxeen jabe egingo giñake.

— Ura onera ezkontzea etzait ondo iruditzen. Zu gaixo zaude. Ura ere ez da oso osasuntsua. Emen emakume zauli ta gogorra komeni zaigu. Baiña Joxepa ara, ori bai. Ez dakit, ordea, naiko duen.

— Oraindik ez ditu bere eskubideak iritxi.

— Bai, nai badu. Baiña maite duen biotzarekin jolasik ez dago.

— Gaur apaltzean itzegingo degu. Nere alde aterako zera noski.

— Bai, Kontxexi. Nik esango det egin diguten eskeiña. Baiña ez daukat iñor beartzeko gogorik. Arraixku aundikoa baita ori.

Apaltzera sartu ziranean, aitak aipatu zien auzoen eskeiña. Bigarren semea ere etxean zegoen orduan, bai-menarekin etorria.

— Aiek zertan naasturik bai al daukate gure etxeko arazoetan? Beude beren praktetan —zion seme zaarrenak.

— Eskeiñi bat besterik ez dek. Beatriz iretzat nai litekek; eta Joxepa Txomiñentzat.

— Orain artean fameli ontan pakean eta batuak bizi izan gera. Oraintxe dena naastuko dezute. Ta ori legez egin ditekelakoan al zaudete?

— Beatriz iretzat, eskeiñi aldrebasa ez dek ori — zion amak.

— Ama, nik ogei ta zortzi urte dauzkat, eta ez naiz ain otzbera. Ez det negurako alako berogarri bearrik.

Joxepak-eta par egin zuten.

— Nik badet nerea, ori ez bezelakoa gaiñera, ta laxter ezkontzeko asmoan gera. Ori badakizute zuek ere.

— Eta ik? —galdetu zioten bigarrenari.

— Ni soldadu noa. Andik etorri arte, ez det olako naaspillik nai.

— Dirua besterik ez daukan neskatx gaztea. Aukera ori jarri baziguten guri... —zion, bere aulkian biurrituz, amak.

Bigarrenari arrazoi eman zioten. Andik etorri arte ortan ez astea, ondo egiña.

— Eta i, Joxepa, ezkonduko al intzaken Txomin Potzolarekin?

— Nik ere, ama, badet nere, orrek alako amar bali duena, eta ez nuke utzi nai.

— Oraindik umea aiz, ta ori al den gurasoei emateko erantzuna? —karraxi egin zuen bere txokotik amak.

— Nik gurasoei begirune aundia diet. Baiña nere etorkizunari ere begiratu bear diot. Eta ni ere ez naiz otzbera. Eun da kilo geiagoko apote batekin ez naiz ezkonduko.

— Txomiñekin bezelako etorkizunik ez den iretzat izango.

— Nik berriz, arlotea izanagatik, bestea maite det. Arek, al zuen aiñean lagundu zigun. Beste auek guregatik gaizki esaka besterik ez ditut nabaitu, askotan gaiñera.

— Arraintzalea, kabirik gabeko txoria. Orrekin nora joan bear den?

— Udaraberrian txoriak elkartzen diranean, ez dute kabirik izaten. Bien arte egiten dute gero.

— Ire arrokeri oiek alperrikakoak ditun. Oso-osorik i gure mende ago, ta guk erabakitzen deguna egin bear ko den.

— Ni bizi naizen arteko kalbario gaiztoa izango litzake ori neretzat. Maite banauzute beiñepein, ez beartzen asi.

— Gurasoei emateko, oiek erantzun kaxkarrak ditun —zion oiuka ama elbarriak.

— Errespeto aundia diet gurasoei. Baiña nik ezkondu bear det, eta ez zuek.

— Gurasoak ezkondu gaitziken gu ere.

— Ura gaizki egiña bazegoen, zergatik ori bera egin nai diguzute?

— Arro mintzatzen aiz. Baiña nai baden ta ez baden, orrekin ezkonduko aiz.

— Lotuta ez banazute beartzen, ez.

— Alako ezkontzak ez du balio —salta zuten bi anaiak.

— Zuek ere orren alde al zerate?

— Guk arrebaren askatasuna babesten degu.

Bere onetik atera zan ama. Len ere izaten zituen olakoak. Nai zuena egiten ez bazioten uzten, kirio guziak aizkatuko zitzaizkion. Joxepa, ta aita bera ere, ikaratu zan, ama ez ote zan bertan ilko. Laxterka bere ondora joan zan, ta:

— Lasaitu zaite, ama. Egingo det zuk agindua.

Gurasoei zien maitasunak galdu zuen, baietza emateraiño.

Ukabillarekin jo zuen maia anai zaarrenak, ango ontziak dardaratuz.

— Fameliko pake ta batasunak galdu dituzute betiko, eta ez digu ondoren onik ekarriko. Baiña ni bizi naizen arte, ez aiz i orrekin ezkonduko, edorrek ez baden ala nai beiñepein. Nik billatuko dizkiñat ori galezaraziko duten bitartekoak, orrek alako amar balio din besteak-eta.

Amak, bein eztabaidan asten zanean, burua galtzen zuen, eta etzekien zer esaten zuen. Oiuka eraso zion seme zaarrenari:

— Ai zer otsoa aizena! I etxean geratzen baaiz, ez diagu gauz onik. Biali egin bear augu emendik.

— Ortan asten bazerate, ez biali, ez. Neroni joango naiz.

— I geratuko al intzake? —oiu egin zion bigarrenari.

— Ni, ama, berriro ere, soldaduskara noa. Anaiari lekua kendu baiño len, aldegingo det Ameriketara. Zuek autsi dezute, bai, emengo pakea, ta orain zerok konpondu.

Aita zearo goibeldu zan. Amua bota besterik etzuen nai-ta, ea norbaitek irensten zuen. Baiña emaztea erretxindu ta aurreregi sartu. Bera dala, bai, fameliko buru, ta neurriak artuko dituela.

— Utzi zaiogun arazo oni oraingoz pakean, Kontxexi. Nik aien eskeiñia nola dan, amua bota det. Baiña nai ez duena beartzen aste ori, gogorregia litzaidaket.

— Orduan atzera egiten dezu, Joxe Mari. Leku onean uzten nauzu.

— Nik ez det atzerarik egin. Zu sartu zera aurreregi, nere eskubideak artuz. Zuk diozun bezela, Joan Joxe biali. Bigarrena soldadu dijoa. Joxepa arekin ezkondu erazi. Etxeko martxa nork eraman bear du? Bagoazke biok Erruki-etxera. Iru seme-alabak bat egin dute, guregandik bereziz. Orixe da irabazi deguna. Utzi zaiogun, diozut berriro, arazo oni. Polliki ta goxo egin bear diran lanak dira.

— Ori da itzegitea, aita. Nai duenak irentsi; ez beartu.

Goibel bukatu zuten aparia. Beste guziak joanta, Joxepa geratu zan gurasoekin sukaldean. Beldurrak zegoen beartzen asiko ote ziran. Baiña anaiak berekin zeuden. Orrek zerbait lasaitzen zuen. Amaren osasunak ikara ematen zion. Gogor egin ta iltzen bazan, ez al zuten gero esango ama alabak il zuela?

Sukaldeko garbitasunak bukatu zituenean, ala esan zion amak:

— Zer den Txomiñekin ez ezkontzeko?

— Neretzat ez dala egokia, ta ez detala maite. Ori da guzia.

— Utziozu gaurko ontan pakean —esan zuen aitak—. Pauso txar bat eman degu. Oiek irurak bat egin dute. Biok bakarrik geratu gera, alabaren maitasuna ere erdi galduta.

Ori dena entzuten zuen Joxepak: aitaren asmoa etzala txarra. Amak naastu zituen bazter guziak. Lanak bukatu zituenean:

— Ama, goazen oiera.

Bere esku-kotxean artuta, lotara eraman zuen; eta, musu bat eman ondoren, agurtu:

— Jainkoak gabon dagizula. Ondo lo egin.

Eta bere gelara joan zan. Krispiñi ezer ez esatea an erabaki zuen. Ortarako, etzion erantzungo. Bere etxe-koen burrukak kontatuta, zertarako naigabetu bear zuen? Eta, zoritxarrez, ori zan mutillarentzat tristeena: ez erantzutea.

Beldur ematen zion ama elbarriak. Bereala ateratzen zan bere onetatik. Baiña orixe zan sarean lotuta jartzea. Etzuen berak ama-iltzaillea izan nai; eta, ez bazan bere borondatera jartzen, gertatu zitekena. Bestera, berriz, Krispiñek benetako naigabea ematen zion. Bai-baizekien asko suprituko zuela.

KRISPIÑEN KEZKAK

Etzuen Krispiñek soldaduska atsegiña igaro. Ezbear batzuk izan zituen.

Sutunpa edo kañoia mando gaiñera igotzen ari zala, au mugitu egin zitzaion eta erorikoan oiñaren gaiña arrapatu. Ondorengo egunak oiñazetan txarrak pasa zituen. Alare, polliki-polliki arrunt sendatu zitzaion.

Ori baiño gaitz txarragoa izan zuen oraindik, eta ez dakit nola etzan bertan geratu. Sukar gaiztoak eraso zion, *paludismo* deitzen dioten orrek, eta etzuten koar-teletik ateratzen, egun ta gau luzeetan berrogei ta bi inguru sukarra zeukala. Berak etsi omen zuen, antxe kixkali ta il bearko zuela. Buruko illea ere oso erortzeraiño.

Noizbait etorri omen zan sendagillea. Ura ere militarra. Aztertu ondoren:

— Mutil oni kinina emaiozute.

Bereala sendatu omen zan, etxera baiño len illea ere jaio zitzaiola, gaitzaren aztarren guziak kentzeraiño.

Alare, ori dena askoz errexagoa izan zitzaion, Joxeparen ukatzea baiño. Bat bestearen ondoren bazijoa-zen eskutitzak, zazpitaraiño. Baiña alperrik: etzuen erantzunik artzen.

Sentimentu guziak ez bazituen galdu beiñepein, zerbait esateko; erantzuteko bere eskutitzari, aurrera edo atzera zer egin zuen jakiteko.

Etzan Joxeparen biotzik biguintzen. Etzion erantzuten, eta Krispiñen larria azitzen zijoan.

Nork pentsatu bear zuen, urte bete bat lenago Guadalupe'n azken agurra egindako neskatx maitagarri arek ori egin bear zionik, beretzat sube gorri biurtu zan-ta? Gaitzak auldua utzi zuen. Baiña orrèla nola indartu?

Naigaberik aundiena beretzat ez erantzutea zan. Muzin egite ori. Aintzat ez artzea. Bigarren urte-sarreran, soldadu-gai berriak joan ziranean, aietan ondarrabiar bat baiño geiago baziran ta galdetu zien.

Aiek etzuten neskatx ori ezagutzen. Batek ala esan zion: urte artan kantinera egindako bat, Joxepa izeneko zala. Baiña deitura ortako neskatx gazteak Ondarrabia'n asko izango zirala.

— Olakoren bat gertatuko uan —zion berekiko—, argi-oillarra bezela arrotuko uan-ta.

Ta millonarioren baten zai geratu edo besteren batekin asita, ajola izango zitzaiokeen ari Afrika'n supritzen zeukanarengatik.

Guadalupe'ko serorak emandako aolkua etzuen ikasi. Olakorik gertatzen bazan abisatzeko esan zien, berak jasan zuena oroitzuz.

An mutillak egin zuen pekatu. Emeñ, berriz, neskek. Gero elkar-iltzeak etortzen omen dira. Ez da bature arritzekoa. Ainbeste urte elkarrekin ibilli ta gero,

aintzakoz artu gabe iseka eginta bezela utzi, mingarria da ori. Ederki ari zan Krispin orren berri ikasten.

Bere zalantz gaiztoetatik ateratzeko, arrebari egin zion eskutitza, eskatuz mesedez esateko zer egin zuen Joxepak. Lenengo amazazpi eskutitzei txintxo erantzun ziela; baiña geroztik etzuela artu.

Illabete inguru artu zuen erantzuna. Arrebak denaren berri bazekien, baiña etzion esan nai izan. Joxeparen ixiltzea errespetatu zuen. Kantinera ibilli zaneko argazki bat biali ere eskutitzan. Orain etzala esne saltzera etortzen. Bere koñata zebilela aren lekuan.

«Jostera joaten da. Elkarrekin gabiltz. Zure berri-rik badetan maiz galdetzen dit. Oso triste ta bakarti somatzen det. Iñoiz ikusi izan det, Domingo Potzolo deitzen dioten egundoko mutil baldar batekin.»

Eskutitza artu zuenean, irakurri baiño lenago argazia ikusita, antz eman zion bere ustez an zer gertatuko zan. Arro-aizeak puztua, aberatsagoren batengana urbildua izango zala. Baiña Domingo Potzolo ori nor ote zan? Zalantzik gabe, aberatsen bat.

Noizbait bete zituen bere bi urteak; eta, Afrika el-korrari agur egiñez, etxerako bidean jarri zan. Laxter ikasiko zuen denaren berri.

KAIAKO NEGARRA

Urte batzuk ditugunok, batez ere kai inguruan bizi geranok, badakigu enbata zer dan. Gaur oraindik alada, ta garai artan geiago: arraintzaleen beldurra.

Batere uste gabeen sortzen danean, eun ta eriotz ta geiago egindako enbata ikaragarriak izan dira nere go-goan. Orduan izaten da Kantauri-ertzeko benetako kaie-tako negarra.

Ontziak galdu, beren langille ta guzi. Itxas arroak irentsi gero. Ara ta onera, banaka-banaka, inguruko ondartzetara bota ildakoak. Askotan, ordu beteko eraso. Baiña bai benetan gaiztoa.

Tximist, ortots ta aize zakarraren eragiñaz itxasoaren sabelak irakiten asten diranean, eta mendia aiñako ugiñak eten gabeen, intxaur-azal bat bezela uraren mende. Aren barruan datozenen larria, ez da nolanaikoa izango.

Askotan, berriz, ugiñak bizkarrean artu ta mendi gaiñera bezela igoko du, bat-batean azpiko ondarra jo-

tzeraiño irauliz. Itxaso gaizto orren mende geratzen dan ontzi aulak, ez dauka beste aterarik: irentsi urak, edo arkaitza jo ta txikitu ere bai. Ontzi ta arraintzaleak urera orduan. Ugiñak zurrunbulloan elkarren kontra jo ta lertu ere bai. Oiek dira Kantauri'ko enbataren lanak. Ontzi aundi oiek arpegi emango diote; baiña txikiak ez.

Enbata, bat-batekoa beiñepein, geienetan egoak itxas aldera egiten duen aldaketaren ekaitza da. Itxasoko aize otz ori berora zurrunbulloan sartzen danean sortzen dana.

Askotan motxa, baiña kalte ikaragarriak egiten dituen. Purrustada-aldi ori pasatzean, bare-bare geratuko da itxasoa. Baiña Kantauri'ko kaietan negarra erein da gero. Amaika alargun ta umezurtz egiten dituen zorigaiztoko enbata, uste gabeen datorrenean.

Garai aietan, beldurgarrienetakoā zan ori. Gaurko aurrerapenakin asko txukatu dute kaiako negarra. Baiña oraindik ere, tarteka-tarteka, eriotzak izaten dira.

Ontziak motelak eta aulak, denboralea ezagutzeko berriz atzeratuak, ortarako tresnik ez, uste gabeko enbatak itxas barruan arrapatzen zituenak nola etzituen txikituko?

Krispin Afrika'ri agur egin ta atera zanean izan zan oietako bat, eta zoritxarrez odoltsua. Baziran galduak. Bat Ondarrabia'n, aize ta ugin-kolpe batek ontzi gaiñetik indarrean eramana. Ta olako baten eriotzak, orduan beiñepein, erri txiki oietan kaiara dolua ekartzen zuen. Gaur egunean ez dakit ainbesterik izango dan.

Krispiñekin batera baziran arraintzale geiago. Aiek urduri geratu ziran.

— Legorrean olako indarra dabilkien aize onekin, gure Kantauri itxasoan ez dek atsegin izango.

— Gaur ere, kai batean baiño geiagotan izango dek negarra.

Etziran, bada, beren bidean lasai etorri.

Egun-sentian, arraintzaleak, atera edo geratu, zalantzan ibilli omen ziran. Igeldo'koak esan zuela zer-bait: erne ibiltzeko; obe zutela ez itxasoratu; arratsalde erdi alderako enbata sortuko zuen itxurak bazirala; motxa baiño bizia izango zala. Ori dena entzuna zuten.

Goizean eguraldi goxo-goxoa zegoen, eta goiz gorri. Egoa dabillenean, arritzekoa ez da ori. Baiña ari zan aizea zakartzen eta naasten. Karriketako paper ta orbelak etzeukaten pake aundirik. Ara-onera bueltaka zebiltzan. Zabalik zeuden ate ta leioak asi ziran zanbala. Balkoetako zapiak, beren lokarrietatik kendu ta zeramazkien.

Ordurako, batzuk itxasoratuak ziran. Erretiratuta zeuden arraintzale zaarrak, banaka-banaka, zer ikusi bazetozen kaiara, zer eguraldi zegoen jakitera. Au zan aien elkar-izketa:

— Alegiñak egin zizkiot nere semeari ez joateko, enbata gaiztoren bat sortzeko arraixkua dagoela-ta. Egun bateko lanik-ezak ez gaituela goseak ilko. «Egon lasai, goiz etorriko gera-ta» esanta joan dituk. «Bai. Goiz etortzeko asmoan joango zerate, baiña itxasoak ez dik itxogiten ikasi. Gure bizimodurako asko ematen ziguk. Aldizka, ordea, bazekik errenta gaiztoak eskatzen. Uste gabeko billaukeriak maiz egiten zizkiguk». «Onek ez du arratsera arte ekarriko» esanta joan dituk beñepein, ta etzekiagu zer gertatuko dan.

— Gu asko ikusiak gaituk itxaso orrekin. Burruka zaartuak. Enbata asko igaroak. Baiña gazte auei dena badakitela iruditzen zaiek. Gure aolkuak ez dizkitek ontzat artzen —zion beste aiton batek.

— Gureak ez dituk joan, zalantza pranko ibilli ditek baiña. Ontzia ere ala-modukoa zeukagu, bai. Ori konpondu ta ongi jartzen ere, xox batzuk kenduko zizkigutek. Ureko langilleak ez diagu asko irabazten. Baiña guk ainbeste arraixkurik gabe, legorrekoak bertan egiten ditek Amerika.

Urrengo, emakumeak azaldu ziran, arraintzale zaarrei galdezka:

— Zer dirudizute: onek ortan iraungo duela?

— Beste ordu beteren bat edo bi baliteke. Baiña arratsalde erdi alderako bere sudur-txistu ta zakaraldiren bat egin gabe ez da geratuko. Badator. Zenbateraiñokoa izango dan ez dakigu.

— Guadalupe'ko Ama, erruki zaitez gutzaz!

— Bada ez badako eguna dala, baiña joan da gurea ere. Erne ibilliko al dira, etxea bete ume daukagu-ta!

Olako egunetan, Kantauri itxasoko kaietan, larria izaten da.

Emakumeak joan ziran, baiña aitonak ez. Len askotan berai gertatuaren oroitzak, larrienetakoak, ezin aztuak. Bazkaltzerako aize naasia asia zan, eta beldurak joan ziran bazkaltzera.

Aiek etziran lo-xuxtak egiteko orduak. Bein beren jan-legea egin orduko, an ziran berriro kaian. Berentarrak arraixkuan zebiltzan arte, ezin lasaitu.

Ordurako aizea oztu zan, eta gero ta beeragotik jotzen zuen. Lauetarako gaiñean zuten, arraintzaleen iritzian.

Bazter guziak eramán bearrean aizea bazebillen ere, etzan oraindik itxasoa naasten asi.

— Gaiñean diagu enbata. Onuzkero itxasoan dabiltzanak, oartuko itun.

Ardi txuriak ere azaldu ziran. Itxasoa barrundik irakiten. Kaiako larria gora ta gora zijoan.

— Ama Guadalupe'koa, erruki zaitetz gutzaz! — zioten emakumeak.

Etzuten, bada, itxasokoak bakarrak supritzen. Jakiña, aiek zeuden arraixkuan ta bizia jokutzen zutela. Baiña legorrekoentzat ere etzan nolanaiko estuasuna.

— Antz eman ziotek. Asiak dituk kai aldera.

Oartu baiziran, begiratuta, batzuk aballan legorretara zetozela.

— Oiek asmatuko ditek —zioten.

— Oartu badira, garaiz sartuko dituk. Ez baidira urrutira joanak izango.

Banaka-banaka asi ziran kaieratzen. Bai aitonak ere galdezka:

— Zer moduz itxasoan? Antz eman diozute noski.

— Denbora gutxian arraintza pollita egin degu. Baiña bai enbatak garaiz abisatu badatorrela. Ez da bizi oietakoa. Baiña baliteke gaiztoa izatea, urruti artan ortotsa ere entzuten da-ta. Inguru xamar egin degu lana. Urrutira joan dan burugabeko arraintzalerik ez da Ondarrabia'n. Ondo ari giñan, bada, lanean.

— Orduan, denbora gutxi ontan lan ona egin dezute.

— Ez gatoz asarre.

Polliki-polliki bazetozen kaiara, enbatak laxterka aurrean zekarzkiela. Bat ez besteak, denak kaieratu ziran. Txakurrak ardiak bezela, denak aurrean ekarri ziotuen enbatak.

— Non geratu ote da bakar ori?

— Ez degu uste galduko danik. Ondo zetozen. Baiña ezbear bat izan dute. Ugiñak arrapatuta, bat eraman die itxasora. Bizia edo illa ura ezin arrapaturik geratu dira atzera.

— Gaur ere badegu orduan dolua Ondarrabi.

— Bai, noski, zoritxarrez. Itxaso onekin ura bizi-rik arrapatzen zailla izango da. Besteak bederenik etorriko balira...

Bete-betean sartu zan enbata. Ango txistu ta orruak, tximist eta trumoi-otsak! Arresi gaiñetik aidatzen ziran ugiñak kaian. Lotutako ontziak ere etzeuden noski seguru. Eraman nai zituen. Baiña arraintzaleak seguritik ikusi zuten.

Ordu bete baiño len ozkarbi zegoen, eta itxasoa paketua. Egoatik jotzen zuen berriro aizeak. Emengo enbata asko olakoak dira. Baiña ekaitz ori pasa arte, arraixku txarrekoa. Ari gogor egingo zion ontzirik etze-
goen Ondarrabia'n. Palta zan bakar arek zer egin ote zuen?

Enbata pasa ondoren, ontzietara sartuta ekarrita-ko arraiak ateratzen ari zirala, etzan besterik entzuten:

— Olako palta dan bakar orrek, zer egin ote du?

Oraindik Ondarrabi'ko kaian bazegoen larria.

— Ez bada beste kairen batera sartu, txiki milla puska egiña izango da. Intxaur-axal auek nola eutsi bear diote itxas gaizto orri? Ori beste eusgarririk ez du arraintzaleak-eta.

— Orduan badegu gaur ere gure kaian negarra — zioten berriro.

— Bai. Ori ondo sartzen bada ere, bat urak eraman du-ta.

Lasaitasunik etzegoen, bada, Ondarrabia'n. Bazekiten bat galdua zala. Baiña nor?

Illun-bista aldera sartu zan atzera geratutako ontzia. Enbata arek oso arrapatu baiño len, Orio'ko kaian sartu omen zala.

Poztu ziran denak. Bai lasaitu ere. Berekin zekarten illa. Etxe artan izango zan negarra. Ontziko nagusi xaarra omen zala.

Biaramonean illetak. Bazekiten non zeukaten beren eginkizuna.

Goizean-goiz asi ziran eliz nagusian kanpaiak, borondate oneko jendeari otoitz egitera joateko deika.

Arraintzaleak, itxasoratzea gerorako utzita, ondo jantziak. Orduan ala joaten ziran. Eliza gaiñezka zegoen.

Illetatik etxera zetozenakin batera sartu zan Krispin, Afrika'tik etorria. Goizean iritxi baizan.



AU BESTERIK DA

Afrika'rakoan berak uste zuen bezelakoa etzan ura. Mundu au pixar bat bederen ikusteko zaletua joan zan. Baiña bere ametsak etzituen bete. Kilometroren batzuen barruan egin zuen bere bi urteko bizitza.

Alde artan ibiltzen ziran arraintzaleak esanta, bazekien erri koxkor aiek beiñepein zearo arloteak zirala, ta arrotzari muzin egiten zion jendeak. Orrek etzuen batere arritzen. Zapaltzailleak ziran, eta zapalduak ezin ongi-etorririk egin eta goxo artu.

Kontatzen zutena baiño ere kixkalgarriagoa iruditu zitzaion, berak bi urte pasa zituen alderdi ura beiñepein. Gau ta egun giro berdiña. Egunez etzan arritzekoa. Baiña illunabar aldera, Ondarrabia'n bezela, etzuen aize preskorik aterako. Gauda, eguna bezin bero itoa.

Itzalik ere ezin arkitu ziteken lekua, teillatu-pean izan ezik. Zugaitz erdi erretakoak, kaxkarrak. Beiak edo antzekoak ere ikusten zituen. Baiña aundiz emengo

auntzak ziruditen. Oso txiki ta argalak. Berak joatera-koan amespean ikusten zuenaren itxurik etzeukan. *Paludismo* edo sukar txar ori edozeiñi atxikitzen zitzaion. Berari naiko lanak eman zizkion beiñepein. Ametsetan joan bazan ere, ondo esnatua zetorren andik.

— Ondarrabia bezelako lekurik etzegok mundu zabalean.

Alare, an bizi diranak etzebiltzan kanpora joateko ametsetan.

— Agur, Afrika legor, kixkalgarría! Joandakoak oroitzuz, balitekek ikertxo bat egitea. Baiña emen bizitzeko asmoan, ez orixe! Bego moroentzat!

Krispin ta bere lagunak, asper-asper egiñak, agurtu zuten bi urte alperrik galdu zituzten lur ura, ta jarri ziran etxerako bidean.

Bai pozik zetorrela bere sorterrira, Ondarrabi'ra. Baiña arantz zorrotz bat biotzean sartua zekarren. Etzekien bere etxera etortzean aterako zitzaion. Arrosak, arantzak ere berekin izaten zituela esan zion, berari ondoraiño sartu zizkionaren lengusuak. Orra asmatu.

Alare, bere lagunuen umorean bat eginta jarraitu zuen Krispiñek. Joxepa, berriz, maitagarria izan arren, etzan bakarra. Ondarrabia'n etzeukan paltik.

Zekizkiten abestirik geienak kantatu zituzten. Olanak dira soldaduak. Bidean, an da emen, banakabanaka ateratzen zitzaizkien lagunak, bi urtean elkarrekin bizi izanak. Batzuek, beiñepein, geiago ikusteko itxaropenik gabe.

Gipuzkoa aldera iritxi ziraneko, oso bakandu ziran. Bai lasaitu ere. Arnas luze bana artu zuten zetozenak.

— Etxean gaudek. Afrika kixkalgarría dek. Baiña bidean ikusi ditugun barruti batzuk ere, bazeukatek angoaren antza. Au besterik dek.



— Emengo aize presko onek eta barruti auen eze-tasunak! Soro ta belaze denak lorez beteak!


Maiatza sartu berria zala uste det, aiek etorri zira-nean. Baserrietan ikusten zituzten gizaki bikaiñak, bat-zuk goldean, besteak laian, baratz-lanetan ere asko.

— Au Euskadi izaki. Balekite nolakoa dan, emen ituke denak.

— Begiraiek or lanean ari diran bei oiei. Ango lau aiña badek emengo bakarra.

Alaxe, kantuan ta elkar-izketan, iritxi ziran bakar batzuk Irun'era. Andik Ondarrabi'ra bi zetozen. Baiña baserri batean utzi zuen laguna. Ura Amute'koa omen zala.

Baiña bakarrik jarri zanean, Krispin urduri geratu zan. Biotzean zeukan arantzak min ematen zion. Zer-gatik ez ote zion Joxepak erantzunik eman? Esan zio-tenez, Txomin Potzalorekin omen zebillen. Baiña ori etzan arrazoia. Aski zuen eskutitz bat egitea, dena garbi kontatuz. Zerbaiten eskutua bazegoen or, eta argitzea nai zuen.



KRISPIN ETXEAN

Oldozpen auek buruan zebilzkiela sartu zan kaia-
ra, bere sorlekuan. Txoko ura ezagutzen zuen ondo.

Oiñak an jarri zitueneko, negarra ta tristura zegoen.
Arraintzaleak dolu-miñetan arkitu zituen. Baiña ori no-
nai ta noiznai ikusten deguna da. Edozeiñen ateetan
deitzen du eriotzak ixil-ixilik, eta ireki egin bear. Berea
iritxi arte ez du aldegingo.

Guk badakigu bezperan ildako aren illetak zirala.
Andik zetorren jendearekin naastu zan Krispin. Baiña
ez det uste iñork ezagutu zuenik. Bi urte aietan palta
zana, ta jendea aztua zegoen. Etortzekoa zanik ere etzu-
ten usteko.

Kai alde ori ikusteko etzuen gero denbora-paltik
izango. Txuxenean etxera joan zan. Ama ta bi arreba
arkitu zituen. Zaarrena, Karmen, jostera joana. Gizo-
nezkoak, berriz, lagunaren illetan, oraindik etorri
gabeak.

Atea jo zuenean, lenen ama azaldu zitzaion. Etzion
agurrik emateko betik utzi.

— Kaixo, Krispin! Ongi etorria! Noizbait utzi al dittek? —oiu egin zuen amak.

Ori entzunik, laxterka azaldu ziran bi arreba gazteenak; eta, jakiña, musuketa.

— Bai. Noizbait, ama, iritxi da gure ordua. Ta ondo arkituak. Noizbait bagatoz etxera lur elkor artatik.

— Ator, ator, aurrera. I joan intzan, baiña kilo batzuk gutxiago baaiz noski.

— Ez da arritzekoa. Gutxi jan ta gau ta egun izerditan. Kiskalgarria da lur ura. Itxas-bazter ontako aizeak, angoak alako amar balio du. Ezbear aundiak izan ditut. Soldaduska kaxkarra pasa det.

— Ire eskutitzak irakurtzea aski uan, egia diokela esateko. Etxera ere goseak etorriko intzan noski.

— Ezetz banio, gezurra esango nuke. Ez didazu bi aldiz aipatu bearrik, andik oneraiño baraurik nator-ta. Ez neukan zerekin erosi. Arlote joan ta arloteago etorri naiz. Garizuma luzea izan da neretzat.

Auek izketan ari zirala, azaldu ziran aita ta bi semeak presaka, bereala itxasora ateratzeko asmoan. Bai laxter igerrri ere berri onen bat bazutela etxean.

— Zer dezute? Alai ikusten zaituztet —galdetu zien alabei.

— Afrika'tik Krispin etorri zaigu ta...

— Ara! Ori ere bai al degu?

Txuxenean sukaldera joan ziran.

— Kaixo, Krispin, aspaldikoa! Parranda luzea uan orratik oraingo au.

— Oiñak an jarri nituen ezkeru aspertua nengoen. Bazter kiskalgarri aiek ikusita, zein ez nazkatu? Etor-tzen utzi balidate, bi urte auetan emen nengoen ni.

— Argal xamar etorri aiz. Baiña itxura txarrik ez daukak.

— Gaitz gaiztoaren bat pasa duela esan digu berak —zion amak—. Arraintzale askok Afrika'ko gaitza esaten dioten ori noski. Batzuk, gerora ere izaten dizkitek erorikadak.

— Pozten gaituk, motell, benetan. Ez dek lanaren paltik izango. Bik aldegin ditek, ik lana egiten uan ontzitik. Ezkonduta, goiko baserritar bat. Bestea, berriz, atzo urak eramanta, itoa ekarri ziteken. Aren illetak genizkien orain: Joxe, nagusi xaarra.

— Joxe da orduan il dana? Dolu-miñak eskeiñiz, lan-eske azaldu bear det.

— Ez dek atzera-aurreraka ibilli bearrik izango. Beso zabalik artuko aute.

— Orixe, aita, ez da neretzat berri txarra. Bi urteko alperkeri onek nagitu nau, ta ezin billaturik ibiltzea baiño obe det. Ogei ta iru urte dauzkat, eta ez naiz soiñean daramazkidan auen jabe ere. Ortik zerbait aterako al degu!

— Ango lur zeken aien ondoan, zoragarria dala au? —galdetu zion aitak.

— Egunetik arratseraiñoko aldea badago andik onera. Au besterik da.

— Barkatu, Krispin. Ez gaituk gaur bazkaltzen emen izango. Itxasora giazik. Atzo egun erdi galdu genin; gaur bestea.

Aita ta bi anaiak, bear zituzten tresnak artuta, arraintzara joan ziran.

Oraindik bazkaltzerako egoarte luzea zegoela-ta, kaian zer martxa zegoen ikusi, len nagusi izan zituenen etxera joan zan Krispin.

Garai bateko ezagun asko arkitu zituen kaian, geienak itxasora ateratzeko moldaketan. Baiña beraren nagusi izana ez. Aita zuten illa, ta aiekin itzegiteko asmoan beren etxera joan zan.

An arkitu zituen, urrengo egunerako tresnak moldatzen. Arraintzaleak egun asko galtzen zituzten txarra zegoelako, ta onak ezin utzi. «Bearra ez dek alimientua», esango dute eibartarrak; baiña ortatik dator zer jana ere.

Beren agurrak eginta, Krispiñek, serio-serio bere dolu-miñak eskeiñi ondoren, bere lan-eskaria egin zien.

— Eskerrik asko. Ori ere ez uan betikoa ta etorri aiz noizbait.

— Bai. Utzi didatenean.

— Eta, ik dioken bezela, gurekin lanean asteko asmoan?

— Bear badezute beiñepein, oraintxe. Ia larru gorririk jartzeraïño etorria nago.

— Ez dek, bada, bi aldiz eskatu bearrik. Gu ere premi gorrian gaudek.

— Eskerrik asko. Orduan biar emen nauzute.

— Obe, motell. Len eziñean gabiltzaken, ta aita xarrak ere egiten zin berea.

— Eta nola gertatu zan ori? Itxasoko berri ondo zekiena zan, bada...

— Bai. Irurogei urte baiño geiago itxasoan lana egiña uan ori. Enbata zekarrela ta abian gentozela, etzekit zeren billa kanpora atera zaiguken. Sartzen etzala ta begiratu bat egin nuenean, aizeak ez, urak eramana itxasoan ikusi genin, nola urean zebillen. Al genduen bezela arrapatuta, ontzira igo genin, gure biziaren arraixkuan. Aize ikaragarriä baizebillen, eta ugiñak

aundiagoak. Baiña ordurako gizarajoa itota. Ordu erdi bat galdu ondoren, doi-doi iritxi giñun Orio'ko kaiera. Bestela, itxasoan galduko giñun.

— Orrek ez du gaizki bete bere eginkizuna. Lan egi-tea zer dan ikasita joan da.

— Orduan biar etorriko aiz.

— Ez badet oker aundiren bat, kontatu nerekin.

ANAI-ARREBAK

Karmen, Krispiñen arreba zaarrena zan, au baiño bi urtez gazteagoa. Egunero jostera joaten zana, Joxepa zebillen lekura, eta ondo zekien or gertatzen zana-ren berri.

Lagun bezela, oso maitagarria ta eraxkorra. Orre-gatik, Joxepak konfiantza aundia zeukan onekin.

Afrika'tik ere, Krispiñek oni eskatzen zizkion be-riak. Bai txuxen biali ere. Baiña gertatzen zana ixilik gordeaz.

Au jostetik etorri zanean, eta anaia etxean ikusi, poztu zan. Lengo bi maitaleen ar-emanak berriro piz-tuko zituen itxaropena izango zala ori.

Bi urte luze aietan, neska ez ote zegoen luzetetsirik iruditzen zitzaion; eta bere sufritze ta eramanpenak ez ote ziran alperrik izango. Bere kirioak beti tiran bai-zeuden. Orain, Krispin aurrez-aurre ikustean, beste modu batera pentsatuko zuela. Ori zan Karmenen iritzia.

Egokiera ikusi zueneko, ongi-etorri eman ta besar-katu zuen.

— Ongi etorria, Karmen. Bi urte auetan ez dezu nolanaiko aldaketa egin.

— Onerako edo txarrerako?

— Txarrerako izan bazan, ez nizun esango. Benetan dotorea ta maitagarria zaude.

— Eskerrik asko loretxo orrengatik. Baiña oraindik aldamenekorik gabe.

— Zuretzat, nai izatea aski. Asten zeranean, ez aldituzu nik bezelako ixtilluak arkituko. Gogoan ematen dit denak utzi ta praille sartzea ere.

— Zu etzera, Krispin, konbenturako egiña. Asarre zabilta orduan? —esan zion parrez-parrez.

— Ezin bestela. Olako emakumerik izaten zanik ere ez nuen uste munduan.

— Oso utsegiña zaude. Joxepa neskatx piñetako bat da.

— Nola liteke orduan, nik ainbeste aldiz eskatu esateko zer gertatzen zitzaion, eta erantzunik ez emateko? Nik merezi al det olako traturik? Ez badu nerekin nai, esan dezala ta kito. Ni bai nabillela pin.

— Piña dalako ori dena, Krispin. Benetan maite ta galdu nai etzaitulako.

— Ijitoen joko. Ori ez da besterik.

— Bearbada ala izango da. Baiña neska ez det olakoekin berdintzen.

— Orduan Jainkoaren lekua artzen digu orrek. Arek ere, maite dituenak zigortzen omen ditu-ta. Joera ori, arrazoi txar batzuk esan ta betiko atzera uzteko ere, etzait oso aldrebesa iruditzen.

— Berarekin itzegin baiño len, ez orrela epaitu. Berak ere ez darama nolanaiko kalbarioa.

— Zer gertatzen zaion jakingo dezu, bada, zuk?

— Bai. Baiña nik ez dizut esango.

— Olakoak al zerate emakumeak! Zu ere ura beze-la jarri al zera, edo betiko arekin ni asarretu arazteko zabilta? Ordu ori, bada, Karmen, ez dago urruti.

— Emakumeok mingaiña besterik ez omen degu. Baiña Joxepa ta nerekin ez da berdin gertatzen. Guk elkarren berri ondo dakigu. Len esan dizut batera lan egiten degula ta ez daukagula ezkuturik. Nik oraindik ez diot iñori esan zuek nola zabiltzaten. Gure gurasoak ez dakite ezer. Anai-arrebak ere ez. Iñori kontatzezke-roz, zuri esan bear nizun. Baiña ez diot nere mingaiña-ri askatasunik eman. Zer geiago nai nuke, dakidana zuri jaulkitzea besterik?

— Bejondeizula, Karmen. Ez nuen uste olako arre-barik neukanik.

— Eskerrik asko, Krispin. Baiña Joxepa ere nere antzekoa da. Ainbeste neska gabilta josten. Alare, arek ez dio neri besteri esan. Zergatik? Zure arreba naizelako. Arek zure berriak jakin nai izaten ditu. Ez da egun bat pasako, zu nola zauden galderarik egin gabe.

— Ori errexu zuen, idatzi bazidan neri.

— Len ere esan dizut: maite zaitu ta etzaitu galdu nai. Bein esan nion, bere berri emanaz zergatik etzizun eskutitz bat egiten. «Zaude, zaude ixilik, Karmen» erantzun zidan, eta malkoak asi zitzaizkion.

— Arrigarria ori. Ni Afrika'n supritzen, erantzunik ematen ez didalako. Bitartean, zuri nere berriak eskatzen, maite nauelako. Ori, Karmen, irensten zailla da. Ez det sinisten.

— Berarekin itzegiten dezunean, ederki ulertuko dezu.

— Arrazoi gaiztoren batzuk emango dizkiot eta kito. Ura baiño argiago ta umillagoak izango al dira!

— Illun da arroa dalako ez dago ura ixilik. Beste bidetik dijoa. Zu ainbat edo geiago ari da supritzen. Eta, arekin itzegiten dezunean, eta zer gertatzen zaion ikasi, ez diozu arrazoi txarrik emango.

— Olako misterioak ibiltzeko, zer gertatzen da, bada, or?

— Bera bakarrik arrapatzen badezu, biotza eskuan duela, dena garbi-garbi jaulkiko dizu. Ori, zalantzik gabe.

— Eta norbaitekin bai al dabil? —galdetu zion Krispiñek.

Algara luzea egin zuen orduan Karmenek.

— Orren parregarria al da nik galdetzen dizudana? Maitatzea zer dan ez dakizu oraindik.

— Ez gaizki artu, Krispin. Ez det orregatik par egi-ten. Badabil, baiña mutil aundi batekin. Txomin Potzolo esaten diote. Nik *Tonelada* deitzen diot. Eun da ogei ta amar kilotik pasako da noski. Ez da itxura txar-
reko mutilla, baiña neska alako bi ta geiago pisan. Ikusten badituzu elkarrekin, par egingo dezu.

— Ez du nolanaiko apotea billatu. Badu negurako berogarri pollita.

— Noiznai etorriko zaio josten ari geran lekura, ta Joxepa atera arte an egongo da. Ez du beste iñorekin itzegingo. Neskak, ikusten duen orduko, ala esango dit, bere naigabea ezin diximulaturik: «Orain ere, Karmen, or daukat *Tonelada* zai». Elkarrekin joango dira. Baiña ni atzetik sumindua geratzen naiz begira. Aiek ez ditu Jainkoak bata bestearentzat egin.

— Eta nora joaten dira: Guadalupe aldera?

— Ez dakit. Baiña mutil ura ez da araiño igoko. Kilometroren bat-edo elkarrekin igaroko dute. Gaur arteko oitura guzien kontra, neskak lagunduko dio mutilari etxera, ta bakarrik etorriko da, Potzoloren gurasoekin itzik egin gabe. Ez du zaarrekin artu-emanik nai.

— Aberatsa izango da, bada, Potzolo ori?

— Otsak ala dira. Baiña ez det uste izana ainbeste danik.

— Diruarekin iruzurtu dute orduan Joxepa?

— Neska ez dute ezerekin iruzurtu. Ura lengoarekin dago, aberats edo beartsu. Orregatik, aolku au ematen dizut: ez arrazoi txarrik eman, ez du merezi-ta. Artzazu maitasunez eta dena irabaziko dezu, ura ere zu bezela supritzen ari da-ta. Aren lekuan bageunde, gu biok ere berdin egingo genduke.

— Gero ta illunago uzten didazu dena.

— Berak dena argituko dizu. Len esan dizudana: artzazu maitasunez.

— Ni ez naiz lotsagarri ibilliko. Berak ez badu nai, bego.

ERANTZUNA

Arrebak esan zion lekuan aritzen zan Joxepa lanean, josten alegia, ta zer garaitan uzten zuen ango lana. Bazitekela *Tonelada* zai egotea. Etzuela orduan itzegite-rik izango.

Kai aldera joateko asmoan zebillen, soldadu aurreko lagunak ikustera. Baiña ori beste baterako utziko zuen.

Joan zan esandako lekura. An zai geratu, neskatx ori noiz aterako, berarekin luze ta zabal itzegiteko asmoan, ez bazitzaion asarretzen beiñepein. Etzuen asiera txarra. Etzan *Tonelada*'rik an ageri. Itzegiteko egokiera polita izango zuen noski.

Lenengo erteera denak batera egin zuten, ixkanbil ta zalapartaka, adin ortako neskak oi duten bezela. Baiña bereala asi ziran banakatzen. Joxepa bakartu zanean, konten Krispin. Zai etzeukalakoan, erten zitzaion bidera.

Bere arreba Karmen bazter batetik begira zeukan, an egiten baizuen lana arek ere.

Bizkarrean arin-arin ukuituz:

— Kaixo, aspaldiko Joxepa.

Agur egiten ziona nor zan ezagutu zuenean, moztua geratu zan. Gorri-gorri egiña, erantzuteko beldurrak, lurrera begira.

— Nere agurrari erantzuteko biotzik ez al daukazu? Ortaraiño zapuztu al zera nerekin? Afrika'rako abian esan etzenidan, bada, bi legatz galtzen zenituela: bat nere eziñagatik, baiña bestea zedorrek nai dezulako?

— Aspaldi ontan aztua ziñudan, ta zertan zatoz orain? —erantzun zion.

— Gezurra diozu, Joxepa. Zu etzera egundo nitzaz aztu. Baiña orain, zuk utzi nauzun ezkerro, Guadalupe'ra noa, beste andregai baten eske.

— Beste bat billatzeko, ez dezu ara joan bearrik.

— Ortan arrazoi dezu, Joxepa. Lengoa aski det.

— Lengo ori nor da? Nik ez det ezagutzen.

— Nik bezin ondo dakizu: zu besterik ez. Lau urtean elkarrekin ibillita aztu nauzula, ori ez da egia. Memori eskaxa daukazu orduan. Etzenduen uste ni garai ontan etorriko nintzanik.

— Bai, Krispin. Ondo zeundela banekien. Gaitz gaizto bat pasa ta sendatu ziñala ere bai. Egun gutxi barru etortzekoa ziñala ere esan zidaten.

— Alajainkia! Aspaldian aztua zeneukan mutil baten berri txeetasun oiek guziakin ikasten al zenduen? Joxepa, len ere esan dizut: gezurretan ari zera.

— Lagunak esaten zizkidan eta nik entzun.

— Galdetu gabe nekez ariko da bat, zapuztuta zeneukan lagun baten berri ematen.

— Nik ala ikasten nituen, bada.

— Ez, galdetu gabe. Nor zenduen, bada, nere berri ematen zizun lagun ori?

— Barkatu. Naiago det ixilik gorde.

— Badakit nor dan. Berak ez badit esan ere, nere arreba bakarra da gora-beera oiek dakizkiena, gutxi bezelako neska jatorra.

— Orduan zergatik galdetzen didazu?

— Nolako borondatea ote daukazu jakiteagatik. Zuk zerbait nai zenduke ta ezin dezu. Ezkuturen bat badaukazu biotz ortan gordea. Krispiñek etzekien zer pentsatu. Etzuen noski lau urte aietan ondo ezagutu; berak uste baiño maltzurragoa zala.

Galderari etzion erantzun.

— Baiña zor txiki bat badidazula oroituko zera, ta ordaintzea nai nuke.

Neskak sobra zekien zor txiki ori zer zan, eta mutillak zer eskatzen zion. Baiña nola ordaindu, bere beste maite batzuk salatu gabe?

— Nik ez dizut zuri zorrik, nere ustez, zuk emandako legatz aiek besterik.

— Barkatu, Joxepa. Ez legatz aiek aipatu ere. Ainbeste artzen nuen nik zure eskutik. Biok umeak giñan oraindik eta maitasunez ematen nizkizun. Zuk neri ordaiñak bezela. Ez daukat damurik, batez ere urrikalduta, nola zeneukan ama ta zedorri ere nola zebiltzan jakiñik. Orain ere, naiz zu beste batekin ibilli, orren bearrean baziña, pozik ekarriko nizuke. Biar bertan asiko naiz lanean ta olakoxea da Krispin. Zuk egiten didazun isekarik ez det merezi. Geroztikakoa da ta zuk ondo dakizu zer.

— Nik dakidala, ez daukat iñorekin zorrik, eta eskerrik asko zure borondate onagatik. Ez dira olako asko munduan.

— Oroituko zera noski Guadalupe'ko serorak zer esan zigun, gure azken agur maitagarri artan.

Neskak, burua makurtuz, etzuen erantzun.

— Orixe da, bada, ordaindu bear didazuna.

— Eta arrebak ez al dizu kontatu?

— Galdetu diot, bai, baiña ori zure egitekoa dala esan dit.

— Orain nik zer egin nezake, eskatzen didazuna ordaintzeko?

— Len ere esan dizut ez dala diruaren lana. Ixillune ura zergatik egin zenduen garbi-garbi azaldu, zure borondatearen kontra egin zenduela bai-baidakit.

— Ez al naiz, bada, aske-askea?

— Aske-askea izan bear zendukela, egi borobilla. Baiña ez denetarako. Itz emanak giñan, Guadalupe'ko Amaren aurrean gaiñera, ta ori bete bearrekoa da. Bai-baidakit zure askatasun ori norbaitek lotu duela. Zuk etzenduen ori egingo bestela.

— Norbaitek esan al dizu ori?

— Badakit nora zoazen. Baiña nik ez det arreba salatuko. Lagun maiteak zerate eta etzaituztet berexi nai. Denaren berri bazekiela esan zidan; baiña ori garbitzea zure egitekoa zala, nai bazenduen beiñepein.

— Bai. Ori egia da. Baiña ez al naiz nere buruaren jabe?

— Ala izan baziña, etzenduen zuk ori egingo. Etzera olakoa. Baiña ni utzi nauzula-ta, ez dizut purrustadarik egingo. Ez nator zure billa. Min ematen badida-

zu ere, zuk aukeratu bear dezu nai dezuna. Beste billaukeri ori zergatik egin didazun, ori jakin nai nuke nik.

— Nik ez dizut zuri, Krispin, billaukeririk egin.

— Bai, Joxepa. Nik uste baiño maltzurragoa zera. Nere ainbeste eskutitz erantzun gabeak, eta zuk ez dakizula ezer, orrekin zenbateraiño suprituko nuen jakinta? Ori ez da, gaiñera, muzin egitea bakarrik. Iseka gaizto bat ere bada ori. Besteren maitasun ta biotzarekin jolastea ez dago ondo. Zu olakoa baziña ere, ni ez naiz ala. Pin nenbillen zurekin. Len ere esan dizut: ez nuen olakorik merezi. Zuk erantzun izan bazenio lenengoari, zer gertatzen zan esanaz, ez nuen besterik egingo. Ez nintzan orain zuregana azalduko ere. Or geratuko ziñan nai zenduenarentzat. Ez nuen, alderatzekorik ere, ainbeste suprituko. Zure garai bateko lagunaren bizkar par egin dezu. Ez nauzu aintzakotz artu. Azkenean, etxetik ikasi nuen zer gertatzen zan. Arro-aizea, alegia. Zure kantineratzen ateratako argazkia biali zidaten. Zoragarria benetan. Baiña ikusten nuen bakoitzean, tristura ematen zidan. «Berdin etzeukat nik onekin zer ikusirik» esan ta suari eman nion. Ori da, Joxepa, zuk neri egin didazuna. Ez dizut besterik eskatu. Aske-askeak geran ezkeru, zuk ala nai badezu beiñepein, bat batera ta bestea bestera joango gera. Neri egin didazun iseka orrek, asko oztu du zurekiko nere maitasuna. Aldez aurretik bat nolakoa dan jakiteak ez dio gutxi laguntzen bati bere etorkizunerako. Zuk garbi zaidazu ori. Bestela, ez dizut etxera joaten utziko.

Urduri zegoen neska. Ez beldurrak. Ezagutzen zuen arraintzalearen mazaltasuna, ta arrazoi zuela gaiñera. Izketan asi ziran ezkeru, orduantxe lenengoz begiratu zion Krispiñi arpegira, ta begiak malkoz bustiak zeuzkan.

— Arrazoi dezu ta erantzungo dizut. Baiña iñori ez kontatzekotan.

— Joxepa, emen kontatuak esaten ez naiz ariko, beritzeak miñik geiena neri emango dit-eta.

— Ez nituen nere gurasoak salatu nai. Baiña bear etzuten lekuan sartu dira. Ez didate zurekin ibiltzen utzi nai. Anaiak eta koñata oso nere aldekoak ditut. Aitak, zer eskeintzen ziguten amua bota zuen, nai zuenak irentsi: or inguruko baserri batean bazirala neska-mutillak gurekin ezkondu nai zutenak, eta aberats xamarrak gaiñera. Guk len ere bagenduela erantzun genion. Baiña amak neri eldu zidan. Oraindik ez nituela nere eskubi-deak iritxi. Aien borondatera makurtu bearko nuela. Aita otz xamar zegoen orduan. Gero ama baiño okerrago jarri da. Ori da, Krispin, neri gertatzen zaidana.

— Eta indarrean nork ezkondu erazi lezake iñor?

— Ori nik ere badakit. Baiña amak ematen dit beldurra. Gaixo dago. Eroa bezela jartzen da. Ta, ukatuko banio, eraso txarren batek galduko luke. Ez nuke nai ama-iltzaille bezela auzoak salatzea.

— Ori dena mingarria bada. Ederki ulertzen dizut. Baiña zergatik ez abisatu?

— Aukeratu didaten orrek, Txomin Potzolo du ize-na. Eun da ogei ta amar kilotik goragoko zerri kozkorrera da. Zanputza bezelakoa, baiña arpegi ederrekoa.

— Alajainkia! Negurako berogarria badezu. Ai zer nolako laguna aukeratu zizun!

— Gurasoak etsai ditut. Baiña besteak ez.

— Orduan zuen etxeko pakea joan da.

— Geroztik bai. Aberatsari jarraitu bear omen zaio, ta Potzolo aberatsa omen da. Ni arekin ezkontzeagatik, bizi geran baserria eskeintzen die gurasoei. Aiena baita. Ez da nolanaiko sarea.

— Jakiña: aiek ez baidaude zure larruan.

— Erdiz-erdi asmatu dezu.

— Ori bai dala diruarekin ezkontzea.

«— Baiña Krispin illero idazten ari zait eta asko suprituko du» esan nien. «Or konpon! —erantzun zidaten—. Etxea da lenengo. Ez badiozu idazten, laxter etsiko du». Orretxegatik ixildu nintzan.

— Ez dakit egi osoa esan dezun. Baiña itxurak ala dira. Alaba on batek gurasoak maite bear ditu. Baiña aiek ez daukate ortan zertan naasturik.

— Zoritxarrez naastu dira, bada. Zergatik diozu itxura bakarra? Egia esan dizut.

— Ez dizut ori ukatuko. Baiña zuk, aien ixillean, idatzi zenezaken, zer gertatzen zitzaizun neri abisatuz.

— Bost edo sei bider asi nintzan. Baiña ezin nuen bukatu. Barrenak etzidan laguntzen, ez zure aldetik eta ez nere aldetik. Ulertuko dezu noski. Ezin nizun berri txar ori eman. «Ur ontatik ez det edango», oraindik ezin nezake esan.

— Oraintxe dena ulertzen dizut. Ondo dago. Etzaitut geiago mindu nai. Orduan gurasoak egin dute zure ezkontza?

— Zer egingo diozu?

— Joxepa, gaizki pentsatzen dezu. Gurasoei asko zor diegu. Aolkua emateko onak dira. Baiña ez seme-alabak beartzeko. Nik nerea egingo det: il arte bear detan laguna, neronek aukeratu. Ez badet asmatzen, nere paltak izango dira eta ez diet gurasoei gorrotorik artuko.

— Onek onuzkero ala bearko du, Krispin.

— Orregatik ez naiz asarretuko. Baiña ez det uste. Gauzak ez badira okertzen, zuk lengoari jarraituko diozu. Indarrean egiten dan ezkontzak, ez du balio.

— Len ere esan dizut orrela bearko duela.

— Zuk nai badezu, bai. Zure egitekoa da. Baiña orduan zure kulpa izango da; ez gurasoena. Aixa diozu, gaiñera, ori. Orain urte batzuk ostu zidazun biotza biurtzen badidazu, or nonbait. Bestela, nola bizi bear det nik?

— Eta zu birekin eta ni batere gabe?

— Badirudizu neri adarra jotzen ari zerala, ta jolas txarra da ori.

— Gaizki epaitzen nauzu. Ez naiz orren arroa.

— Denarengatik eskerrik asko, Joxepa. Zure arazo ori ondo ulertzen det. Eskutitza irakurrita baiño lasaia-go geratu naiz. Orduan, agur. Nai dezun arte.

Eskua eman zion.

— Lengoan egon baziña, elkarrekin igoko giñan, osasuntsu etorri naizelako Guadalupe'ko Amari eskerrek ematera. Agurra biok egin baigenion. Etorritakoan, bakarrik joan bearko det. Ez dezu noski nerekin igo naiko? Baiña bai; oraindik txango asko dauzkagu elkarrekin egitekoak— esanta, txuxenean aldapak gora artu zuen.

Atzera begiratu zuen ta Joxepa pañuelo batekin begiak legortzen ari zan.

LENGO LANTEGIAN

Etzuen Krispiñek atsedetik artu nai. Eziña zan ori gaiñera beretzat. Bi urte galdu zituen, eta etzan xentimo baten jabe. Gurasoak, egun batzutarako atsedena emango ziotela. Baiña bera ezezkoan zegoen. Soldadu zegoela, etzioten etxetik gutxi lagundu, bear gorrian arkitzen zan-ta.

Joxeparen gora-beerak gogoan zebilzkien. Itxaropena ta etsipenak naasian zetozkion. Baiña bera baikorra zan. Laixter egingo zuen arekiko atzera edo aurrera, bere bizi-modua artzeko asmoan zebillen-ta.

Dana dala, etzuen egun bat ere geiago galdu nai. Bezperan nagusiari itz eman zion bezela, gosari-lege bat artu ta an azaldu zan, garaia baiño pixar bat lentxeago, bere bizi guzirako lan-tokia izango zuen ontzira.

Bere lantegi-lagunak arrera ona egin zioten. Lendik ezaguna zuten batzuk. Langille zauli ta ona zala bazekiten. Geiago ere bazeuden an, ontzietan ateratzeko agindua artu zai. Elkarrekin izketan naastu ziran.

— Kaixo, Krispin! Ongi etorria. Zer moduz Afrika alde ortan?

— Ongi arkituak. Gosea, zikiña ta kixkal bearra, ori dek Afrika'n koarteleko bizitza. Leku zeken ta elkorra dek ura. An ez dek Kantauri ontako ipar-aize arin ta ezerik arkituko. Gau ta egun berdin, beti izerditan.

— Eta ez al dituk, zerbait lasaitzeko bederen, egun batzuk jai artu bear?

— Gurasoak pozik eskeiñi zidatek ori. Baiña len ere bi urtean etzidatek gutxi lagundu, oien bizkar berriro parrandan asteko. Ontzi ontan ere langille-palta zegok; eta, maitasunez artu nauten ezkeru, ekitea dek nere egin bearra.

— Bai. Edorrek dakik ere berri ondoena.

Atera ziran, bada, itxasora. Beren ontzia etzan urrun artara ateratzen. Eguneko txangoa, joan-etorria zeukana.

Lotu zitzaion betiko bizi-moduari. Aspergarria benetan. Garaitsu batean joan ta etorri, beti lagun berak, onak edo txarrak, asarre edo adiskide, metro gutxiko lan-tokia. Artzen zuten sariarekin, konten edo errenkuraka, sareak zabaldu edo bildu, amuak itxasora bota. Irensten bazuten, tira barrura sartzeko. Askotan arraintza oparoak, besteetan urri. Itxas-aldi lasai ta ederrak, giro zoragarriak. Urrengoan itxas asarrearen mende, beren bizia arraixku gorrian. Ori dena, larunbatean ko-bratuko zituzten xox pixar batzuegatik. Ori da langille baten bizitza.

Xox pixar aiek dira legorreko atsedenean azitzen daukan fameliaren itxaropena. Patrikarako geratzen zaizkionak, bere lagun-arterako dena bear du.

Langille artean jaio zan. An lan egin eta, azkenik, aien artean mundu au bukatu. Bizitz aspergarria, maitasunak zerbait goxatzen duena.

Langille beartsu baten atsedena eriotza da. Bitartean ez dauka pakerik. Bere aurrekoak bezela, aren izena aztuko da munduan, izan ezpaltz bezela. Zenbat arraintzale etzan igaro Ondarrabia'ko kaian? Zenbaten izenak daude gogoan? Jaio, lanetik fameli bat azi, betiko izan ez balira bezela galdu. Ori da langille baten bizitza. Beti beartsu, neketan supritzen, eta sari on bat artu gabe aldegin emendik.

Batzuen izenak kondairak jaso dizkigu, gaiztoak edo onak ziralako. EUNETIK larogei ta emeretzi, izenik utzi gabe galdu zaizkigu.

Napoleonen izena or dabil aoz-ao. Zenbat milla gizonen opariak etzion fama ori eman? Aien berririk ez degu.

Geienak beren egin bearra: fameli bat azi beren neke-lanakin eta joan dira betiko. Alako bertso aiek emen ez datoz gaizki:

Baiña zenbat ez dira
ixilik biziak?
Bizi bezela gure
mundu au utziak?
Arrokeririk gabe
lanean eziak,
emen amaika esker
on irabaziak,
ixillaren mendean
or daude guziak.

Lasaitu zaite, ixil
zoazen gizona,
ez da galduko emen
egin dezun ona.
Aita on bat badegu
gure zai dagona,

bakoitzari berea
emango diona.
Geroko sari gabe
zertako da sona?

Eldu zion, bada, Krispiñek ere bere lan aspergarri orri. Ikusten zituen bere gurasoak, lanean zaartzen eta beeraka makaltzen ari zirala. Famelia azi zuten eta mundu ontako itxaropenik bai al zeukaten? Beren aurreko guziak bezela, betiko illunpean galdu. Eriotza, beren nekeen atsedena. Ez dago igesbiderik.

Orixe da beretzat ere ixpillua. Fameli bat sortuko du. Aiek ezin mantendurik urte batzuk igaro, ta agur, mundua!

Ondarrabia'ko kaiara joaten naizen bakoitzean, ol-dozpen auek datozkit, ango arraintzaleen lana, ezin-egona ta urduritasun ura ikusiz.

Zuek, nekazariak eta beste langille guziak, zuen artean nago ni ere. Izenik utzi gabe joaten geranean, lasai gaitezen, urkoari on egiñaren saria ez degula galduko, Jainkoarentzat danok bizi baigera.

Bere eginkizuna bete ta etxera sartu zan orduko, arrebak galdetu zion:

— Joxeparekin zer moduz?

— Ondo esan bearke. Denaren berri eman dit. Eskutitz bat eginta baiño askoz lasaiago geratu naiz. Baiña kosta zaio.

— Esan dizut nik. Baiña oartu naiz askoz alaiago ta iztunago zegoela gaur.

— Dirudienez, arentzat Potzolo ta bat ere ez, berdiñak dira.

— Ari laguntzera joatea lotsatu egiten da.

«TONELADA»

Krispiñek bazeukan andregaiia ebatsi zion *Tonelada* ori nolakoa zan jakiteko gogo. Larunbatean berriro Guadalupe'ko bidea artu zuen, bada. Bi urteko ordaiñak eman nai zizkion, andik osasuntsu ekarri zuelako. Ta bitartean bikotea ikusten bazuen, obe. Orain askoz alaiago zebillela esan zion arrebak.

Bazekien orduaren berri. Ta, berak nai zuen bezela, arkitu zuen neska, beste lagun jostun batekin. Baiña *Tonelada* etzan iñon ageri.

Joxeparen lagunak ezagutzen zuen Krispin. Baiña etzekien len orrekin ibiltzen zanik eta orain erdi zapuztuak zeudenik.

Beren ondotik igarotzerakoan:

— Agur, Joxepa ta laguna. Guadalupe'ra noa andregai baten billa, nai badezute etorri.

— Onera bai zu, jostun auen artera. Onuzkero norbaiti zorrotzu dizkiozu zure begiak —esan zion Joxeparen lagunak.

— Bai; baiña berriro lengoari.

Ori nor zan galdetzeko betik eman gabe, jarraitu zuen arin-arin gora.

— Afrika'tik mutil bikaiña etorri den ori —esan zuen lagunak.

— Joan zanean atsegiña unan. Etorri ere, ala egin den —erantzun zion Joxepak.

— Eta badakin lengo ori nor dan?

— Berak jakingo din.

Baiña etzioten jarraitu. Biak, Krispiñen doaiak kontatuz ezkutatu ziran.

Guadalupe'ko Amari larunbateroko bixita eginta, biurtu zan Krispin urrengora arte. Baiña *Tonelada* eza-gutzeko gogoa zeukan. Urrengoan suerte ohea izango al zuen.

Aste guzia lanean igaro ta bazijoan berriro, larunbatean, berari andregaia kendu ziona nolakoa zan ikusteko zorutzen. Erdiz-erdi asmatu zuen. Orduantxe zijoazen biak aldapa gora.

Krispin arrituta geratu zan, arekin ibiltzea nola etzan lotsatzen Joxepa. Mutil luze xamarra. Baiña arre-bak *Tonelada* deitzen bazion, berak «ur-zaldia-txutik». Aren itxura ohea artzen zion. Aren gorputzarentzat, anka aiek motxegiak ziran, eta zabalduegiak gaiñera. Besoak berdin. Buruak, berriz, bazirudien leporik gabea, sorbaldari erantsia zegoela. Aundi xamarra gorputza, ari ala tokatzen zitzaion-ta. Baiña ipurditik bururainokoa ikaragarria. Makutsik zijoan ta aren ipur-masaillak ur-zaldiarenak aiñakoak baziran.

Ixilik, bi eskuak gurutzetu ta buruari eragiñaz, arritua begira zegoela, Joxepak atzera jira zuen burua ta parrez ikusi zuen Krispin. Lotsatua noski, ixilik geratu zan.

Arin-arin beren ondotik igarotzerakoan:

— Agur, Joxepa. Orrekin trukatzan al nauzu? —
esan zion Krispiñek.

— Agur, Krispin —erantzun zion Joxepak ere, be-
netan naigabetua.

— Nor da ori? —galdetu zuen *Tonelada*'k.

— Afrika'tik etorri berria; Krispin arraintzalea.

— A, bai? Zure lengo nobioa orduan. Zer esan du
orrek? Zirika asten bazaigu, artuko ditu bereak.

— Agurtu egin gaitu. Gaiñera, Txomin, eskubide
osoa dauka orrek, bide auetan ibiltzeko. Denonak bai-
dira. Ta gu agurtzeko, berdin.

— Bai. Baiña ori berriro zure atzetik ibilliko da.

Joxepak bereala jan zuen bere izen garbia arraixku
txarrean zegoela, aurki aari-jokoren bat ikusi bearrean
zegoelako. Beldurra ematen zion *Tonelada*'k, bizirik
jango baizuen Krispin.

Au, bere ikertxoia egin ta bazetorren. Biak exerita
arkitu zituen, baiña parregarri. Biak jarrita zeuden. *To-
nelada*, ordea, atzean zeukan zugaitz batean burua ba-
bestuz eta ao zabalka zurrungan lo; ta Joxepa, nazka-
tua, bertan utzi ta aldegitoko zorutzen.

Parera baiño len, Krispiñek entzun zituen aren zu-
rrungak. Parrari eman zion.

— Ori dek zekorra! Andregaiaren ondoan ere, lo!
Agur, Joxepa! Disko polita jarri dezu —esan zion.

Neskak ezin eutsi izan zion parrari *Tonelada* esna-
tu zan. Ta, non zegoen etzekiela:

— Zer esan du orrek? —galdetu zuen.

— Gorakoan bezela: «Agur, pareja».

Gezurra zan, baiña pakearengatik.

— Gure bizkar par egin nai badu, leku txarrean dabil.

Urrengo larunbatean ere, Krispin igo zan. Baiña lore-xorta polita zeraman berekin. Arin-arin pasaeran:

— Agur, pareja! —oiu egin zien.

— Zer deabru aiz i? Gure atzetik baabil orratik! — otsoak bezela esan zion *Tonelada*'k.

— Kalma, kalma, Txomin! Atzetik banenbil, etziñuzteket pasako.

— Norentzat dituk lore oiek?

— Ire andregaiarentzat ez beiñepein.

Eta aurrera jarraitu zuen.

Guadalupe'ko Amari eskerrak eman ta bere kezkek aren oiñetan jarri ondoren, gain artatik begira zegoela, bertako serora urbildu zitzaion, arek ikusi gabe ez omen zala an iñor ere sartzen-ta.

— Gaur ere bakarrik al zatoz? —galdetu zion.

— Zergatik ez? Beta detan guzietan, Amari ikertxo bat egitera etortzen naiz ni. Gaur, gaiñera, lore-xorta bat badakart beretzat. Torizu. Zuk jakingo dezu nola jarri.

— Eskerrik asko Amaren aldetik. Pozik jarriko dizkiot. Aspaldi ontan etzaitut ikusi emen.

— Bai. Au irugarren larunbata. Afrika'n soldaduska bukatu ta etorria naiz. Geroztik iru txango egin ditut. Ortan pentsatu zenbat maite detan nik gure Amatxo.

— Zu al zera, orain bi urte, Joxepa izeneko neskatx gazte batekin, Afrika'ra zinjoazela-ta, igo ziñan ura?

— Bai, emakume, bai. Alajainkia! Ez daukazu memori makala.

— Ez da orregatik. Onera asko igotzen dira, ta emen ikusten ditut. Baiña biar goizerako aztuak dauzkat. Egun artaz ondo oroitzen naiz, ordea. Geroztik, zure lagun ori ezaguna baidet. Askotan dator onuntz, eta beti bakarrik. Zure berriak eskatzen dizkiot. Bai eman ere. Zure alde otoitz egitera etortzen dala esaten dit. Au ez da aspaldiko kontua. Eranegun ikusi nuen azkeneko. Orain, emen bakarrik zu ikustean, arrituta geratu naiz.

— Bai. Ala da. Ia urte bete ontan beste batekin dabil, ta etzuen nerekin etorri nai.

— Zu osasuntsu azaltzeagatik eskatzen ziola esan zidan-ta...

— Eta bakarrik igotzen al da?

— Len ere esan dizut. Beti garaitsu ontan. Orregatik arritu naiz, zu andik etorri ta bakarrik igotzea.

— «Orrek onuzkero ala bearko» du esanta utzi nau.

— Jesus, Jesus! Bat maite ta bestearekin ezkondu nai?

— Gurasoen lana.

— Eta badakizu nor duen lagun berri ori?

— Nere arreba Joxeparekin batera dabil josten, eta arek *Tonelada* deitzen dio. Gorakoan, neska-mutillak topo egin ditut. Baiña nik Ur-zaldia txutik esango nioke. Bere bataioko izenak Txomin izan bear du. Baiña erriak Potzolo jarri dio. Orrekin trukatu nau, bada, ni. Eun da ogei ta amar kilotik gora izango da animala ori. Aberatsa omen da gaiñera-ta...

— Txomin Potzolo diozu? Aitaren eta Semearen... Ezagutzen det ori. Ez da aragia besterik. Luze ainbat

zabal. Parregarria geratuko da Joxepa aren ondoan. Gaiñera aberatsa? Ala ziran. Baiña bat bestearen ondoren baserriak saltzen ari dira. Etxe ortan gurasoak egiten dute lana. Alaba neska polita da. Ez gizenegi gaiñera. Orri eskerrak, etxe ori aurrera aterako da. Ogei urte bete gabeak izango ditu. Semeak ez du jan ta lotarako bestetarako balio. Ez etsi oraindik, apal-apal etorriko zaizu-ta.

— Ez det aurrean bialiko. Ezagutzen baidet. Bestela, nik Potzoloren arrebari elduko diot.

— Etzenioke Joxepari adarra gaizki joko.

Beerakoan, mutilla etxera eramanta, topo egin zuen neskak, berak ala naita noski. Izketarako zegoela iru-ditu zitzaion.

— Zekorra pasiatu erazi al dezu, bada?

— Bai orixe: benetan zekorra. Kilometro bat igitzeko arnasik ez dauka. Esertzen dan lekuan, loak artzen du. Oso sinismen gutxi dauka. Zu Guadalupe'ra zoazelako, par egiten du. Ta orrekin ezkondu bear.

— Gustokoa bazaizu, zergatik ez? Nerekin trukatu ez dezu, bada?

— Ori ez da egia. Baiña zer egingo diozu? Lorexorta ura norentzat zenduen?

— Neskatx gazte polit bat badet or. Ari eskeiñi dizkiot.

— Zuk ez daukazu or olakorik. Guadalupe'ko Amari, bai.

— Bai. Ori egia da. Baiña ez uste beste ori ez detanik. Ogei bat urteko neskatx polit bat badaukat nik or begiz joa.

Serio jarri zan Joxepa.

— Jakin al nezake nor dan ori?

— Bai, neska, bai. Potzoloren arreba Beatriz. Oso neskatx dotore ta alaia da.

— Eta zuk egingo al zenduke ori?

— Zalantzik gabe. Ogei ta lau urte dauzkat. Lanean ari naiz. Etxean, nerekin, bederatzi bizi gera. Nik ere kabitxo bat egin nai nuke. Zuk muzin egin didazun ezker, norabait jo bear. Edo zer nai dezu: itxaropenik gabe, txakur bat bezela, zure atzetik ibiltzea? Uste det arrazoi detala.

Ori entzun zuenean, ondo-eza eginta bezela geratu zan Joxepa.

— Zer dezu? —galdetu zion mutillak.

— Ezer ez, Krispin. Barkatu. Uste gabeko zure ateraldi orrek moztua utzi nau.

— Badakit zure berri. Goiko serorak dena kontatu dit. Zure itxaropena daukadan arte, ez det nik egundo pauso ori emango. Baiña «onuzkero onek ola bearko du» itzetik ortzera esaten didazu, ta nik ori egitan ta serio artzen det.

— Ez naute gurasoak naaspil txarrean sartu. Nere ta gure etxearen izen ona ari da galtzen. «Mutil guzia-kin omen dabil neska ori» entzun diot bati baiño geiagori.

Eta malkoak asi zitzaizkion.

— Naigabe ematen didazu. Nik badakit ez dala olakorik. Alare, zuk nai bazendu, denen gaiñetik garaile aterako ziñake. Zure asmoak nolakoak diran ez dakit. Illunpean zabilta, baiña etzera umea. Nere berri, berri, badakizu. Esan dizudan ori egingo det. Ementxe exeri ta itz-jario bat pozik egingo nuke zurekin. Baiña... agur, Joxepa.

— Baiña... tristea da ori. Agur, agur, Krispin.

ETXEKO IXKANBILLAK

Joxeparen gurasoak asarre zeuden. Baietza eman zuen, baiña eman ez balu bezela. Iñaxiok-eta egindako eskeñia aitak etxean adierazi zuela, urte ta erdi igarota zan. Bitartean aurrerapenak izan baziran ere, ez gurasoak nai aiñakoak.

Joan Joxe, anai zaarrena, ezkondu zan, maiorazkoa bezela, etxera, aitaren eskeñiari muzin egin ta gero.

Bigarrena, soldadu joana. Etzeukaten eskeñi ori jasoko zuen itxaropenik.

Baiña Joxepa or zegoen, baietza emanta gaiñera. Gurasoen iritzian askea zan. Baiña bazekiten biotza ondo betea zeukala.

Len ama zan itxua, amorragarria. Aren beldurrak bazirudien amor eman zuela. Baiña berak jakingo zuen zergatik eta zenbateraiño irixten zan ori. Zearo aztua edo alatsu zeukan noski.

Orain, berriz, aita jarri zitzaion okerrago, benetan egoskor. Potzoloren gurasoak eta bere emazteak zirikatzen baizuten.

Alaba, txango ori emateko len otz bazegoen, orain etzegoen beroagoa. Krispin etorri ezker, tristurak bota ta bizi-berritu zan. Mutilla ikusi ta arekin itzegiteko egokiera guziak billatzen zituen, naiz berari gero itxuraz ezezkoa eman.

Ori ondo zekien Joxe Marik, bere aitak, eta bere biotzeko ixillean arrazoi ematen zion. Txomin Potzolo ez bezelako laguna zuen Krispin.

Buru-auste gogorra zan ori beretzat. Ezin irentsi zuen. Baiña konpontzen bai zailla. Bai-baizekien alabari kalte egingo ziola. Bere maitasuna galdu ta etxeko pakea ere bai. Zirikatzaileak etzioten, ordea, uzten. Baserria emango zietela ere, etzan auntzaren gaberdiko eztula.

Sumindua zebillen, bada, denen aurka. Batez ere bere alaba ta Krispin zeuzkan begitan artuak. Baiña onek etzeukan kulpik. Berarekin sartzeko eskubiderik ere ez. Orregatik, ori aztutzeko, aringarriztat, edanari ematen zion.

Krispin ta Joxepa elkarrekin izketan somatu zitue-nean, amorru biziak artu zuen.

— Oiek berriro batera zebiltzak.

Biei asma-alak esateko egokiera billa zebillen. Lenngo, alabari, aren kulpa bazekien-ta. Ura bere mendeko bat zuela.

Emazteak geiena zirikatzen zuen, ta amorragarriena bera zan.

— Zertan gera, Joxe Mari? —zion askotan emazte elbarriak—. Urte ta erdi joan dira, ta emen ez da ezeren aldaketarik. Gure agindua uskeritzat artzen dute. Biguiñegiak gera gu oiekin. Seme-alabak par egiten digute.

— Arranetan! Zu ere bazaitugu batxo! Ori da botatzea! Itxua al zaude?

Ez baizion onik egiten emaztearen erasoak.

— Sei urteko umeak al dira, oiekin makilka asteko?

Milla bider damutu zitzaion eskeñiaren berri emana.

— Zaarrena ezkondu ta urrearekin ordaindu ezin liteken erraiña ekarri digu. Semetxo bat ere bai, etxeko etorkizunari bidea zabalduz. Eskeñitako Beatriz ez bezelakoa da au, Kontxexi. Ura ere oso aldrebesa ez baiña.

— Ortan arrazoi ematen dizut. Baiña Joxeparen arazo ori nola dijoa?

— Asi giñanean baiño askoz okerrago, Krispin anka-luze ori etorri da-ta. Joxepak, Txomiñekin baldin badabil ere, biotzean bestea dauka.

— Baiña urte ta erdi ortan ez al zeukaten ortarako astirik?

— Bai. Ez dizut ukatuko, Kontxexi. Baiña nik gure alaba aingeru au asko maite det, eta beldur naiz ez ote diogun kalte ikaragarria egingo. Or daukazu seme zaarrenaren ejemploa. Joxepak maite duen mutillak, arek alako amar balio du; ta ez da ain umea bere biotzari askatasun ori ukatzeko.

— Zuk ateratzen dizkiguzu eltzetik babak. Orri orrela uztezkeroz, lekutan dago gurasoen agintea. Ez du gure bizkar parra gaizki egingo. Arazo orrek berri-tu bear du, Joxe Mari.

— Nik ere badaukat atzera edo aurrera egiteko go-goa. Nazkatu bainauzute zuk eta aiek. Ikusten zaituztedan guzietan, orixe arpegira botatzen didazute.

— Ez al zuen, bada, itz eman?

— Badakit. Nola edo ala, baiña beartua. Ez degu ezer iritxiko. Gazteak bat egingo dute gure aurka. Oien gurekiko maitasuna gero ta otzago. Erdiko leizea aunditzen dijoa, eta Joxepa berean geratuko da.

— Jakiña, ez badegu beartzen.

— Guardia zibillen erdian ezin eramango degu, bada, ezkontzera.

Biziro asarre zegoen gure Joxe Mari; ta, apaltzera bildu ziranean, gurasoak berritu zuten aspaldian ixilik zeukaten arazo beldurgarri ori.

Beti bezela, iru ta bi geratuko ziran etxean; eta, soldadu zegoena sartu ezker, lau ta bi. Gazteak, gurasoen geiegi agindu-naietik babesteko, batuak zeuden; eta aien aurka zaarren eziña.

Bere abots sarkor artan, amak sutu zuen eztabaida:

— Aizan, Joxepa: zertan gaitun? Txomiñekin ezkontzeko asmoak non ditun?

— Ia illunabarrero berarekin nabil. Eun da ogei ta amar kilotik pasatzen da. Kilometro bat baiño len, arnaska exeri bear izaten du. Ni aldamenean aspertua, ta ura zurrungan lo. Geronekoan, Guadalupe'tik zetorren Krispiñek, zurrungan nabaitu zuenean, ala esan zidan: «Joxepa, disko polita jarri dezu».

Gazteak parrari eman zioten.

— Izketan, berriz, bai ta ez. Ortik ez da aterako. Arek neri lagundu bearrean, nik laguntzen diot ari. Orrekin ezkontzea nai al zenduteke? Kalbario ori eman nai al diozute alabari?

— Baietz esan ez unan, bada?

— Bai. Ia itoan jartzen badute, edozer astakeri esango du batek. Baiña ez det uste beartua dagoenik.

— Aitzaki orrekin al atorren orain?

— Aske-askean ematen dan itzak balio du. Baiña indarrean atera eraziak ez. Ori, gaiñera, ez da nere egitekoa.

— Norena den, bada: gurea?

— Ala uste badezute ere, zuena ta gutxiago.

— Esan zan bein garbi noren egitekoa dan ori.

— Mutillarena bakarrik, eta ez beste iñorena.

— I ez baaiz arengana joaten, nola konponduko zerate?

— Len ere esan dizut egunero elkarrekin gabiltzala.

— Eta guk egiten badegu?

— Orduan ta gutxiago. Uko egingo nizuteke.

— Lotsagabea aleena! Ori al den arrazoia?

— Orixe bakar-bakarra, ta ez dago besterik.

Aita, alaba Txomiñekin ezkontzearen alde zegoen. Baiña ez indarrean. Amaren arrazoi eta naiak etzitzaizkion zuzen iruditzen, eta ixilik geratu zan. Ez, ordea, Joan Joxe ta erraiña.

— Joxepak ematen dituen arrazoiak, indar aundia daukate. Nik billatu nuen emaztea. Aitak ere bai zu. Ta Joxepak zertarako aurreratu bear du bere laguna billatzera, gaiñera berak maite ez duena? Neska bati itzegiteko ez bada gauza, etxe-txuloan mutil zaar bizitzeko ohea izango da.

— Salta al zerate orain ere gurasoen aurka? —zian aitak sumindua.

— Ori ez da egia. Alabaren eskubideen alde atera gera gu, ta ez gurasoen aurka.

— Amaika badituk, bestela mutil zaar ta neska zaar geratuko ziranak, gurasoak laguna billatuta ezkonduak.

— Alakoak izango ziran berak. Joxepak badauka, Ondarrabia'n dan mutillik dotoreenetakoa gaiñera, ta bakarra aski du.

— Oraindik gurasoen mende zegok ori.

— Ipui oiek bukatu ziran betiko, Jaunari eskerrak. Ogei ta bat urteko alabak askatasun geiago bear du. Txala al da, bada, diruaren truke saltzeko? Il arte berekin bizi bear duen laguna aukeratzeko, soil-soillik alabaren eskubidea da, ta ez gurasoena.

— Badirudik etxeko nagusi egin aizela —karraxi egin zuen amak.

— Utziozu arazo orri pakean. Aria baiño txuxenago jarri digute etxeko martxa —erantzun zion aitak.

— Ori da arrazoia. Gu ez gera nagusi. Zuen seme-alabak bai, eta oiñordeko ere. Ez eskubideak gurasoei kentzeko asmoan. Zuek joatean, gure bizkar geratuko da etxe ontako etorkizuna. Emazteak or dauka landarea. Baiña ez genduke anai-arrebak, erdi asarre bizi nai. Orretxegatik, aita, zaindu nai ditugu Joxeparen eskubideak.

— Asarretu? Etxekit zergatik.

— Egin zagun kontu Joxepa, orrekin ezkondu erazita, inpernu batean sartzen degula. Ni asarretuko nintzake, ta Joxepak ere bere arraixkuak izango lituzke.

— Alaba zoritxarreko? Etxekit zergatik. Diru-puska bat izango ditek beiñepein.

— Etxean ez bada maitasunik, dirua otza da. Aberats guziak zorionekoak dirala uste al dezu? Orko aberastasunak ere zalantzan jartzen ditut. Bati baiño geia-gori entzun diet, lau urte auetan lau baserri saldu dituztela. Zertarako, diru-aukera badaukate? Oiek gizon bat bear dute. Badaukate emakumea.

— Itxurak ez dituk, bada, alakoak.

— «Urrundik, intxaurrekin amabi; bertara joan ta bi» esan oi da. Itxuran ez geiegi sinistu. Geroko negarrak alperrik dira.

— Ez gaituk irekin ari. Joxeparekin dizkiagu kontuak. Ik zer ikusi daukak? — asarre esan zion amak.

— Nik Joan Joxe-ta dauzkat babesle. Oien iritziakin oso bat nator.

— Gurasoak baiño len al ditun oiek?

— Oien iritziak naiago ditut, gurasoenak baiño. Txomiñentzat ez da pasiatu beste atsegiñik. Neri, garbi esan, nazka ematen dit.

— Beste anka-luze orrekin maiz abil, bada. Atzo berarekin ikusi iñudan.

— Ondo ezagutu ta maite detalako, atsegin zait neri ori. Ta balio duena da. Alare, ez naiz ni orren atzetik joan. Bera bakarrik dabil. Atzo ala esan zidan berak: nere itxaropenik ez bazeukan, Potzoloren arrebarekin ezkonduko zala, neskatxa dotorea dala-ta. Ori or sartzen bada, Txomin ta ni bagoazke norabait. Atera zazu orduan bizi-modua.

— Ez degu ezertxo ere aurreratu — zion amak.

— Atzeratu bai puska bat — erantzun zion aitak.

Alai asitako aparria goibel bukatu zan. Aitak, dena utzita, tabernara aldegin zuen, ardoarekin bere naigabeak arintzeko. Semea, berriz, atarira. Erraiñak egingo zituen sukaldeko garbiketak. Joxepak, berriz, ama elbarria oieratuko zuen.

SESIOA

Naigabetua geratu zan aita. Alabak etzeukan gurasoen borondatera makurtzeko gogorik, eta bere baitan arrazoi ematen zion. Aizun-aizun, bestela mintzatuko zan. Berak ere etzeukan, arazo ortaz geiago etxean arkin itzegiteko asmorik. Gazteak gizaldi berri ontan sartzen ari ziran. Berak, berriz, lengo zaarrari itsatsiak. Baiña baserriak min ematen zion.

Munduko bizi-era guzietara aurrerapenak zetozen, ez noski denak zuzenak, eta zetorren martxari utzi bearra zegoen. Etzuen, bada, geiago fameliko elkar-salatze ori ikusi nai, beti gurasoak ateratzen ziran galduan-ta.

Baiña bazeukan Krispin anka-luze ari bereak eta bi esateko gogoia. Ori etzan fameliko giroan sartuko. Orregatik, mutilla arrapatu nai zuen. Ari benetan erasotzeko asmoak zituen, bere etxe-ingurutik atzera erazteko. Mutilla ere, ordea, etzan umea. Zer erantzunaren paltik etzuen arkituko.

Oso zailla zan, gaiñera, lau urteko elkar-maitasun ori asarre-aldi batean bukatzea. Alabak jarraitzen ba-

zion, besteak etzuen atzera egingo. Beraz, aren borondatea bear zan, ta ura Krispiñekin zegoen. Alperrik edo ez, alare entzun bear zituen.

Irun'dik zetorren batean, Krispin lagun batzuekin Ondarrabi'ko taberna txiki batean arkitu zuen, pake-pakean elkar-izketan.

Askotan neurritik ateratzen zana gure Joxe Mari. Orduan ere ala zegoen: zurrut,geiegiak gaiztotua, ajo-la gabe jarria, lotsa galdua, edozeiñi erasotzeko ausarditsu. Batzuei, edanak jolaserako gogoa ematen die. Beste askori, berriz, okasiorako. Olakoxea zan, bada, gure Joxe Mari: edan gaiztokoa.

Sartu zaneko, Krispiñek argi-argi agurtu zuen:

— Kaixo, Joxe Mari. Zer artu nai zenduke?

— Ik emanta ezer ez —erantzun zion.

— Nere eskeiñi goxoari emateko, arrazoi motza da, orratik, ori, mutillak!

— Iri emateko ez dek geiegi.

— Umore txarreko zaude. Torizu baso-erdi au.

— Len ere esan dit: ik emanta, ezer ez.

Baso-erdia artu zuen ta berari tira zion arpegira. Baiña etzuen arrapatu. Atzean zeukana bai, ordea.

— Zer ari zera? Gu ere berotu giñezke gero, Joxe Mari!

— Barkatu, barkatu. Nik orri tira ziot.

— Baiña ni arrapatu. Jende artean ez da olakorik egiten.

— Edenez betea bazegoen ere ez nekiken, ta nik bota egin dit.

— Ori neregatik esaten al dezu? —eraso zion tabernariak—. Emen ez da gero edenik saltzen. Baso-erdi ori nik atera det; ez orrek. Oraindik etzuen zuk bestek ikuitu ori.

— Irekin ez dit ezertxo ere. Onekin dizkit kontuak.

— Etsai gogorrarekin asi aiz, Joxe Mari —zion norbaitek.

— Ni ez natorrek aari-jokora.

— Etzekit, bada, ematen dizkioken arrazoiakin, ez ote dekan geiegi berotuko.

— Orren billa dabillela uste det. Berak jakingo du zergatik. Ni, berriz, paketsua naiz. Ez badidate erasozten, ni ez naiz asiko.

— Ori ere, ik asmatzeko, etzegok gaizki.

— Asarre al zatoz? Asarre ta emen gurekin ustu nai —esan zion batek.

— Ik ez daukak gure arazoetan zertan naasturik.

— Zu sartzen zera, bada, Krispiñekin. Maitasunez baso-erdi bat eskeñita, sube gorria bezela biurrituz, arpegira tira, alajainkia! Obe dezu neri ez didazun egin.

— Zuek utzi zaidazute pakean. Mutil astakillo orrekin dizkit kontuak.

Krispin ordura arte ixilik zegoen. Besteak ari zitzaizkion zirika. Baiña antz eman zion okasio billa zebillela; ta, bero-bero egiten bazuen, alabari salatuko ziola bere maiteak nola tratatu zuen. Etzeukan aiton mozkor ari ezer txarrik egiteko asmorik. Baiña bein lertu ta esan nai zuena jaulki zezan, zergatik ziran aren errenkurak jakiteko, eskua luzatu ta ala esan zion maitasunez:

— Joxe Mari, betegia zaude ta etxeraiño lagunduko dizut.

— Ik, ijito orrek? Arraintzale urdea! Badakik, bai, nori lagundu. Orain ere, ura ikusteagatik, joango intzake. Ez adilla bide auetan azaldu.

— Aizu! —oiu egin zuten askok—. Gu ere arraintzaleak gera. Zer dezu gure aurka?

Krispiñek ere, patxaran, ala erantzun zion:

— Oraintxe bai bapo uzten nauzula. Nere larunbateko oitura Guadalupe'ra joatea, Ama Birjiñari andregai bat eskatzera; ta bidea galerazi. Aginte oiek nork eman dizkizu, nik ura erriarena zala uste nuen-ta?

— Oa, nai dekanean, bide oietatik. Baiña ez adilla gure atarian sartu. Bestela, egunen batean igerriko diok.

— Zemaika ere asten al zera? Nik an laguntzaille onak badauzkat gero.

— Zoritxarrez, egia diok, bai. Nere borondatera baiño, naiago ditek beste aldetik joan. Ez dituk esanaren paltan baiña.

Tabernakoak zai zeuden Joxe Mariren asarreak zertatik zetozen jakiteko. Bi edo iru baziran an gaiñera, auzi txar bat ezkeru zapuztuta zeuzkanak. Baiña etzuen esaten. Krispiñek, ordea, ondo zekien.

— Noiz ikusi nauzu ni zuen atarian? Oraindik ez det an ankik sartu. Ta nai detana iristeko, ez det jarri bearrik. Txoria bidean ere arrapatu nezake, ara ateratzen baizait —erantzun zion mutillak, Joxe Mariren zemaiairen ajolik gabe.

— Obe dek. Bestela, nik itxiko dit txori ori, ik bilatuko ez dekan lekuan.

— Izugarriak esaten ari zera, Joxe Mari. Konbentuan itxi bear al dezu? Aundiegia da ta begiak ondo zabalduak dauzkana, zuk nai dezun bezela ibiltzeko. Erritarren begi guzietatik sartu da txori eder ori. Ez

dezu kaiolan edukiko. Ortarako al dira bere edertasunak? Baiña andik ere iges egingo dizu. Izango baitu leioa zabalduko dion esku errukitsuren bat.

— I zertan naasten aiz gure arazoetan?

— Ori ez da egia. Nerekin daukat naiko lan, beste famelietako gora-beeretan naastu gabe.

— Nik txori ori beste bati eskeiñia zeukat.

— Ori al zan guzia? —zion tabernako jendeak—. Gurasoen gonapetik atera ta bere buruaren jabe izateko moduko neska dek ura. Kantinera izan zan ezkeroko denok ondo ezagutzen diagu.

— Txala ote da alaba, orrela tratua egiteko —zion batek.

— I ez al aiz arakiña? —zion besteak.

— Bai. Ortatik bizi gaituk.

— Eskeiñi ohea egiten badiok, txala eder ori iretzat izango dek.

— Lengoak ere naiko lanak ematen zizkidak.

Sumindu zan aita, jendeak ziona entzunda. Denak parregarri artu baizuten.

— Zuek nai dezutena esan. Baiña etzegok inguru ontan alako neskik.

— Itxituran edukitzezkeroz, zertarako dek?

— Erosi duen zorioneko mutil ori nor dek, bada?

— Ezkurra zeukak arek; ezkurra ugari.

— Ezkurra txerriak jaten ditek; ez txalak.

— Eta diru zikin orrengatik saltzen al dek olako alaba, maite ez duen arakin baten eskuetara?

— Baiña au, alare, atzetik zebillek.

— Ez dizut ezetzik esango. Baiña bai bera ere nere-tik, eta batere dirurik gabe. Eragozpen guziak jartzen dizkiozu. Ez dakit ordaindu dizuten txalarekin egindako tratua. Baiña nagusiarengana joateko gogo aundirik ez dabilki. Egokiera duenean, neregana dator. Ni ere, zer esanik ez, arengana. Ain da, nere begietarako, gozo ta ederra. Maitasunaren lanak.

— Arek bete dezala gurasoen agindua. Ik ez daukak arekin zer ikusirik.

— Joxe Mari, ez dakit arekin zer ikusirik daukadan edo ez. Zuk bai ez daukazula nerekin. Agindu alabari, baiña ez neri. Ni aske-askea naiz. Nai detanean, joango naiz aldapa oietan gora; ta, bidean zure alabarekin topo egiten badet, nik pozik artuko det. Arpegian igartzten baidiot, ni ikustean atsegiñez begiratzen didala.

— Bazekit, gaiñera, nik alabari galerazten diodalako, ni galdu nairik abillela.

— Aizu, Joxe Mari: mesedez zaude ixilik. Ez esan olako astakeririk. Burua galdua daukazu ta ez dakizu zer esaten dezun ere. Baten maitasuna galtzeko, ez da gurasoak jotzea bezelakorik.

— Neri ori esan zidanak, bazekik zerbait.

— Ori ez dizu zuri iñork esan. Zure asmakizun bat besterik ez da.

— Ik ez dek pausorik eman nere alde. Bestela, pakean utziko ioke nere alabari.

— Nik gauz bat galdetu orduko, zu beste bidetik zoaz. Zuk bat aukeratu badiozu ere, arek bestea dauka, ordea, beretzat.

— Ik utziok pakean, ta obeto aterako aiz.

— Ni ez nabil zu galtzeko asmoan. Bitartean, zemaia ugari.

— Joxe Mari, esaiguzu nor dan zure alabaren senargai ori.

— Laxter ikasiko dezute.

— Ik bai al dakik, Krispin?

— Bai. Bazekit. Goikoa dek. Emen ez dek ezaguna.

— Nik bazekit zer egiten detan —zion berriro Joxe Marik.

— Ura utzi ta Krispiñengana etortzen danean, bai alabak ere.

Krispin aitaren itxumenarekin etzan batere arritzen, baserria zeukan eskeñia-ta. Eskua luzatu zion, baiña Joxe Marik etzion artu nai izan. Mutillaren adar-jotzeak sumindu zuen.

— Agur, orduan. Bide-bazterren batean or itxogingo dizut, arrapatu ta iltzeko.

— Irekin ez niñuke batere piatuko.

— Beldurrak bazaude, lagunduko dizut.

— Oa nai badek, eta utzidak pakean.

— Krispin, esaiguk nor dan Joxeparen erostuna.

— Iñor ez. Bai al zegok ura erosteko ainbat diru?

Orduantxe sartu ziran tabernan, biak batera, Txomin Potzolo ta Joxepa.

— Or dituzute biak —esan zuen Krispiñek.

Arrituta, denak batera begiratu zuten. Bai mutillak ere, zeraman arraintzale-txamarra erantzi ta aulkian utzi, «Au dena preparatua zegok» esanaz.

BURRUKA

Tabernako guziak ase zituzten neska-mutil aietan beren begiak, eta norbaitek ala esan zuen:

— Oraindik olakorik!...

— Meta-ziria ta meta ziruditek -artu zuen erantzuna.

— Oiek biak elkartzeko etzegok eskubiderik — irugarren batek.

Ez dakit Potzolak ulertzen zuen. Buru artan etzegoen noski argitasun aundirik.

Iñori sarreran agurrik egin gabe, txuxenean aurrera joanta, kopaxka bat koñaka eskatu zuen. Baiña neska-arentzat ezer ez.

— Dirua izango dek, baiña maitasun gutxi — zion tartetik norbaitek.

Bitartean, Krispiñek Joxepari ala esan zion:

— Miñik artu ez dezazun, obe dezu barrurago sartu. Emen aari-jokoa dator. Au dena, zu inozente baza-

toz ere, zure aita ta Potzolak preparatua daukate. Aurreki zezenak bezela erasoko dit.

Etzion itzik trukatu, baiña bai ondo ulertu, Krispin txamarra aulkian uzten ikusi zuenean. Txomiñek baiño argiagoko burua zeukan neskak.

Denak arrituta idixko ari begiratzen ziotelako, Potzolak asarretu xamarra:

— Ez al dezute egundo gizonik ikusi?

— I bezelakorik ez beiñepein —artu zuen erantzuna.

Ezagun zuen etzegoela gizartean oitua. Etzekiela lagun arteko martxa, eta neska nola tratatu ain gutxi.

Adar-jotzaille asko zegoen an. Laxter galdezka eraso zioten:

— I al aiz Txomin Potzolo? —galdetu zion norbaitek.

— Bai. Txomin ori ni nauk.

— Eta zenbatean erosi dek andregai eder ori?

— Nik ez dit iñor erosi. Gurasoak neri eman zidatek, eta nik artu.

— Berak nai badu, eraman ezakek. Nik dakidanez, urte ta erdi auetan eskeiña zegok. Baiña oso gutxitan zebiliek irekin.

— I nor aiz, gauz oien berri jakiteko?

— Or zegok bere aita. Ez dik esan zaarra.

— Bai; esan dit. Baiña ire orrenganako bidea mozteko.

— Nor aiz orduan i?

— Bein baiño geiagotan topo egin diagu bide oietan: Krispin arraintzalea.

— Krispin? I aiz orduan, ni zurrungan lotan somatuta, ondoan neukan Joxepari, «disko ederra jarri dezu» esan ziona?

Parrari eman zion jendeak, eta sutzen ari zan Potzolo.

— I abil orduan nere andregaiaren atzetik?

— Biok gabiltzak bata bestearen atzetik. Bost urteko elkar-maitasuna ez dek orren errex aztutzen.

Joxepa damutu zan ara sartua. Daldaraka zegoen. Ikusten baizuen zer zetorren. Krispiñek esan ziona egia, ta beragatik muturrak autsi arte erasoko ziotela. Jendea ere beldurrak zegoen. Joxepak bezela pentsatzen zuen: Potzok eltzen bazion, laxter egingo zituela aren lanak.

— Ik utziok onñ pakean, nerea dek eta. Odolkia i!

— I ez ago gizartean oitua. Ukullotik lenengo aldiz ateratzen dan zezen oietakoa dirudik. Emen dena estrañoa dek iretzat. Uraxe bezela sartu aiz emen, geundenok agurtu ere gabe. Edoorren buruari eman diok zer-bait. Onera supritzera ekarri dekan neskari, ez diok ezer eskeñi. Itzetik ortzera iseka besterik ez dabilkik. Ni odolkia banaiz, ai zer mondongoa i!

— Zer esan dek?

— Ni odolkia banaiz, i mondongoa aizela.

— Odolkia ezik, txitxarea ere baaiz i. Ez ipurdi, ez tripa.

— Eskerrik asko. Aragi geiegiaren zale ez nauk. Baiña naiago nitek i bezelako zerri kozkor bat bageneuka San Martiñetan iltzeko. Gu ere, beti arrai jaten, asper-tuxeak bizi gaituk-eta.

— Zer: burrukarako gogoa al daukak?

— Nik etzeukat burrukarako gogorik. Ortatik beti ondoren txarrak zetozek. Ni oso pake-zalea nauk. Baiña gaizki itzegiten didanari, bere abotsean erantzuteko griña bai; eta aari-jokorako asmoan datorrenari, gogor egiteko ere prest.

— Ni ez nauk okasio jartzera etorri.

— Itxurak ez dituk alakoak. Gaiñera, aldez aurretik moldatua daukazute. Orregatik, Joxepa ere ekarri dezute onera, ni txikituko naukela ta onek atzera egingo duelakoan. Ni ez niotek iñoren arrokeriak izutzen. Etzakela begi luzeegia eduki. Bada ez bada adierazten dit ori.

— Ni ere tartean sartzen nauk orduan? —asarre eraso zion aitak.

— Ez dezu esan zaarra, aurki Txomin emen ikusiko degula.

— Ik utziok Joxepari pakean eta kito. Obeto aterako aiz-ta.

— Agurrik esan gabe sartu aiz. Geroztik ez dek itz bat zuzenik esan. Iseka ta zemaia besterik ez dabilkik. Zeren billa abil?

— Ik utziok oni, ta ez dek ezer gertatuko.

— Nik ez dit au ez iregatik ta ez bere gurasoengatik lagako, berak ez banau uzten. Baiña bazekit maite nauela, eta nik ere maite dit. Zer geiago jakin nai dek?

Itz auek entzun zituenean, armario aundi bat gaiñera eroriko balitzaio bezela, «Cristo-Dios!» oiu egin-ta, uste gabe eun da ogei ta amar kilotik goragoko zama jauzi zitzaion Krispiñi gaiñera, ta lurrera bota zuen. Baiña ez azpian artu. Lurrean zegoela ta eltzera zijoala, Krispiñek bi oiñakin jo zuen indarrez gure Potzolo.

Au bere zamak menderatu zuen, ta atzeka-atzeka, sal-maia jota, ia erori zan ortzaz gora. Baiña eman zion dardarrarekin, ango baso guziak erori ta ardoak ixuri ziran. Naiko beldurra sartu zion.

— Aizak: ik ordaindu bear dek au dena.

— Arek bultza zidak.

— Baiña ik sortu dek burruka.

— Motell, orrenbeste diru badiagu.

Krispin, berriz, jauzi batean zutitu zan.

Berriro indarrean joan zan gaiñera. Arraintzalea baztertuz, muturka aurrera egin zuen Potzolok. Baiña bai berriro eraso ere. Plazan dabillen zezena bezela, itxutua zegoen. Baiña oraingoan Joxe Marik billaukeria egin zion: bere oiña Krispiñenean trabatu, ta ortzaz gora erori zan. Armarioa ere bai gaiñera. Azpitik ala zion:

— Billaukeri gaiztoa egin didazu, Joxe Mari.

Tabernako jendea ere sutu zan:

— Aren kontra zertan sartzen aiz i? Utziek bie pa-kean. Naiko al uke guk orain azpikoa gaiñera ateratzea?

Billaukeri auk guziak ikusten zituen Joxepak, baiña ixilik zegoen.

Potzolok bentaja zeraman: berrogei kilo geiago. Zama erori zitzaion. Burruka ari ziran. Ez al zan noski joka asiko. Bestela, berak ere artuko zuen. Tabernakoak ikusi nai zuten burruka ori.

Krispin luzea ta ezur aundikoa zan. Baiña giar utsa. Lanean zaildua ta iraupen aundikoa. Indartsua. Bes-teak berrogei kiloren aldea kenduko zion. Baiña aragi utsa, belaska, lan gogorretan zaildu gabea.

Garbitu zuten barrua ta erdian artu zituzten. Krispiñek bereala antza eman zion, Potzolo nekatzen etzan

artean, etzuela menderatuko. Ainbesterako bazeukan indarra, motel xamarra baiño. Bere eraso guziak, bada, ortara zijoazen: ura nekatu araztera.

An zebiltzan biak arrastaka, baiña beti Potzolo gainean. Etzion unetxo batean ere azpikoak pakean uzten. Uste gabeko eragin biziak egiten zizkion, askotan ia buelta emateraiño. Bestea, berriz, indarrean ezin eutsi. Begira zeudenak, baziran apustu egin nai zutenak.

— Potzolak menderatu baietz!

Baiña geienak ezetz zioten. Burruka luzatzen zijoan. Ori zan azpikoaren jokoa. Gaiñekoa, berriz, asi zan arnaska.

— Obeditzen al dek? —esan zion, itzak ezin garbituz.

— Ez uke gutxi nai, oraindik ez gaituk asi-ta. Nekatu egin al aiz? Laixter artuko dek nere lekua.

Bitartean, an zebiltzan arrastaka, beti Potzolo gainean. Polliki-polliki eraman zuen azpikoak orma-baztarrera, an bere oiñak babesteko. Orduan eragin bizi bat egin zuen, Potzolo gora jasoz. Atera zan azpitik eta Krispin jarri zitzaion gainean. Gure Potzolo etzan ezer-tarako gauza. Ler egiña zegoen.

— Asterako esan dit, Txomin, begi luzeegia ez edukitzeko, besteak ere amaren semeak dituk-eta.

— Utzi nazak pakean.

— Astakeri au egin badegu ere, ez dituk nere kulpak.

Krispin zutitu zan, pixar bat atzeratuz. Baita Potzolo ere. Baiña oraindik berearekin zegoen.

— Ik Joxepari pakean utziok.

— Berak nai badu, bai. Bestela, ez. Aixa nai uke, bost urtean gu ibilli geran bezela ibillita.

Ori entzun zuenean, berriro eraso zion. Arraintzaleak, berriz, etzeukan arrastaka ibiltzeko gogorik eta eman egin zion.

Txomiñek, zekarren abiaduraz gaiñera bestearen indarrak bat eginta, sekulako zanpetakoa artu zuen. Begiak erdi zurituak, zerraldo erori zan. Baiña ez lurrera. Atzean zeukan aulki batera exeritzera. Norbaitek esan ere bai:

— Argazki bat ateratzeko ez ago gaizki.

Denak zioten erabat, iraupena gaillendu zala. Ustez bere suia izango zuena ala ikusirik, sumindu zan Joxe Mari; ta, aulkia artuta, burutik beera jo zuen Krispin.

Etzuen korderik galdu. Baiña naiko lanak bazituen. Maiaren gaiñean besoak babestuz geratu zan, zorabiotua. Beste bat ematera zijoan. Baiña arraintzaleak berak kendu zion eskutik. Ori ikusi zuenean, Potzolo ere gaiñera zetorkion. Baiña lenengo begiondokoa bezin piña artu zuen bestea, ta balantzaka exeri egin zan.

Noizbait lasaitu zan Krispin, ta odola zerion. Joxe Marirengana bueltatuz eta bere zauria erakutsiz, ala esan zion:

— Ikusten al dezu zauri au? Esaidazu ea ezer txarrik egin dizudan, nere buruan ebaki au egiteko. Nai dituzunak esan dizkidazu. Nik erantzun txar bat ez dizut eman. Ori jo detalako naigabetu bazera, ez neukan beste erten-biderik. Or ere billaukeria egin didazu, anka trabatuz. Zauri au sendatuko da. Baiña betiko aztarrenak geratuko zaizkit buruan. Obe dezu neri egin didazun. Beste norbait izan balitz nere lekuan, artuko zenituan ordaiñak, bere interes ta guzi.

— Utziok nere alabari, ta pakea.

— Len ere esan dizut agintzeko orri, ta ez neri.

— Odola zirriotan doakik, motell, ta lotuko diagu —tabernariak.

— Iñork bai al du emen ixpillurik?

Bazekien Joxepak bazuela. Baiña etzuen atera. Berak jakingo zuen zergatik. Tabernariaren emaztea etorri zan, ta arek utzi zion.

— Ez didazu nolanaikoa egin. Ez da sakona, baiña bai luzea. Amar bat puntu bear ditut gutxieneke, ori ixteko.

Espiritu pixka batekin erre zion, gero ondo lotu, ta txuxenean etxera joan zan. Bere arreba gaixo-zai ikasia zuen, ta arekin zauri-etxera joateko asmoak artu zituen.

Baiña tabernan denak Krispiñi arrazoi eman zioten.

— Pake-pakean ari giñanak, iskanbil au sortu dezute, bada!

— Nere esana egin dezala, ta kito.

— Alabarekin ezin badek, nor aiz i besteren semeari agintzeko? Egun batzutan ez dek emen polizi-paltik izango. Mutil jatorra dek eta ez dik noski salatuko.

JOXE MARI

Krispin atera ta andik ordu erdi inguru, begi-ondoa ugelduarekin, beste baso-erdi bat edan ta egindako kaltea ordainduz, sartu bezela, iñor agurtu gabe, artza baiño amorratuagoa atera zan andik Txomin. Begia luze, etzuen uste arraintzale txitxare arek ainbeste indar zeukanik.

Joxepa, berriz, baraurik, ez baitzion ezer ere eskeiñi, erdi zorabiotua, lotsatua, ikusi zuenarekin naigabetsua, bere ta fameliko izen garbia zikinduko zuten beldurrak. Beragatik bi mutil zezenak bezela elkar txikitzen ibiltzeak min eman zion. Baiña asko ikasi zuen. Batez ere, Krispiñen mazaltasuna.

Ixil-ixilik atera zan Potzolarekin batera. Ez det uste etxerakoan nai orduko agur egingo zionik.

Beste bi ordu gutxieneko Joxe Marik an igaro ziotuen oraindik. Len betea bazegoen, gaiñezka egin zuen, askotan bezela, etxeko naigabeak ito nairik.

Kanpora orduko, eziñean ikusi zuen norbaitek, urrikaldu ta ala esan omen zion:

— Joxe Mari, nai badezu beiñepein, etxeraiño la-
gunduko dizut, bakarrik eramateko zama aundiegia
artu dezu-ta.

— Zoazte zakurraren ipurdira denak! Len ere nai-
ko iseka egin didazute. Berriro eraso gabe, bakarrik
joango nauk. Aundiagoak eramaten oitua negok. Nor-
baitek zema egin zidak, bai, bidean zai edukiko deta-
la, arrapatu ta iltzeko.

— Ura baiño etsai gaiztoagorik ez badezu, bazabil-
tzake lasai.

Bakarrik atera zan, bere asmoak lur jota geratu zi-
ralako amorruez. Balantzaka-balantzaka batera ta bes-
tera, emen oztopo, an erori, muturka ta zutituz, abots
betean bakar-izketan, illunpean ezkutatu zan. Ibillian
zerbait arinduko zala, beti aurrera egiten zuen beiñe-
pein; ta, bide-bazterren batean lo eginta bederen, iri-
txiko zan.

Baiña eguna zabaldu ta gerora ere etzan oraindik
ageri. Len ere olakoak egiten oitua zegoela-ta, etxeoak
etziran larritu.

Goizean, Joxepa jostera zijoala, etxetik berreunen
bat metrora iritxi zanean, bide-bazterrean etzanda ze-
goela gizon bat ikusi zuen.

Biozkadak eman zion, bart etzala aita etorri ta ura
izango zala an lo zegoena. Nor ote zan ura? Bere za-
lantzatik ateratzeko beragana urbilduz, bereala ezagu-
tu zuen aita zala. Baiña oraindik illun xamar zegoen.
Seko lotan zegoela iruditu zitzaion.

— Aita, zer egiten dezu or? Bart ere izugarria arra-
patu zenduen ta noski.

Baiña ura etzan mugitu. Etzion erantzunik eman ere.
Etzeukan nolanaiko loa, kupela bezela beteko zan-ta.

Beragana urbilduz esna arazteko asmoan, otz xamarrira iruditu zitzaion. Odola ere bai bere azpian. Joxeparen iritzirako, illa zegoen aita.

— Aita maitea, zer egin dizute? —karraxi eginta, laxterka batean sartu zan etxera.

— Aita il egin dute! Aita il egin dute! —zion oiuka.

Joxepa orrela somatu zuenean, ikaratu zan anaia. Gurasoen anka-sartze orrek ero araziko zuela bere arreba gizarajoa. Bart somatu baizuen oso eroria etorri zala. Besotik artuz, ala esan zion:

— Zer dezu, Joxepa? Erotu egin al zera, orrela oiuka? Ez ote da pakerik sartuko etxe ontara?

— Ez, Joan Joxe, ez naiz erotu! Aita il egin dute! Aita il egin dute! —anaiaren sorbaldan burua makurtuz ta negar-zotinka.

— Non arkitu dezu aita illa?

— Guadalupe'ra igotzeko bide-gurutzean, odoletan illa ikusi det.

— Mesedez zaude ixilik, eta oraindik ez ezer esan amari.

Aren karraxira atera ziran anai gazteena, soldaduskatik baimenarekin etorria, eta koñata. Laurak joan ziran, Joxepak erakutsiko zien lekura.

Etzan erotu, ez. An zegoen aita, bide-ertzean eroria edo etzana, etxe aldera artzeko bide-gurutzean, bere odoletan lotua.

— Gizarajoa! Au bear genduen orain! Onek ere etsaiak izaki. Lo zegoen lekuan il ditek. Bestela, bideertz au naastuagoa egongo uan.

— Izan ere, alabaren buru gabeko arazoan sartu uan-ta.

Bada ez bada, anai zaarrenak eskumuturra artu zion eta etzegoen oraindik illa. Biotzaren taupadak nabaitzen zituen.

— Bizi dek oraindik. Ni Guadalupe'ra niak, urrutizkiñez berebil bat eskatzera ta orko soldaduen laguntza, angarilletan gora igo dezagun. Zuk, Joxepa, lenbailen manta, maindire edo al dezuna ekarri, aita berebillan eramateko.

— Zuk —esan zion erraiñari—, zuk badakizu zer egin. Baiña, al badezute, ez amari ezer esan. Ik, mese-dez, zaitu zak aita, iñork ukuitu ez dezan.

Ordu bete baiño lenago zauri—etxean zeukaten, goiko soldaduak lagunduta. Kapitanak berak ere lagundu zien igotzen. Zaarrena joan zan aitarekin.

Sendagilleak, lenengo azterketa egin ondoren, ala zion semeari:

— Eztenkada sakona eman diote. Odol-puska bat ere bai ixuri. Baiña bearrezko soin-atalik ez diote ukuitu. Alare, ospitalera eraman bear da. Arritzen naiz. Zer zabilzate goi-alde ortan? Atzo Krispin izeneko arraintzale gazte bat etorri zitzaidan, arratseko amaikak alde ortan, tabernen batean aulkiarekin buruan jo zutelata. Amar puntu eman nizkion. Orain, berriz, au.

— Zuri entzuten dizut lenengo. Krispin ori ezaguna det nik. Baliteke au orren ondorena izatea.

— Uste gabeko okerrik ez badatorkio, laxter jarri-da etxera eramateko moduan.

Aita ospitalera eramanta, txuxenean etxera etorri zan. Urduri zeuden zer berri ote zekarzkien jakiteko. Sendagillearen iritzia esan zien, eta denak lasaitu ziran.

Amari ere bai: aitak min artu ta ospitalera eraman zutela; baiña etzuela noski ezer askorik.

— Beti mozkorra zebillek-eta —erantzun zuen amak.

Erraiñak bereala zabaldu zuen berri kaxkar ori. Lenengo, tabernariari. Izutu zan au, bart gertatuaren ondorenak ez ote ziran, eta igo zan esandako lekura.

Aita eramaten txukun ibilli ziran. Iltzaillearen oinarrastoak garbi-garbi zeuden.

— Etzekit nork egingo zuen lan ori. Baiña Krispiñek ez dit uste. Eizeko edo mendi-bota iltzedun oieta-koakin uan, ta emen etzegok oien aztarrenik. Epailleak ez badit galdetzen, ez ikusia egin da kito. Baiña au ez dek aren lana. Arek artu zuen kaskarrekoarekin, ura ez uan onera etorriko.

Krispiñen amari ere esan zion, bera lanera joana baizan bere kopeta lotuarekin.

— Arritzekoa. Gure mutillari ere egundoko zauria egin zioten, eta Joxe Marik gaiñera. Bart zauri-etxera joan zan arratseko amaikak aldean. Orain itxasora joana.

Joxepak dena ikusi omen zuela, eta zekiena bertan kontatu zion.

— Jesus! Ortaraiño ere bai? Ez diote pakean utzi nai eta arrazoi du.

Etxera etorri zanean, ala esan zion Joxepari, bere bi anaien aurrean:

— Barkatu, baiña bart zer ibilli zerate?

— Zaude, zaude ixilik! Alako ordurik ez det oraindik igaro. Burruka nazkagarri bat. Ta, Krispiñek esan zuenez, aitak eta Potzolak preparatua.

Dena kontatu zien. Baita aitaren ta Potzoloren sentimenturik-eza ere.

- Orduan Krispin gallendu zan.
- Ori, aitak billaukeria egin ziolarik. Txomin eltzera zijoala, anka trabatu zuen Krispiñenetan, eta azpira erori zan.
- Eta barkatu egin zion.
- Bai, dena. Kasketakoa ere ez nolanaikoa. Orain izango dira kontuak.

GALDERAK ETA SUSMURRAK

Juezari jakin erazi zioten zer gertatzen zan. Bai txintxo etorri ere. Zauritua jaso zuten lekura joan zuzenean. Joan Joxek laguntzen zion.

— Etxetik bertan —esan zuen—. Olako tabernatik zetorren. Zoritxarrez, askotan neurritik ateratzen dana da.

— Zuek eramaterakoan egindako oin-arrastoak izango dira auek?

— Onuzkoak bai. Au garbi-garbi zegoen. Beraizik ere, zuk ikusteagatik, emendik aritu giñan, arunzkoak naastu gabe.

— Gizon aundiren bat ibilli da emen. Onek bai al zuen etsairik?

— Denok bezela. Auzi batean asarre-bizi geratu zitzaizkion iru auzo.

— Oien susmurrik egiten al dezute?

— Ortaraiñokorik ez beiñepein.

— Eta emakume-zale oietakoa al da?

— Gu ez gera beñere aitaren zelatari ibilli. Ta, garbi esateko, ez dakigu.

— Ezer estrañurik somatu dezute?

— Eztabaida bat dago gure etxean gaiztoa. Gure arreba bakarra, amasei bat urte ezkerro, arraintzale jator batekin dabil; eta azken aldi ontan gurasoak beste batekin ezkontzea nai luteke. Neskak, ordea, ez du entzun nai ere. Berarekin dabillen mutilla ere sumindua dago gurasoen anka-sartze orrekin.

— Zenbat urte ditu neskak?

— Ogei ta bat aurki.

— Ez da ain umea. Zer egiten duen jakiteko badu bere adiña. Gaurko egunean ez daukate gurasoak zertan sarturik. Askea bear luke.

— Berekin dabillen mutillak jatorra ta ona dala dirudi. Bestea, berriz, aberatsa omen da. Ez det ezagutzen ondo. Baiña, entzun detanez, buruan argitasun gutxi. Arazo onek galdu du gure etxeko pakea. Gazteak arrebaren alde gaude. Zaarrak, berriz, aurka. Beti bezela, diru-zaleak. Aita il naia ere, nere iritzian, ortatik dator. Ala uste det.

— Ez da, bada, alabak zirikatu ta mutillak egiña izango?

— Ni mutillarekin ez naiz sartuko. Artu-eman gutxi daukat nik arekin. Bere griñen berri ez dakit. Baiña alabak bizia ere emango luke aitaren alde. Jakiña, bere eskubideak ere zaindu bear dituela.

— Maitasuna itxua da gero.

— Bai. Ala izan bear du. Baiña alabak aitari dion maitasuna ere itxua da.

— Eta eraso onen txeitasunik ez dakizute?

— Gure aita il-zori emen arkitu genduen. Besterik ez dakigu.

— Aita zer moduz dago?

— Sendagilleak itxaropen osoa eman digu, ezeren ondoren txarrik ez badatorkio, laxter jarriko dala etxerako moduan. Aita zauritu baiño len, arrats ontan bertan, egundoko burrukak izan omen dira olako tabernetan. An ziran Krispin, alabak maite duena. Bestea ere bai, neskarekin batera joana, aita tartean zutela. Ango tabernariak baliteke guk baiño zerbait geiago jakitea.

— Neska, maite duenaren aurrera, beste batekin? Itxura txarrekoa da. Zertara joan zan: bada, okasioa jartzera?

— Gurasoak beartuta dabil, eta arek etzekien beste mutilla an zegoenik.

— Emakume—kontu ortan, gutxiena uste duenak egiten ditu olako azioak. Beste berririk ikasten badezute, esan. Ez det uste ori arrapatzen zailla dagoenik.

Andik, txuxenean, tabernara joan zan. Ostalariak zekiena garbi-garbi esan zion.

— Mutillak bai al zuen aitaren bidera ateratzeko betik?

— Baita geiago ere, bi orduz beranduago aterako zan Joxe Mari-ta.

— Ez dezu noski bestearen susmurrak izango?

— Ez batena ta ez bestearena. Txomiñek etzeukan aitari zertan erasorik, bere alde atera zan-ta. Krispiñek arrazoi geiago zuen. Baiña alako burukoa artuta, bart arratseko amaikak aldean zauri-etxera joan zala nik en-

tzun det. Amar puntu josi zizkioten. Goizean lanera joan omen da. Gogo bear du gizonak, arrapatuko duen edo ez jakin gabe, berriz ara igotzeko. Gaiñera, mendi-bota iltzedunak zituen, eta an ez dago aztarrenik òre.

— Aldaketa ori egiten oso errexax da. Orrek ezer guxti esan nai du. Badirudi bera dala ta, susmurrik ez egi-teagatik, igesbideak billatzen ibilli dala.

— Ori da, bada, nik dakidana.

— Eta neska zer moduzkoa iruditzen zaizu?

— Gorputz ta anima ederra.

— Ez da, bada, gazteak zirikatzen ibilliko?

— Neska orrengatik ez det oraindik iñor gaizki esaka entzun.

— Oien bien lana da ori, ta mutilla baitu egin bear det.

— Nai dezuna egin. Zu zera epaille. Baiña ez dezu asmatuko.

— Itzegiteko moduan jartzen danean, zaurituak dena argituko digu. Ikusiko zuen.

— Orrekin bai ez naizela batere piatzen. Eta zergatik ez utzi ordura arte?

— Ez dala il jakitean, igesi egingo baitu.

Juezak Krispin lotzeko agindua eman zuen.

KRISPIÑEN IGESA

Bere kopeteko zauriak etzuen Krispin lanetik atzeratu. Goizean goiz atera zan itxasora, bere langille lagunakin. Gero zabalduko ziran berri gaiztoak etzituen ikasi.

Egun guzia lanean igaro ondoren etxera etorri zanean, Karmenek ixilik beregana deitu zuen. Gaixo-zai ikasia zan ezkeru, lotura zaarrak kenduta, zauria garbitu ta lotu zion berriro.

— Ondo daukak. Bereala sendatuko zaik ori.

— Eta aztarrenik geratuko al zaidan?

— Bai noski, zauri aundi xamarra egin ziteken-ta.

— Izan ere, alako astakeriak egin al genizkiñan guk bart.

— Geroztikako berririk bai al dek?

— Guk an ez diñagu, sare, amu ta itxasoaren otsa besterik entzuten. Lanari oso lotuak egun santu guzian.

— Oraintxe ordu pare bat guardia zibillak etorri dituk ire billa.

— Alajainkia! Nik artu kaskarrekoa, ta oraindik gaiztoa ni al naiz?

— Ez dek orregatik. Okerragokoa badek gertatua. Joxe Mari il-zori billatu dik, lanera zijoala, Joxepak goizean.

— Ori ere badegu? Deabrukeria den ori. Potzoloren aldekoen lana iñondik ere, ni tartetik kentzeko asmoan. Ori jo duenak, bazekien zer egiten duen. Etzidaten sarea gaizki jarri. Erdiz-erdi ni arrapatuko nioten, eta ez diñat olakorik egin, zuek ondo dakizuten bezela.

— Ondo zekiagu guk. Baiña epailleak etziguk ezer ere sinistuko. Joxepak ere, ire lana dala ori omen zio.

— Ez diñat Joxeparekin aspaldi ontan itzegin. Etzekiñat nola dabillen. Atzo arek egin zidanak, naiko zer pentsatua ematen zidan.

— Eta uste al dek bazekiela ori?

— Ezin nezaken epaitu. Baiña or zegon zalantza. Ta orrek baten maitasunean zulo aundia egiten din. Arekin badijoa, etzionat ezeren txarrik opa. Izan dedilla zorionekoa. Baiña nik etxe ura kenduko zionat, arrebarekin ezkondata.

— Orduan arekiko gorrotoa pizten ari zaik.

— Ez den egia. Nik ezin nezake ura gorrota. Baiña nik ere nonbait bizi bear diñat. Dana dala, ura an ikusteak naigabe eman zidanen. Potzok, ni baiño berrogei kilo geiago danak, txikituko niñula uste baizuten, eta nere bizkar par egitera etorri ote zan.

— Krispin, ez dek ezagutzen, alderatzekorik ere, Joxepa.

— Ori etzekiñat. Baiña ixkanbil au neskarentzat tristea den, ta neretzat ez ohea. Gure izen garbia lekutan geratuko den. Joxe Mari bizi den orduan?

— Zauri orrek ondoren txarrik ez badakar, laixter etxera joateko moduan izango dala esan ziotek Joan Joxeri.

— Eskerrak, alare, arek egia esango balu. Zergatik lotu bear nioten, geiago jakin gabe? Zertarako dizkiten olako presak?

— Esan ziegu. Baiña aiek, baitzeko agindua artu dutela-ta, arratsean etorriko dirala berriro esan zigutek.

— Ni ez nioten, bada, arrapatuko.

— Zer: iges egin bear al dek?

— Bai. Ni ez naun kaiolan egoteko egiña. Len ere bi urte igaro ta etorri berria naun-ta.

— Ori iretzat askoz okerrago izango dek.

— Bai, nai badu. Bitartean zerbait azalduko al den!

— Aldegin bear ta ere, nora joango aiz?

— Beste aldera. Ara gabe ez negon seguru. Neska bat maitatzeak olako ondorenak ekartzen badizkigu, obe geniken praile sartu.

— Benetan ezkorra ago, Krispin.

— Zer esatea nai uken? Aingeru bat bezela ibilli naun arekin, eta orain au?

— An badizkiagu osabak.

— Bai. Baiña Judas bera baiño zurragoak. Ederki ari niñunen sos batzuk aurreratzen, ta orra porrot. Iku-sia zegon ez gaitula Jainkoak gu biok elkarrentzat egin. Orrenbeste eragozpen!...

— Arazo oietan ez Jainkorik naastu. Zuek erabaki bear dezuten lana dek ori.

— Egingo niken apustu, Joxe Marik ni nintzala esaten duela. Orduantxe bai betiko galduko nautela.

— Gertatu baiño len, ez adilla supritzen asi. Agian, ez dakiela esango dik.

— Egia esatezkeroz, bai. Ziur asko, lo arrapatuko ziteken-ta.

Aita ta anaiak ere etorri ziran itxasotik. Aiek ere etzekiten ezer. Ikasi zutenean samindu ziran.

— Baiña ziur bazekiagu ez dala ire lana —zion aitak aserre.

— Epailleak ez, ordea. Eta arek agindu du. Nik oraintxe nere buruz etsi det. Bazter guzietan ixkanbilla ta naaspilla besterik ez degu jartzen. Ta Joxeparen etxera guda eraman, berriz. Ez dago an pakerik. Bi zatitan dago sendi ura. Taberna ere bai. Amaika atzera-aurrera egin bearko ditu orain tabernariak. Gure etxera ere bai. Eta nik, legez ez danik ez det egin.

Orduan arrebak artu zuen itza, aitak-eta jakin zezaten:

— Lotzeko agindua emana dago. Laixter emen ditugu guardia zibillak, len ere izanak dira-ta.

— Ortaraiño ere bai? Eta ik zer egin bear dek?

— Arrebari garbi esan diot: iges.

Triste geratu ziran denak. Apaltzen ari zirala, deitu zuten atean. Aita atera zan eta aurrez-aurre guardia zibillak ikusi zituen.

— Gabon —esanaz agurtu zuten aita.

— Garai ontan zeren billa zatozte?

— Len izan gera, baiña lanean dala esan digute. Krispin deritzaion baten billa gatoz. Etxean al da?

— Bai. Elkarrekin apaltzen ari gera.

Arreba atera zan ta:

— Oraintxe leiotik iges egin du —esan zien.

Orduantxe jauzi batean atera zan. Bai guardiak sutu ere. Baiña etzuten ukuitu.

— Nola utzi diozute iges egiten?

Asarretu ziran guardia zibillak.

— Ogei ta lau urte baditu ta bere buruaren jabe da —erantzun zien aitak.

— Okerrago izango da, bada, ori beretzat.

— Gaizki egin badu, ordain dezala berak. Baiña utzi guri pakean. Zibillak ixilik joan ziran andik, arrazoi zeukatela-ta.

JOXEPA AUZITEGIRA

Krispin lotzeko agindua eman zuen juezak. Baiña iges egin zuen beste aldera. Aldegiña zala jakin zuenean, len aren susmurra bazeukan, orain ziurtasuna ere bai. Bestela, zergatik izkutatu bear zuen?

Auzitegira deiak asi baiño len, ikusten zuenak abisatzeko agindua eman zuen, Joxe Mari il nai zuena bera izango zala-ta. Bere ezaugarriak ere zabaldu ziran.

Urrengo beretzat susmurgarriena Joxepa zala. Baita erasotzaille bezela ere. Arek aita goizean anbat lo arrapatuko zuela, ta bertan sastako ura eman; ta, artatik ilko zalakoan, karraxika abisu ematera joan. Benetan gogorra ta umilgarria zan alabarentzat epaillearen iritzi au.

Gaberdira baiño len eraso baliote, gizonak nola iraun zezaken goiza arte bizirik? Baiña batez ere zirikatzaille ta estaltzaille bezela, arek jakin bear zuela arrats artan an ibilli zana nor zan.

Asteazkenean amarretarako auzitegira joateko abisua artu zuen agoazillarengandik, josten ari zan lekura etorrita.

Oso naigabetua geratu zan. Bere lagunak suspertu nai izan zuten.

— Ori ez den ezer ere. Arek galderak egingo dizkin, eta ik erantzun.

— Bai. Orrenbeste bazekiñat. Baiña kantari ari dan txantxangorria baiño inozenteagoa naun, ta orrela ibilli bearra ere samin ta lotsagarria den neretzat. Bai mundu au aldakorra dala! Orain ia bi urte, Ondarrabia'ko karrika guzietan barruna, denen aurrean, nere eder egiñaz, aupaka ta txaloka ibilli niotenen. Orain, nere aita iltzat utzi nuen susmurgarri bezela, karrika oietatik bertatik joan bearko diñat. Ezagutzen nautenak ala esango ditzen: «Or zien, aita il nai zuen alaba, auzitegira. Zer gertatzen ote da oien artean? Auzoko mutil guziak iruzurtzen ari dan neska izan bear dik orrek». Ura geiegia unan neretzat. Au ere bai, ordea. Lekutan geratuko den nere ta fameliko izen garbia.

— Ortik erru gabea ateratzen baaiz, aintzagarri izango den iretzat.

— Gure gertakari triste onengatik auzitegian dabilena, ez den beiñere garbi geratuko.

— Ire kulparik-eza ezagutuko din erriak.

— Erria txorrea edo gaiztoa den. Ondo baiño, gaizki epaitu naiago duena. Naaspil ontan galdua billatzen ez den errexa izango. Beti «zer gertatu ote da or?» , zailantz ori aoz-ao ibilliko baita.

Orduan, Krispiñen arreba Joxepari, anaiaren berriak ematera, urbildu zitzaion.

— Anaiak iges egin din noski beste aldera.

Goibel ta triste geratu zan Joxepa.

— Ea bera dan nere aitari eraso diona...

— Ori ez. Ura ez den olakoa. Aitari eraso baiño, ondotoxoz lenago etorri unan etxera. Eta biok joan giñunen sendagillearengana. Amaiakak joak ordurako.

— Erru gabea izan ta zertan joan bear ziñan iges? Orrela, dena nere bizkar uzten din.

— Ez duela lenengo egunetik espetxera joan nai. Emengo gora-beeren berri jakitean, agian bera azalduko dala auzitegira.

— Eskerrik asko. Benetako lasaitasuna den ori nerretzat.

Etxean ere esan zuen Joxepak nola auzitara deitu zuten.

— Ez beldurtu. Nik lagunduko dizut —esan zion anaiak—, neronek ere agian ortik pasa bearko det-eta. Zuk ez geiegi itzegin. Aren galderai, soil erantzun bakarra. Garbi, baiña beti egia. Eta, al badezu, ez iñor salatu.

— Zuek ere neregatik etzerate gutxi supritzen ari.

— Arazo au famelikoa da. Emen ez daukagu gazteok atzera egiterik. Ixkanbil guzi auen errua gurasoak dute. Oiek bakarrik. Beste gaiñerakook, ortan esku garbiak dauzkagu. Aalegiñak egingo ditugu gertatu dana garbitzen. Alare, il bazan, okerragoa izango genduen.

— Arek, lo ez bazegoen, jakingo du nork eraso zion.

Amarretarako an ziran. Anaiak sartu nai zuen, baiña epailleak etzion utzi.

Bakarrik geratu zan Joxepa, jueza ta idazkariaren aurrean. Ateratzen zan arte, anaiak itxogin zion, baiña andik urruti xamar.

Beren agurrak egin ondoren, exeri erazi zuen. Serio ta triste zegoen Joxepa, baiña ez eroria.

— Zure izen-abizenak?

— Josefa Etxebeste Mendiola.

— Aitarenak?

— Jose Maria Etxebeste.

— Amarenak?

— Konzezion Mendiola.

— Zin egiten al dezu, egia esango dezula ta egia bakarra?

— Bai, jauna. Zin egiten det.

— Zuk ezagutzen al dezu Krispin Egurbide?

— Bai, jauna.

— Noiztik eta nola?

— Amabost bat urte nituela, esne saltzera joaten nintzan; ta ura arraintzale batzuen seme gaztea zan.

— Noiztik asi ziñaten elkarrekin?

— Ura Afrika'ra joan baiño lentxeago, nik amazapi bat urte nituela.

— Zenbat urte igaro zituen an?

— Bi urte beteak.

— Alare, etzenuten elkar-maitasunik galdu.

— Ez. Illero elkarri idazten genion.

— Andik etorri zanean, berdin jarraitu al zenuten?

— Ez. Aren azkeneko zazpi eskutitzei ez nien erantzun.

— Zergatik ori?

— Gurasoak galerazi zidatelako.

— Etzuten zu berarekin ibiltzerik nai orduan.

— Ez. Gurasoen aldetik, beste bati eskeiña nengoen.

— Orduan, ura Afrika'tik etorri zanean, beste batekin arkitu zinduen.

— Bai. Txomin izeneko gazte potzolo batekin.

— Eta benetan asarretuko zitzaizun.

— Ez, jauna. Baiña biok geratu giñan naigabetan.

— Etzizun orduan zema txarrik egin?

— Ez, jauna.

— Eta tabernako burruka artan zu an ziñan noski?

— Bai, jauna.

— Eta norekin joan ziñan?

— Txomin Potzolarekin.

— Eta bazenekien bestea an zegoela?

— Ori jakin banu, ez nintzan joango.

— Ea: esaiguzu an gertatua.

Asi ta buka, dena kontatu zion.

— Zuk Krispiñen alde egiten dezu.

— Ez, jauna. Nik garbi-garbi, ikusi nuena kontatu det.

— Eta noren susmurra egiten dezu?

— Iñorenik ez, beste edozein izan liteke-ta.

— Etzenduen, bada, zuk an lo arrapatu ta egingo?

— Nik gurasoak asko maite ditut.

— Mutilla zirikatu ere bai.

— Ez, jauna.

- Orduan, lengo lagunak zertarako iges egin du?
- Ori berak erantzun bearko du.
- Ondo dago.

Izenpetu ondoren, atera zan andik. Anaia zai zeukan eta biak igo ziran baserrira.

Tabernaria ta arrats artan an ziran geiago ere deitu zituen. Aiek tabernako berri enian zioten. Baiña bidean zer gertatu zan, baraurik zeuden.

Txomin Potzolo ere deitu zuen. Bai estu xamar artu ere. Tabernako okasioa arek sortu zuela esan baizioten. Baiña neskaren aitak babestu zuela jakin zuenean, etzion susmur txarrik artu.

Joxe Mari ari zan berpizten, baiña nekez. Sendagilleak ziotenez, edanak errea zegoelako. Noizbait jarri zan epailleari erantzuteko moduan, eta sendagilleen baimenarekin ospitalean bertan itzegin zuten.

Oraindik triste ta aul zegoen, baiña burua argi zeukan. Juezaren galderei txuxen banaka erantzun bearrean, Krispiñenganako amorruez betea, ala erantzun zion:

— Nor dan ezin billaturik ez zere bururik nekatu, ta ez besterik neka arazi ere. Neri lan au egin zidana, ez da arraintzale anka-luze ori besterik.

— Krispiñengatik ari zera?

— Bai, jauna. Garbi-garbi ezagutu nuen.

— Eta zin egingo al zenduke?

— Baita amar, bear ta ere. Orko ixkanbil guzien erruduna ori da.

— Zuri entzuten dizut ori lenengo. Beste guziak, Txomin ta bere gurasoak izan ezik, bestela mintzo dira. Baita zure alaba ere: Krispiñek ez duela ezeren kulpik.

— Nik bezela, labana eskuan ikusi balute, ez luteke ori esango.

— Lo zeundela zauritu ote ziñuzten da geienen iritzia. Baita sendagillearena ere. Ta, ala bazeunden, nola ikusi zenduen?

— Nik baiño obeto iñork ez daki orren berri. Exerita nengoen.

— Izenpetuko dezu noski?

— Bai; ta pozik gaiñera.

Krispiñenganako gorroto ikaragarria somatu zuen bere etsaietan juezak. Etzekien zer pentsatu.

Andik egun gutxira, Joxe Mari etxera eraman zuten.

ARRAINTZALEA

Krispin, iges egin zuen ezkeru, beste aldean bizi zan, osaba-izeba batzuen etxean, Ondarrabia'n zeukan lan-tegian bertan. Aiek ere arraintzale ziran. Mantenuz gairera, etzuen asko irabazten. Beti, alare, zerbait ematen zioten.

Aiek bazekiten zergatik joana zan. Baiña etzuten sinisten, mutil ura arratsean bidera atera ta aiton mozkor bat iltzeko asmoan ibilli zanik; eta etzuten salatuko.

Ia bi illabete joan ziran Joxe Mari ziztatu zutela. Auzo guziak deitu zituen epailleak, bat bestearen urren. Batzuk bi edo iru aldiz ere bai. Lenengoan bezin illun geratu zitzaion guzia.

Bat baiño geiago bazeuzkan susmurgarri. Baiña auetan bi zeuzkan bereziak: Krispin ta Joxepa. Auek bien arteko lana zala. Baiña neskari etzion eldu-leku txikienik ere arrapatzen. Amaika galdera biurri egin zizkion, naastutzen ote zuen. Baiña alperrik. Azkenean,

mutillak bere buruz egindako lana izango zala ori. Or-tan geratu zan. Ura arrapatu arte, auzia ere etena.

Joxe Marik baiño geiagok salatu zuten, ta batez ere Potzoloren aldekoak.

Poliziak, beraz, onen atzetik zebiltzan. Baiña iñork etzekien nora iges egin zuen.

Bitartean, Krispiñek inpernu bat zeraman biotzean, an bi illabete besterentzat lanean ari zala, gizon-iltzaille bezela jazartua. Bere auzo artako berririk ezin ikasi gaiñera. Joxepa bere zai ote zegoen edo Potzolorekin zebillen, lenago bezela? Bere iritzian etzuen ondo egin azaldu ta ango berri ikasi gabe egotea. Batez ere, nes-kari abisu eman: etzala beratzaz aztutzen. Arrebarekin albiste bat biali. Ez ixilik gordeta egon.

Bere askatasuna arraixkuan jarriko bazuen ere, bere gurasoen etxera bixitatxo bat egitea izango zala onena. Adierazi zion bere osabari artutako asmoa.

— A, motell! Eroriko aiz, i arrapatzeko bandua ere zabaldua dagoela uste dit-eta.

— Arratsean ixilka joanta ere bai? Ezkutu xama-rean dago gero ura.

— Baiña zaindua badaukate?

— Bai. Ori egia izan liteke. Baiña arrapatzen banau-te ere, zer galduko det? Ango berri jakin gabe ni ezin ninteke bizi.

Ala, bere batela xaarra artuta, bi illabetez lenago igaro zuen itxasoan, ixilka ta arratsean jarri zan kai-eko bidean.

Illargi ederra zegoen. Etzitzaion ori komeni. Baiña erne ta polliki urbildu zan kaiara. Denak bere zai zeu-dela iruditzen zitzaion. Bazter guzietan zelatariak ja-rrita zeuzkatela. Alare, aurrera beti, kaiako ontzi artean

barrena; eta molletik urera egindako zurubi aietako bati lotu zion bere batel xaarra, arraunak bere barruan utzirik.

Ur-puska bat sartu zitzaion. Baiña antz eman zion azpitik ezetz. Ugin bizi xamarrak zebiltzala ta zaplastan gaiñetik. Andik igo baiño len, al zuena ustuzuen. Ez baizekien presaka edo muturka ibilli bearra izango bazuen ere gero.

Zurubi artan gora igaro ta polliki gaiñera begira jarri zanean, iru metro baiño alderago bi guardiazibil ikusi zituen, molletik kaieko ontzietara begira. Burua makurtu ta polliki-polliki arresiaren babes ezkutatu zan.

Andik itxas araindira ezin ziteken illunera, argi gabeko batel bat zetorrela, ikusi.

Unetxo batean begira egonta, aurrera joan ziran. Arratseroko oitura izango zuten ura, kontrabandisten batzuk bai ote zebiltzan ikusi-mukusin.

Aiek aurrera ezkutatu ziranean, atera ta bereala mendira artuzuen. Illargia zaindari, pake goxoa zegoen inguru artan. Etzebillen bere biotzean bezelako ixkanbillik. Berak zekien bide txigor batetik igo zan gurasoen etxera.

Auzitegira joan bear bazuen, ixil ta bakarrik joateko asmoak zituen. Etzuen iñork arrapatzerik nai. Ori aringarria izango zala beretzat.

Atarian edukitzen zuten txakurra etorri zitzaion ongi-etorrika. Poztu zan benetan zaunkik ez egiña. Beste oiek somatzen bazituen, berriz, etzuen uste ain pakean artuko zituenik. Ori komeni zitzaion.

Etxeko denak esnatzea etzegoen ondo. Bai-baizekienango berriak txuxenena nork emango zizkion, ara joan zan: bere arreba zaarrenaren leio azpira.

Arri koxkor bat artu ta tira zuen leiora. Ots aundia atereagatik, etzan barrukoa oartu. Laugarren arri koxkorak bai, orratik. Bostgarrena tiratzera zijoala, zabaldu polliki-polliki leioa erdizka; ta, ondo begiratzuz, etzuen iñor ikusi. Orma ondoan baizegoen Krispin.

— Zein ero ari da leio ontara arrika?

Ango mutillen bat zala usteko zuen.

Orduan azaldu zan Krispin, illargi ederra zegoen ta ikusiko zuten beldurrak.

— Barkatu, Karmen. Ire anai Krispin naun. Ez dizkiñat denak esnatu nai. Nik jakin nai nituzken berriak, ik dakizkin ondoena. Orregatik natorren onera.

— Baiña, Krispin! Erotu al aiz, garai ontan emen ibiltzeko? Denak ire atzetik zebiltzak, eta ez dek oraindik ordu erdirik, i agon baiño beraxeagotik, bi txapel oker oietakoak igaro dirala. Sarrera ona egin ziek txakurrak. Orrek ez dik oiek emen barrena ibiltzerik nai.

— Bai. Mollean ikusi dizkiñat.

— Alare, onera ator?

— Oiengatik etzidan batere ajolik. Beti berandu ibiltzen ditun. Emengo berri jakin nai niken. Ea auzo ontan zer gertatzen dan.

— Arraixku ortan or agoela, ezin gentzakek lasai itzegin.

— Utzidan orduan ire gelara igotzen.

— Ala bearko. Ator, ator.

Orma gordin artan gora igo zan, ta leioa itxi zuten.

AUZOKO BERRIAK

Anai-arrebak oiaren gaiñean eserita, asi zuten elkar-izketa. Batek, jakin nai zuena galdetu; ta besteak erantzun.

— Emen itzegiten deguna, naiago niken ixilik edukitzea, jostundegian kontatzen baden denean zabalduko ditenta.

— Ez orren beldurrik eduki, Krispin. Onuzkero, badek nere berri ikasteko garaia. Bi illabete auetan ederki ikusi dit ori, esan gabeak ere neri ezartzen zizkidatek-eta.

— Joxepa ta nere artean bitarteko i jartzen aut. Emendik egun batzuetara berriro etorriko bainaun.

— Ai, Krispin! Eroriko aiz!

— Ez niken ori nai, batez ere Guadalupe'ko Amaren bederatziurrena igaro arte. Iru urterekin asi ta gaur arte, soldaduskako biak besterik ez dizkiñat utsegin. Aurtengo ontan ere ez niken nai. Andik aurrera, agian

neroni joango naun auzitegira. Nik etzionat iñori txarrik egin, eta etzeukanat oien aurrera azaltzeko beldurrik.

— Ik artu dekan erabaki ori, Joxeparentzat ardo goxoa baiño ere atsegiñagoa izango dek. Arek badakiela bere aitari eraso ziona i aizela ta ez aula salatu nai, askok bota ziotek arpegira, erruki aundirik gabe.

— Orduan nere berri jakin nai liken arek.

— Bai orixe. Bestela betiko galduko dek. Orma ta ezpataren erdian zegok, irekin edo Potzolarekin joan. I ezkututzen baaiz, kito. Biar ire berriak ematen dizkiodanean, ire auzitegira joateko borondate ori benetan eskertuko dik, bi aldeetako gurasoak billautzat zeukatek-eta.

— «Nola zabilta, aita il nai zuenaren baten atzetik?» esango ziotek noiznai.

— Baiña ori dena neska makurtu erazteko komeribat besterik ez dek. Bazekitek ondo Joxepa ez dala olakoa.

— Eta Txomiñekin ibilliko den?

— Bai. Len bezelaxe. Ez otzago ta ez beroago. Uste detanez, biali egiten ditek. Bestela, ez uke etorriko. Baiña lan txarra ari dik egiten bere aitak: bera maite badu, uzteko erabat bestea. Ire berririk ez badu artzen, i aztu aizela-ta, arengana biltzeko arraixkua zeukak.

— Auzitegiko lanak zer moduz zijoazten?

— Epailleak oraintxe arte ez dik aterrunik eduki. Amar-amabi badizkik deituak. Joxepa, len esan diteenez, iru edo lau aldiz. Alegiñak egin zizkiok naasten ote duen, bein ta berriz galdera biurri askoak egiñaz. Baiña ez dek berak uste bezin sinplea. Anai ta koñata gazteak laguntzen ziotek. Bestela, onuzkero aldegin zin

etxetik. Bere anai zaarrena ere deitu ditek bein baiño geiagotan.

— Zer ikusi zeukan Joan Joxek ortan?

— Ni deituko baniñute bezela: bere alde gaudelako. Baita Txomin Potzolo ta bere aita ere. Baiña oiek, neskaren aitaren lagunak, ez omen dituk susmurgarriak ere. Dirua zebillek noski or.

— Txomin Potzolo, ai zer animala tzarra! Ni baiño berrogei kilo geiago baden ura. Joxe Marik billaukeria egin zidalako, ez niñan errex menderatu. Onuzkero sendatua izango den.

— Iregatik egundokoak esaten dituela uste dit. Badakiela ziur i aizela. Beste iñoren billa ez ibiltzeko esan omen zioken epailleari.

— Urde ori gezurretan ari den. Iñor ikusi bazuen, jakingo din nor dan. Agian lo egongo unan, zama ezin eramanik exerita.

— Aitaren ziurtasun orrek kalte aundia egiten ziok Joxeparen biotzari. Zirikatzaillak ere gogotik ari dituk, i palta aizen ontan, Joxepa sarean arrapatuko ote duten: bere gurasoak, eta Txomin Potzolorenak ere bai.

— Joxe Marik arritzen nion, neri billaukeria egin ta alako zanpetakoa eman ondoren dena barkatuta, orrela jarduteko.

— Ea zer moduz daukaken zauri ori. Oraindik aztarrenak badauzkak. Baiña geienak joan dituk.

— Ez ote diñat laster etxera biurtzeko eskubiderik izango? Orduantxe bai dena irabaziko nukela.

— Auzirik egin gabe nola?

— Nik etzionat iñori ezer egin, eta andik edo emendik egiak azaldu bear din.

— Ori etzekit. Baiña egunen batean, orrela baabil, guardiazibil oien arantz beltzak arrapatuko aute, ta kito.

— Guraso egoskor batzuen berekoikeriagatik orrela ibilli bearra ere...

— Jaunari eskerrak, polliki-polliki ari dek gizartea biguintzen.

— Esango ion noski Joxepari oraindik bizi naizela ta ez daukadala aztuta. Balitekela aurki neroni auzitegira joatea.

— Bai, Krispin, bai. Kontatuko ziot, neskatx orrek dena merezi dik-eta.

— Orduan agur ta eskerrik asko, iri loa galerazten ari naun-ta.

— Oni bukaera ona emateagatik, zer ez nuke egingo nik?

Leioa zabaldu ta jeixterakoan, txakurrak zaunka bizian ekin zion. Baiña ez Krispiñi. Inguru artan zebiltzan txapel okerrak, eta orrek salbatu zuan. Auek ikusi zuten jeixten ari zala.

— *¡Alto!* —oiu egin zioten.

Krispin, ordea, jauzi baten ondoren ezkutura sartu zan, kroska baten babesera. Lau edo bost tiro sutu zizkioten, baiña ordurako etzeukan arraixkurik.

— Arantz beltzak, alajainkia! Ta bigarren aldiz. Oiekin etzegok atsegin.

Arreba, leioa itxi ta oieratu zan, izutua arrapatuko zutelakoan. Baiña kroskaren babesera ezkutatzeko naitako denbora bazeukan. Estuasuna Karmenentzat: ea galdezera etortzen ziran.

Tiro-otsak entzun zituzten etxeakoak. Ondoren, atean deika ari zirala. Aitak, jeiki ta txapel oker oieta-koak arkitu zituen.

— Gabon —agur egin zien.

Beti an zebiltzanak ziran, eta ezagunak.

— Baita zuri ere —erantzun zioten.

— Tiro-otsak entzun ditugu. Zer gertatzen da emen?

— Atze-atzeko leiotik norbaitek jauzi ta iges egin du.

«Nere alaba maitekeritan ote dabil?» pentsatu zuen aitak.

— Guk ez dakigu ezer. Tiro-ots oiek esnatu gaituzte.

— Ez ote zan gero zure seme Krispin izango? Badakizu ori arrapatzeko agindua daukagula.

— Eta nor dan ezagutu gabe sutu dizkiozute orrenbeste tiro?

— *Alto* eman diogu, ta ez da geratu.

— Bai. Bizi edo illa arrapatzekotan ibilliko zerate. Etxe-inguru ontan maizegi ikusten zaituztegu beiñepein. Jakitezkeroz, alabak jakingo du. Guk ez dakigu ezer.

Aldegiña zan ezker, joan ziran, biaramonean txee-tasun geiago eskatuko zituztela.

Arrebak dena entzun zuen eta parrari eman zion, berdin bazekien Krispiñek igesi egin zuela-ta.

— Zer pentsatu ote dute nere gurasoak?

Krispin, berriz, laxterka jetxita, bidea itxi etze-zaioten, burnizko zurubi artatik beera, lotuta utzi zuen ontzian sartu ta berriro beste aldera joan zan, baiña kontentu, beretzat garrantzi aundiko berriak eman zizkion arrebak-eta.

Goizean, berriz, serio galdetu zion Karmeni aitak:

— Nor eukanen ire gelan?

Berriro parrari eman zion:

— Ez gaizki pentsatu, aita. Nor izango zan? Krispin anaia, emengo berri jakitera etorria.

— Eta itzegin al dezute?

— Ordu bete pasea elkarrekin geundela. Bederatziurren au betetzeko asmoan dabil. «Abil erne, beste la eroriko aiz» esan diot. «Erortzen banaiz ere, zer galduko diñat?» erantzun dit.

— Guadalupe'ko bederatziurren ortara joateko asmoak dizkin orduan?

— Iru urterekin asita, Afrika'n galdutako bi urte oiek besterik ez omen dituela utsegin esan dit.

— Eta Joxe Mariren eztenkada ortan parterik bai al duen galdetu al dion?

— Ziur asko badakigu ori lendik ere. Kalte ikaragarria egin omen dio orrek. Malezi aundiko lana dala. Ura il nai zuenak, bazekiela zer egiten zuen.

— Alare, inozentea bada, nonbaitik argia azalduko den.

Urrengo egunean, dena jaulki zion Karmenek Johepari. Benetan poztu zan au. Orain ziurtasuna bazeukan, etzuela beragatik alako astakeririk egin. Sekula baiño bakarrago geratu ziran bata eta bestea. Baiña bederatziurrenera joate ori etzion ondo artzen, an arrapatuko zuten beldurrak.

ZIRIKA

Gazteak, Joan Joxe ta koñata, baratzara joaten ziranean, aitak beti izaten zuen kanpoan zerbait egin bearra. Ama bakarrik geratzen zan orduan etxean.

Egokiera ori etzuen galduko Txomin Potzoloren amak. Noiznai etortzen zitzaion bixitatxo bat egitera. Baiña ez beiñere eskutsik. Galletaren batzuk ardo goxoarekin-edo, beti zerbait olako engaiñagarri zekarkion. Ez etxeakoak gaizki zaindua zeukatelako, baiña olako txeetasunetan ezin zitezken ari senar-emazteak, biak lanpean bizi ziran-ta.

Eguneroko kalerako txangoak egoarterik geiena eramaten zion erraiñari. Etortzean, etxeako lan guziak beretzat. Joxepa, berriz, jostera. Arratsaldean, beren baratzetan zeukaten naiko lana.

Orduan etortzen zan auzoko emakume bular-aundi bat, denengatik maxiaketan, batez ere bere semearentzat Joxeparen eskua eskatzera.

— Bai. Ain errex! Oraingo gazteak ez ditun gu bezelakoak. Auek gurasoai ere garratz erantzuten zioten.

— Joxepa, ordea, gure etxean baiño obeto non bizi liteke? An ez luke ezeren paltik izango. Beste anka-luze orrekin, berriz, beti lanpean bizi bearko du.

— Bai. Kabia ona den. Baiña txoria...

— Gure Txomin, orrentzat aiña badala uste det. In-guru auetan dan mutillik mardulena ta indartsuena bada ura.

— Entzun berria diñat, nere senarrari sastakoa eman zioten arrats artan, anka-luzeak egundoko jipoia eman ziola ire semeari. Joxepak ondo zekin. Ikusi bai-zuen astakeri ura.

— Bai. Uste gabeko lana.

— Ondarrabia'ko erregiña den, ordea, nere alaba. Kantineira egin zuenetan, ez omen zala ura bezelako-rik. Gorputz ederrekoa, arpegi zoragarria, lirain, xerail ta luxaxta, tente-tentea, ibilleran bazirudien oiñik ez duela jartzen lurrean, irripar goxoa, ondo itzegiña, erax-korra. Aberatsa balitz, ez uken alako erregiñik.

— Kontuz, Kontxexi. Amak alabari emateko, ez al da goratzarre geiegia? Ama Birjiña ote da, bada, ori?

— Goratzarre oiek nere alabarentzat ez ditun geiegiak.

— Orduan, ori gure Txomiñentzat eskatzea, nor ausartuko da?

— Ik gure Joxepa pillakoa dala usteko den, eta zuen Txomiñentzat modukoa. Baiña ez. Arentzat gure nes-ka geiegia den. Dirua zegon bitarteko ta orrekin zer-bait berdintzen ditun. Alare, etzekiñat nondik asi. Gu-rea ez baiden diru-zalea.

— Ai, Kontxexi! Ontzako urre batzuen aurrean, ari ere biotzak jauzi egingo dio.

Neskaren amak berdiñik gabea aupatuko zuen. Mutillarenak ere bai berea. Oiek denen gaiñetik, berriz, aberatsa.

Joxepa etorri baiño len aldegingo zuen. Au etortzen zanean, amak berriz oni erasoko zion, mutillaren doaiak aupatuz. Anaia ezkondu zan ezkeru, ez baizeukan beste zer egiñik: itzegin.

Jostetik etorrita, alabak, arratsalde artan goiz xamar erdi jai zutelako, oso giro goxoa zegoen ezkeru, ama elbarria besotik artu ta eguzkitara atera zuen, koñatak bazeukan beste zer egiñik-eta. Atera ta bere lanetara abiatu zan.

— Orain nora oa? —galdetu zion amak—. Aspaldian ez diagu, len bezela, eguzkitan maitasunez itzegiten. Aita zauritu ezkeru, oso bakarti jarri aiz.

— Ez dakit bakarti jarri naizen. Baiña begiak zabaldu ta erne bai, ura il nai zuenak lan txar ori etzuen lapurretatik egin-eta. Ondoren bere asmoak ibilliko ditu, ta ez nuke sarean erori nai.

— Krispiñen beldurrak abil orduan.

— Nik ura maite det eta ez daukat aren beldurrik.

— Oraindik ez den aita mutil orrek zauritu zuela sinisten? Eguerdiko eguzkia baiño argiago zegon, bada, ori.

— Arek ez duela olakorik egin beiñepein, argi asko dago.

— Neri txori batek esan zidan, ezin litekela ura besterik izan.

— Ea ori esan zizunaren tartekoa dan eraso ziona.

— Gure alaba izateko, ume egoskorra aiz benetan.

— Ala deitzen didazute beiñepein. Bai ondo baitua eduki nai ere. Baiña kaska-gogorra banaiz ere, zuen enborreko ezpala.

— Orduan ni kaska-gogorra naun?

Joxepa, amaren betiko zirikaz aspertua zegoen. Ume bati bezela itzegiten baizion.

— Zedorrek esan dezu. Etziñake, bestela, kargatu ta tira orrela ariko, nere eskubideak zapaldu nairik.

— Arrazoi kaxkar ori eman dion, bada, ik amari.

— Zurearen erantzuna. Zure ezpaiñetatik amaika olako entzuna nago.

— Nik ez diñat, bada, ire ona besterik nai.

— Utzidazu orduan pakean, ta asmatuko dezu.

— Erantzun motzak ditun orratik gaurkoan nerretzat.

— Merezi bezelakoak. Ozkitua bainago. Bakarrik arrapatzen nauzun guzietan, beti zirika ta eskari bera.

— Krispiñek zauritu ziñan aita, ta ik oraindik ari jarraitzen dion. Ni ire zorionaren billa nabillen.

— Bai. Ala izango da. Ez didazu besterik jaulkitzen. Nik egunero egingo nuke lan au pozik, gaur bezela. Askotan, orregatik ez naiz etortzen.

— Amak aspertu au orduan?

— Nere enbidoak ez dijoaz ortik. Biotza naastu ta beti larri uzten nauen izkuntza dabilkizu, ta nik ere pakea maite det.

— Nere asmoa ez den besterik: aita il nai zuen orrengandik berexi.

— Eta maite ez detan bati saldu.

— Danik-eta txarrena izanta ere, ez den aita il nai zuena izango.

— Oraindik ori ikusteko dago. Nik, emen izketan ari geran bezin ondo dakit, Krispiñek ezin zezakela ori egin. Aitak aulkiarekin buruan jo ta odola zeriola joan zan etxera, eta andik goiza arte etzan atera. Bere arre-bak lagundu zauri-etxera. Amar puntada eman zizkio-ten an, zauria ixteko. Alare, arek jo gabe barkatu zion aitari.

— Lenengo entzuten diñat ori.

— Noski, ez dezute egirik jakin nai—ta.

— Orduan zertarako joan uan igesi?

— Ori berak jakingo du. Aita il nai zuelako ez bei-ñepein.

— Aitak ezagutu zuela esaten ez din, bada?

— Aita gezurretan ari da.


— Txorakeria badabilkin beiñepein buru ortan ga-lanki, aita ere gezurtizat jotzen den eta ire zalantzak egiak balira bezela kontatzen ditun-ta.

— Nai badezu, ama, apustu txiki bat egingo dizut: il nai zuen ori, zuen aiekatik azaltzen dala, ta ez guretik.

— Ik ez den amaren aolkurik entzun nai.

— Aolkuak bai; baiña indarkeririk ez.

Baratzan lanean ari ziranak etxe aldera zetozela na-baitu zuenean, Joxepa, ama eguzkitan utzita, bere la-netara joan zan nazkatua. Etzuen geiago aterako.



KRISPIÑEN ZALANTZAK

Krispin, berak zionez, denbora galtzen ari zala. Afrika'n bi urte galdu ondoren, andik etorri orduko lanean asi zan lengo talde zaarrea, denakin ondo konponduz. Etzuen beste munduko irabazirik. Baiña sos batzuk aurreratzen bai. Gero ezbear ori etorri zitzaion ta kito.

Ia iru illabete zeramazkien, iges eginta, beste aldean. An ere ezkutuan. Arrapatzen bazuten, ara eramateko beldurrak.

Ogei ta lau urte laixter beteko zituen, eta etzan xentimo baten jabe. Bere bizimodu bat artu nai luke mundu ontako etorkizunerako. Ori ere ez du garbi ikusten. Alde guzietatik eragozpen ta jazarmena. Ezin zezaken, bada, orrela luzaro iraun. Atzera edo aurrera egiteko etorri zan ordua.

Jan-truke zeukan osaba biotz gogorrekoari, esan zion zer asmotan zebillen.

— Krispin, ire egitekoa dek ori. Baiña ondo pentsatu al dek? Ez dik gero beranduegi damutzeak balio.

— Bizimodu au ere ez da, bada, goxo-goxoa.

— Ez. Baiña erabaki gogorra artu dek. Zuzentasun gutxi zebillek gaurko epailleen artean. Bein beren eskuetara erori ta lotzen baaute, baagoke puska baterako. Ez aute baitu bezin errex askatuko. Il nai zuen ura ziur nor dan jakin arte, an edukiko aute. Beti inoxenteren bat bear izaten ditek beren buruak txuritzeko, saiatzen dirala, alegia, erakutsi nairik. Olakoak dituk epaillerik geienak.

— Ori ala izango da. Kristau izena daramatenen artean ere olakoak gertatzen dira. Beste oietan zer esanik ez, baiña gutxitan. Zuk bezela pentsatzen det nik ere. Orregatik iges egin nuen. Ez daukat espetxean egoteko gogorik. Ni emen nenbillen arte, zerbait azalduko zala uste nuen. Baiña ez da ala gertatu. Au luzeegia dijoa, berriz. Ni ezin ninteke orrela bizi.

Osaba bere buruaren alde ari zan, berak zion epaille oiek bezin maltzur. Etzuen Krispiñek andik aldegitarik nai. Etzebillen illobaren onagatik. Berak aterpea, gorde-lekua ta mantenua emango zizkion. Beste gaiñerakoan, ezer ez. Jan-truke zeukan lanean, illoba bazuen ere, egunik utsegiten etzuen morroi langille bat bezela.

— Ni errugabea naizela jakitean, zertarako eduki bear naute espetxean?

— Galdeiok emen atzo egon zan aitonari. Urte bete osoa espetxean igaroa dek ori, salaketa guziak ukatu ta susmur utsagatik. Erria berekin zeukala gaiñera. Epailleari bakarrari komeni zitzaioken, eta zergatik? Ez baizuen kulpa zuena arrapatzen. Bitartean, antxe eduki gizarajoa, bere eziña estaltzeko, auzirik ere, beartua zegoen bezela, egin gabe. Errua zuena arrapatu zutenean, orduantxe biali ziteken.

— Bai. Olakoak gertatuko dirala, ez dizut ukatuko. Gizonak baidira oiek ere. Baiña guziakin ez al dute ori egingo.

— Len ere esan dit, ori ire egitekoa dala. Nai dekena egin. Baiña gaizkigillea arrapatu arte, ni ez niñuke emendik mugituko.

— Ni ezin ninteke, bada, orrela bizi. Nere etorkizuna galtzen ari naiz. Agian okerrago izango da nerezat. Baiña erabaki ori bete bear det. Jakiña, Guadalupe'ko Amaren bederatziurrena igaro arte, ez nuke oien eskuetan erori nai. Afrika'n egon nintzan bi urte aiek bestetan ez det utsegin. Ez nuke aurten ere nai. Bitartean, ni emen ibilliko naiz. Gaur etxera joan bear det. Baiña arratsean etorriko nauzu berriro.

— Len etzizkitek bost tiro sutu?

— Baita bitan ere. Arrapatzeak baiño, orrek beldur geiago ematen dit. Txapel okerre iges egitea ez da zaila. Arantz beltz oiei bai, ordea. Ez baidira ikusten.

Bisitatxo bat egin nai zien bere etxekoei, zer erabaki artu aiei aolkua eskatzeko asmoan.

Oraindik illun zegoen. Ez baizan illargirik azaldu. Baiña Ondarrabi argi-argi. Arraunean zetorrela, bere begiak aurrean zeukaten ikuskizun zoragarriak txundituta utzi zuen gure arraintzalea, benetan zalantzan bere biotza, aurrera jarraitu edo atzera ipar aldera egin. Emen askatasuna zeukan; bestean, berriz, katea.

Auzitegira joaten bazan, ziur bazekien lotuko zutela. Iges egin zuelako ere, askatasuna galduko zuela; ta, ainbeste etsairen artean, etzala errexa izango bere errugabetasuna agertzen. Eta ain zoragarria iruditzen zitzaiena, etzutela agian bere begiak ikusterik izango.

Bai tristea dala askatasuna galtzea! Afrika'n ikasi zuen ori Krispiñek. Gela txiki batean sartu. Gau ta

egun, atea giltzarekin itxia. Pusilla-pean. Goienean txulo txiki bat, burnizko sarez itxia, doi-doi aize-berritzeko aiñakoa. Ez dezu andik zero-puntta bat besterik ikusiko.

Baiña osasunez ta pakean bizi danarentzat, mundu onek badituela bere ordu lilluragarriak. Ori gertatzen zitzaion gure Krispiñi ere, gau-giro zoragarri ura ikustean.

— Mundu ontan bizi litekek, bai, ondo, osasuna izan ezker, gizonok nor bagiña -zion arraintzaleak, ametsezko zero batean sartu zala iruditzen zitzaion-ta.

Itxasoan arraintzan zebillenean, amaika aldiz ikusitakoa. Baiña etzion orduan alako kilimarik egiten. Aske baizebillen; ta ez, orain bezela, beldurrak eta dena galtzeko arraixkuan. Bere etxekoak ikustera lasai joaterik ere ez, len an ikusita txapel oker oiek bi aldiz eraso zioten-ta.

Ikuskizun eder ura arratsero berrituko zan. Baiña berak etzuen ikusiko. Gela estu batean galduaren ametsetan bizi bearko zuen.

Gau-giro bikaiña, itxas-ertz auetan askotan egiten zuen bezelakoa. Zerua izartua. Auek, berriz, keiñuka diz-diz zeriote. Ontzako urre bat, mendi atzetik aurretatu aiñean inguruak argituz, bazetorren illargia. Alako batean, gaillurrean sua piztu balute bezela azaldu zan, arratseko zeruko erregiña zirudiela. Bere aurrean, izarrak erdi itzali zituzten bere argiak. Lurra, berriz, esnatu.

Baiña illargiak ere, ematen zuena etzuen bere argia. Eguzkiak orren bitartez bialtzen zion munduari musu ori, urrengo goizean berriro etorriko zala, illunpean utzi zuen bere maitea poztera.

Illargia azaldu zanean, aldaketa ikaragarria egin zuen Ondarrabia'ko inguruak. Len illunpetan gordean

zeudenak, orain erdi ageri ziran, goitik argitsu ta azpitik itzalpean estaliak.

Jaizkibel ageri zan, urrun balego bezela. Bi konkor ikusten zaizkio, kamellu baten bizkarraren gisa. Baiña ez da Guadalupe'rik ikusten. Amute aldetik begiratu-ta, oso bestelakoa da mendia. Bere gaillurra berdiña. Ostatu zaarra argitan. Irratia dagoen alde ura ere bai. Bista-bistan dago andik Guadalupe.

— Biar asiko dek bederatzaurrena —zion arraintzaleak—. Ez dit orixe utsegin nai. Arrapatzen bannaute, bukatu ta gero izan dedilla.

Ondarrabi ere argitsu zegoen, bere baitan bildua, eliz-tantaia denen nagusi. Guda-arresiak ere, lengo ix-tilluen oroigarri, arkaitz bat bezela, erdi illunpean. Ondarrabi'rako bide guziak suzko sube baten antzera, argiak lerroan piztuta.

Itxasoa dantza ariñean bazebillela. Besterik ez. Geldi-geldia, illargitan margoz apaindua, bere eten gabeko eragiñean, ondartzan zaplaka gora ta beera.

Nabari zan gau-giroaren ezetasuna; intza-jario ari zala. Kaiak, berriz, neguak soildutako basoa zirudien: ontzi-agaz betea.

Erria lo zegoen pake-pakean. Baiña arraintzalea zan ezkerro, Krispiñek bazekien bere lagunak itxasoan zebiltzala, beren maiteentzat ogi-koxkor bana irabazteko.

Ori: dena zoragarria zan askatasunean. Bestela, negargarria. Abereei beren bizitasuna kentzen die. Gizonei zer esanik ez. Doai onenetako bat baita guretzat askatasuna. Bazekien, bai, Jainkoak, zer ematen zigun.

Ikusten zuenarekin lilluratua, Ondarrabi'ko ta Biarritz'ko erdian, itxasoan alegia, zalantzan dago gure mutil gaztea, atzera egin edo aurrera. Atzean askatasuna dauka, ainbeste maite deguna. Aurrean, berriz, seguru

asko espetxea, lenengo sarreran beifnepein. Gero agian... Erru gabea baita.

Askatasuna kendu ezkeru, ukulluan dagoen bei bat bezela geratuko da, besteren borondatera jarria, kaio-lako txorien gisa saretik triste mendiruntz begira, pertsona ez beste edozer.

Alare, bi arrazoi sakonak dauzka, askatasunaren atsegiña galduko badu ere: bere kulparik-eza ta Joxepa.

Askatasuna pertsona batentzat ederra dala, ez dago ukatzerik. Galdutakoan dakigu zer dan ori. Baiña ba-koitzaren izen onak ere balio du berea.

Ameriketa alde ortara iges egingo balu, denak bera artuko luteke Joxe Mariren erasotzaille bezela. Orain ala baidaukate askok.

— Erru gabea izan balitz, andregaiia emen utzi ta ez uan joango —esango zuten—.

Epailleak ere ez luke bein ta berriz bera arrapatze-ko aginduko, zalantza ori ez baleuka.

Etxekoak ere etzioten sinistuko. Ez-ta Joxepak ere. Baziteken Ameriketara ondo bizitzea. Baiña erriarentzat, ez bazan azaltzen, egitazko erruduna bera joko zuten, mozkorra zegoen aiton baten iltzaille bezela, ta bere errira biurtzeko eskubiderik gabe geldituko zan. Or zeukan zalantza: espetxea edo askatasuna. Zer aukeratu, urduri zegoen bere biotza.

Joxepa ere betiko galdu. Gezurtitzat edukiko zuen. Ainbeste urtez berari jarraitu ziolako lotsatua, eta bere gurasoei arrazoi guzia emanaz.

Ez du igesirik egingo. Bi arrazoi oiek indartsuak dira beretzat. Joxeparen ta bere kulparik-eza. Ta etxekoen lotsakizuna ere kendu.

— Datorrena datorrela, aurrera, Krispin! —esan zion ausarditsu bere buruari—. Aurkako ta aldekoak

jakin dezatela, ik ez diokela iñori olako azio txarrik egin.

Eta indarrean eragin zien bere arraunei. Kaiako ontzi artetik igaro ta betiko lekuan lotu zuen batela. Ta, erne bazterretera ta aurrera begiratu, igo zan mollera. Bein bidea igaro zuenean, lasaitu ere bai. Etzuten an txapel okerrak aixa arrapatuko.

Mendira sartu zanean, ametsezko inguma ura aztu zitzaion, etc. bere oldozmenetara bildu zan mutilla.

Inguruko baserri batean, txakurrak zaunkaka somatu zituen. Txapel okerrak ibilliko ziran bere atzetik. Bixi-bixi igota, jo zuen etxeko atea.

Ama atera zitzaion, gizonezkoak arraintzara joanak omen zirala. Bada ez bada, emakumeak besterik etzeuden etxean-ta, zabaldu baiño len barrundik galdetu zuen:

— Nor ari da ate joka?

— Zure seme Krispin nauzu —erantzun zion.

Atea zabalduz:

— Ongi etorria! Garai ontan zer abil? Ator, ator barrura, txapel oker oiek azaldu baiño len. Gau ta egun inguru auetan zebiltzak. Etzigutek pakerik ematen. Gu, berriz, i noiz arrapatuko edo zaurituko auten beldurrak. Goseak etorriko intzan noski.

— Ez. An apaldu ta txuxenean nator.

— Emen lo egiteko asmoan bai noski.

— Zuei bixitatxo bat egin beste asmorik ez dakart. Jakiña, emengo berri ere zerbait ikasi nai nuke.

Arrebak oartu ziran etorria zala. Bereala azaldu ziran sukaldera.

— Zer moduz beste alde ortan? —galdetu zioten.

— Egun guziak berdiñak dira neretzat.

— Emen ere, bada, ez dek aldaketa izugarririk. Joxe Mari, egokiera duen guzietan, ire aurka mintzo dek. Badakiela inguru auetan abillela. Baiña ez dakiela zeren billa. Len asitakoa bukatzeko asmoan edo..

— Urdea aleena! Gezurretan ari da ta badaki berak. Ura iltzera joan banintz, uste dezute bizirik utziko nuela? Dirua dabil or bitarteko.

— Joxepa ere zalantzan asi dek. Moja sartu edo gurasoetara makurtzea izango duela onena esan zidaken lengoan.

— Aske-askea da, ta ez naiz batere arritzen, aitak ori badio.

— Eta beti orrela ibilli bear al dek, balaren batek arrapatuko au-ta?

— Guadalupe'ko Amaren bederatziurrena bukatu arte, ez nuke nai.

— Txoratu al aiz?

— Ez daukat beste igesbiderik: edo an geratu edo epaillearengana azaldu. Zuek eta ni urduri gabilta, ta orduan pakea. Zuzentasunik bada, nik laixter bear det askatasunean.

— Joxepari esan nioken ire asmoa, ta ura ez dala azalduko esan zidaken.

— Or konpon dedilla. Bere buruaren jabe da.

BEDERATZIURRENA

«Euskaldun, fededun» da esaera. Baiña izana, zoritxarrez, ez. Gaurko egunean ez genduke ori esango. Alare, Ondarrabia'ko Guadalupe'n egiten dan bederatziiurrenak ez du oraindik erriaren eraxpenik galdu.

Egun batzuk lenagotik, inguruko baserritarrak, elkar artuta, Guadalupe aldeko gurdi-bide ta txigorrak garbitzen dituzte. Ur-bideak berritu, urak egindako sakanak berdindu, bide txigorretara zabalduak dauden larrak ebaki. Itz batean, joan nai duenari bideak erretu. Gaur oraindik ere au egiten dute, ta garai artan zer esanik ez.

Goizeko seiretan izango zuen asiera bederatziiurrenak: meza, aitortz, jaunartze ta guzi. Bertako kapelluari Amute'ko prailleak laguntzen zioten. Bostak eta erdietarako asten dira igotzen bikoteak motor ta berebilletan. Autobus bat ere jartzen dute ortarako. Inguruko baserritarrak, berriz, oiñez. Baita Ondarrabi ta Irun aldetik ere; badira oiñez igotzen diranak seietarako Guadalupe'ra. Goizero iru aldiz ospatzen dute bederatziiurren ori, meza ta guzi.

Bederatzi egun oietan, iru aldiz gaiñezka beteko da eliz ori, ta askok ez dute sartzerik izango. Euskaldun sinismena urritu bada ere, badauka oraindik jendeak bederatzaurren onentzako joera gogotsua.

Askok, lengo zaarrak, bai esango dute:

— Ez degu ori ukatuko.

Baiña bai gaztedia ere ugari, batez ere ezkongaiak, binaka-binaka, beren motoetan igotzen diranak, beren etorkizuna denon Amaren eskuetan jartzeko.

Ez da, batzuk usteko duten bezela, jolas bat. Naiz oiñez, naiz motoan dijoazenak, bein elizkizuna bukatzean, zortzietarako beren lantegira joan bearko dute. Krispiñen garaietan ere etziran gaur baiño otzagoak izango.

Au, beiñepein, bederatzi goiz oietan, seietarako Guadalupe'n azalduko zan. Bere batelean arraunean, alderik-alde, Bidasoa'ren itxasorako sarreran barrena, oraingo egazkiñen geltokian aurrera, andik bazterrik-bazter, izgora danean ibaia betean gora igotzen dan itxas-adar batean sartuko zan Amute aldera. Ango nekazari ta arraintzaleak beren kabarrak edukitzen dituzten lekuan utziko zuen; ta, bide txigor batzuetan gora, seietarako Guadalupe'n zai jarria, meza noiz asiko.

Elizkizuna bukatutakoan, igaroko zan itxas-adar artatik beste alderaiño. Bederatzi goiz jarraituetan orixe egingo zuen. Emengo berri ikasiak badakite txango pollita dagoela, batez ere atzera-aurrera egin bear dituenarentzat.

Amute'tik garbi ikusten da Guadalupe, bederatzi egun oietan argi-argi egiña.

Azkeneko eguna, jaia Ondarrabia'n. Joan Joxe, Joxeparen anaia, arkitu zuen meza asi-zai, elizan sartzeko.

— Kaixo, Joan Joxe! Ik ere gaur emengo aldi?

— Baiña, Krispin! Nola igo aiz onera?

— Oiñez, motell. Ez dit egunik utsegin. Amute aldetik igotzen nauk, gure etxe-inguru oietan txapel okerak nere zeletan ibilliko dituk-eta.

— Arritzekoa, motell, denak ire atzetik omen zebiltzak-eta.

— Dabiltzala, nai badute. Bederatziurren au bukatu arteko pakea utzi zidatek beiñepein. Ta emendik aurrera, arrapatzen banaute ere, etzidak batere ajolik. Bestela, neroni agertuko nauk. Orrela ezin nintekék bizi.

— Emen askok i jotzen aute errudun. Batez ere, nere aitak. Ziur badakiela i intzala zabaltzen ari dek.

— Baiña gezur kontari. Arek, iñor ikusi bazuen, ziur bazekik ez nintzala ni. Lo bazegoen, berak etzin iñor ikusiko. Potzolotarren dirua zebillek or. Orain arte ez nauk auzitegian agertu. Ez baizeukat espetxean egoteko gogorik. Bestela ere, ainbeste denbora ari nauk galtzen. Uste bainuen iru illabete auetan pekataria azalduko zala. Baiña nere ametsak ez dituk bete.

— Gure etxean ere etzegok pakerik. Bi aldeak ziri-ka ari zaizkiok Joxepari. Azkenean nazkatu ta amor emango ote duen beldurrak bizi nauk. Geronekoan, neroni ere asarre xamar geratu niñun Potzoloren amarekin. Egokiera duen guzietan, gure etxean. Itza ta putza besterik ez dion emakumea, ta urduri, nekatua, uzten dik.

— Joxepa beartzen badute ere, ezkontza orrek balioko al dik?

— Neri apaiz batek esan zidanez, ez.

— Negurako berogarria izango dik.

— Bai. Aundi ta gizenez bazeukak berea.

— Joxepa Potzalorekin badijoa, ni Beatriz bere arrebarekin asiko nauk. Anaia ez bezelakoa dek ura.

— Orrek bai zer pentsatua emango diola.

Auek izketan ari zirala, azaldu zan Potzolo bere amarekin.

— Ez diagu aipatu besterik egin ta ara non dato-
rren Potzolo bere amarekin.

Laixter ikusi zuten aiek ere Krispin. Baiña ixil-ixilik elizan sartu ziran. Arraintzalearen ukabillak Txomiñek uste baiño gatz geiago zeukaten. Ordua iritxi zanean, al zuen guzia barrura joan zan.

Ez dakit Krispin oartu zan, baiña bai Joan Joxe, Potzoloren ama elizatik atera zala.

— Billaukeria zetorrek emen —zion berekiko—. Ori, iñondik ere, Krispin emen dagoela txapel okerre-
abixu ematera ziek.

Elizkizuna bukatu zanean, atean jarriak zeuden bi guardiazibil, mutil gazteei banaka beren izen-abizenak eskatuz.

— Salatu niotek —pentsatu zuen arraintzaleak.

Ari ere eskatu zizkioten.

— Bai, bai. Ni naiz mutil ori. Nere billa etorri ze-
rate orduan.

— Bai. Epaillearen aginduz, i baitzera gatozik.

— Ondo dago.

Eskumuturrak luzatu zizkien. Lotu ta eliztarren be-
giratu txarrak beren atzetik zituztela, Potzoloren aurre-
tik igaro ziran. Onen amak esan ere bai:

— Ondo dabillenik ez ditek orrela eramaten.

— Ni salatzeo asmoan aterako ziñan noski eliza-
tik. Baiña ondo astea ez da aski. Bukatu ere ala egin
bear da.

JOXEPAREN ETSIPENA

Joan Joxe naigabetua etorri zan. Joxepari dena kontatu zion.

— Arrapatu dute orduan?

— Bai. Baiña bederatziurren osoa bukatu ta gero.

— Ikusiko degu orain zer gertatzen dan.

— Potzoloren amak salatu du. Alare, bera joateko asmoan zan.

— Laixter azalduko da, arek edo nere aitak, nork daukan arrazoi. Ni ez naiz arazo ortan sartuko. Nik utzi nuen ura.

— Ai, Joxepa! Ez dakit aitak, baiña bai zure mingaiñak gezurra diola. Zu goibel ta serio zabilta, ura ageri ez dalako. Oroi zaite arek zuregatik daramazkien ixtilluetaz. Garbi baletor, bada, ez desaidarik egin. Bestela, naigabez, baiña joan egingo zaizu; ta geiena zedorrek galduko dezu.

— Emen pakean bizitzezkeroz, ez daukat beste biderik: gurasoen esanetara makurtu.

— Leku onean uzten gaituzu orduan. Zure alde ainbeste lan egin ta gero, billaukeri au? Nik alegiñak egingo ditut, bada, emakume ori emendik bialtzeko. Orren eten gabeko berriketak kalte ikaragarria egiten dio gure amari.

— Etxea berena dute, ordea.

— Bai, nai badute. Baiña ama gurea da. Bialtzen bagaituzte ere, billatuko degu bizi-lekua. Oien diruak baiña naiago det amaren osasuna. Potzolok ere sarre-ra gutxi izango du emen. Goberna dezatela beren etxea.

— Zer nai dezu, bada, egitea, iru illabete auetan ikustera ere ez da etorri-ta?

— Ez al dakizu nola dabillen? Zuregatik gertatu zaio ori. Lenengotik gurasoei uka izan bazenie, onuzkero dena konpondua zegoen. Etzenduke ura galdu nai, baiña ez dirua ere. Olaxe dabil zure biotza. Gaiñera, ura etzaizula etortzen? Nork ditu kulpak? Karmenen bitartez abixu txiki bat etzizun biali, nik ikasi detanez, egu-nero etorriko zala bederatziurrenera? Zergatik etzera azaldu? Edo ura, balazoren batzuk artzeko arraixkuan, etxera agertu bear zaizu? Zu lasai, ta neke guzia arentzat. Goxoak jarriko dira beste anaia ta koñata ere, auzia irabazi ta gero au egiten badiguzu.

— Izen gaiztoa artzen ari du etxe onek, eta nik ere bai, txakur guziak emen dabiltzala entzuna daukat-eta.

— Ez dezu askoz ohea artuko, bat espetxean sartu erazi ta bestearekin ezkontzen bazera. Ortara jarri zeran ezker, ez dizut sinisten. Oraindik itz erditxo bat ez diot iñori entzun zure aurka. Zoritxarrez, diruarekin erosi zaituzte. Beste oiek guziak ez dira aitzakiak besterik. Ondo dago. Zuk aukeratu bear dezu ta or kon-

pon. Len pakerik ez degu. Ez digu orrek ekarriko — esan ta naigabetua aldegin zuen andik anaiak.

Samindu zan Joxepa. Bere anaiaren babesa ere galdu zuen orain. Beste bi edo iru aldiz alegiñak egin zituen anaia bereganatzeko. Baiña arek etzuen ortan konponketarik nai.

— Oso-osorik zuk egitekoa da. Nik ez daukat or zer ikusirik. Len ere esan dizut. Zuregatik or daukazu mutila espetxean, eta zu beste batekin ezkontzera. Berriz ere esango dute txakur guziak eman dabiltzala ta denak iruzurtzen dituzula. Deabrua bera sartzea naiago nuke gure sendi artean, fameli ori baiño. Ez nuen uste, Joxepa, orren bat-batean aldaketa ori egingo zenduenik. Etxean len gaizki bageunden, orain okerrago geratuko gera.

Krispiñen arreba ere oztu zitzaion. Ordurarte ura ta bere anaia, ta onekin batera koñata benetako babesak izan zituen-ta.

— Baiña ni ezin ninteke orrela bizi. Gurasoak beti gaizki esaka ari zaizkit.

Lenbailen komeri oiek bukatu ta etxetik aldegittea pentsatu zuen. Gurasoekin beiñepein ondo etorko zan gerora ere.

Bazkari batean, bada —ordurako denak bazekiten zer erabaki artu zuen—, denen aurrean azaldu zuen bere asmoa: etzuela oso gogozkoa, baiña eskeiñitako mutil arekin ezkontzeko prest zegoela. Ea bein pakea etorzen zan etxe artara.

— Bejondeiñela! Noizbait igarri al dion, guk ez degula ire ona besterik nai? Ez den ire etorkizunerako proportzio oberik arkituko. Aitak eskeiña egin zuenean ori esan bauanen, ez itunan ixtilu auek etorriko — erantzun zion amak.

— Gizon-iltzaille batekin baiño, obe den orrekin. Mutil orrek beste aitzakirik etzeukan: gizenegia dala. Beste gaiñerakoan, gorputz ederrekoa den. Bestearen sastakoak etzidan on aundirik egin. Zerbaiten zital gaiztoa sartu zidaken barrura, axaletik sendatua zirudik baiña —zion aitak.

— Gaiñera, ez aztu aberatsa dala —amak.

Joan Joxe ta koñatak etzuten itzik trukatu, ta amak ala galdetu zien:

— Eta zuek zer diozute?

— Jokoak, batek irabazi ta besteak galtzeko izaten dira. Oraingoan guk galdu degu. Neregatik, egin nai dezutena. Baiña utzi guri pakean.

— Orduan ez uke, arreba orrekin ezkontzerik nai?

— Garbi-garbi esango dizutet: ez.

— Ez aiz noski galerazten asiko?

— Ez naiz zuek bezelakoa. Berak ala nai badu, ni ez naiz sartuko. Nai nuenarekin ezkondu nintzan ni ere, eta ez daukat damurik. Baiña oiek gure senide artean artzea baiño, naiago nuke edozer. Nere arreba bakarra asko maite det, eta ez nuke denbora joan ta damutua bakarka ikusi nai negarrez. Baiña garbi-garbi esaten dizutet: arratsaldero onera datorren atso orrek, emengo txangoak laixter bukatuko dituela. Goberna zala bere etxea. Arratsalde guzian, zer atera erazi, denegatik maxiaketan, kalte egiten dio amari. Egunen batean ikara-

garriak esango dizkiot. Bizitzeko ez degu orren diru bearrik.

Bazkaria bukatu zanean, aldegin zuen andik anaiak. Joxepak alegiñak egin zituen arekin itzegiteko, baiña etzuen arkitu.

AUZITEGIAN

Krispin arrapatu zutela ikasi zuenean, poztu zan epaillea. Iru illabete aietan esku artean zebilkien arazoa, orain garbituko zuen.

Arentzat etzan beste errudunik: Krispin. Agian, andregaiak zirikatuta. Lenengo entzun zuen ezkerro, oien bien lana jotzen zuen. Baiña jaiak igaro arte etzan asi.

Krispiñek egun batzuk bazeramazkien espetxean. Illabete bat igaro zuela iruditzen zitzaion. Urteetan lotuta daudenak, zer inpernu ote daramate?

Zoritxarrez, bera azaltzeko asmoan zebilela arrapatu zuten. Bazekien orrek kalte egin ziola.

Noizbait deitu zuten. Lotuta, bi agoazillen erdian, azaldu zan auzitegira. Bein ara ezkerro, askatu zuten.

Bere lekuan exeri araziz eta izen-abizenak idatzi ondoren, asi zitzaion galdezka. Len ainbeste aldiz Joxepari egiñak geienak.

- Noiz ezagutu zenduen Joxepa?
- Nik emezortzi urte nituela, ta arek amabost bat.
- Non eta nola?
- Ura esneketaria zan, ta gu artzailleak.
- Eta gero noiz zapuztu ziñaten?
- Zapuztu, egundo ez.
- Berdin noiz elkarrekin ibiltzeari utzi zenioten?
- Ni Afrika'ra joan nintzanean.
- Azken alde ortan etzebiltzatela elkarrekin aitor-tu zidan neskak.
- Bai. Ori egia da. Bere gurasoak nerekin ibiltzen galerazi ziotelako.
- Eta ori zergatik?
- Gurasoen arrokeria. Aberatsagoko batekin ez-kondu nai dute-ta.
- Ura beste batekin ikusita, amorru emango zizun?
- Ni ez naiz oietakoa. Ez badu nerekin nai, bijoa. Eun da ogei ta amar kiloko mutil potzolo batekin ikus-ten nuen azken aldi ontan. Exerita mutilla lo, ta neska okertua bere ondoan.
- Ez da ori nere belarrietara iritxi dana. Aren atze-tik zabilzala ta arek baduela berea.
- Orixe bera esan ez dizut, bada?
- Joxeparen erantzunak emen dauzkat, eta etze-niola pakean uzten esan zidan.
- Aske-askea da berak nai duena esateko, gaizki egiten duela jakinta. Iru urte auetan ia ez det itzegin berarekin, eta ez dakit aldaketa oien berri. Baiña ez det sinisten arek olakorik esan dizunik.

— Ezagutzen al dezu bere aita?

— Ezetz banio, gezurra esango nuke. Baiña oso gutxitan itzegin.

— Artu-eman geiago gabe, nola asarretu ziñaten ainbesteraíño?

— Mozkorra zegoen. Egundokoak esan zizkidan. Baiña ez nintzan asarretu.

— Etziñala asarretu, bidera iltzeko asmoan atera ziñan-ta?

— Epaille jauna, kontuz neri olakorik esan. Ez det oraindik ezer aitortu, ta ori nik egiña dala ez da jαιο.

— Denen susmurra ori da.

— Ez da ori ere egia. Gure auzoan ez du ori iñork ere sinisten.

— Joxe Mari zaurituak, ziur badakiela zu ziñala esan zidan.

— Bai. Ori entzun det nik ere. Baiña gezurra dio. Arek etzuen an iñor ezagutu, agian lo egongo zan-ta.

— Baiña ori zuk diozu. Ez daukazu ezezteko lekukorik.

— Eta arek bai al dauka, berak diona egia dala agertzeko? Nik ez dakit. Tabernatik atera nintzanean odol-jario, ura, mozkorra, an zebillen bazterrik bazter denak naasten. Ni txuxenean etxera etorri nintzan.

— Odoletan? Zer egin zizuten, bada?

Tabernan gertatu zan dena, txeetasun guziakin, kontaktatu zion. Amabietan oraindik zauri-etxean zegoela.

— Amar puntada eman zizkidaten. Etxekoak eta sendagilleak, denak ditut lekuko, nai badiezu galdetu.

— Orduan, zuk aren bidera ertetzeko etzeneukan astirik.

— Orri zuzen erantzuten zailla da. Baiña ez naiz orren eroa. Ixtillu oiek guziak igarota, nola joango nintzan berriz mendira, arrapatuko nuen edo ez jakin gabe?

— Txomin ta gurasoak ere zure salaketa egiten dute.

— Jakiña, oiek dituzte orko ixkanbilla guzien erruak. Oiek diruz atzipetu dituzte Joxeparen gurasoak. Oietako bat il balute, ni susmurgarriago izango nintzake, Joxe Mari ilta baiño. Gizarajo bat besterik ez da ori.

— Zuk ez dezula olakorik egin, zertan joan ziñan orduan iges?

— Nagoen lekuan ez egoteagatik.

— Eta ez al zenekien, ori zuretzat okerragoa zala? Orrela susmurgarriago geratzen ziñala?

— Uste bainuen arazo au laixter bukatuko zala.

— Zure borondatez azalduta ere, ezin ote ziteken ori garbitu?

— Zer uste dezu: ni errudun izan banintz, Guadalupe'n arrapatuko niñutela? Nai izan banu, andik ere iges egingo nuen. Jende artean naastea aski.

— Ondo dago. Besteren batean deituko zaitut.

— Orduan berriro espetxera joan bear det?

— Au garbitu arte, bai.

— Eskerrik asko. Ori al da zuen auzia? Iges egiteko ez neukan arrazoi makala. Nere etorkizuna ondartzen ari zera. Ta zuk, gutxi gora-beera, badakizu ez naitzela ni. Ez naiz batere arritzen, espetxeetatik, zuzendu bearrean, gaiztoagoak eginda ateratzen dirala.

Gure Krispin espetxera eraman zuten. Baiña epailea illunpean gelditu zan. Mutillaren iges-bideak garbi-garbiak ziran. Etzegoen estaltzerik. Arraintzaleak ezin zezakean noski lan ori egin.

Berriro banaka-banaka deitu zituen, zerbait atera araziko ziela uste zituen aiek. Baiña alperrik. Ez, ordea, Krispin askatu ere.

Karmenek, Joan Joxek esanta, bazekien Joxepak egin zuen aldaketa. Alare, anaiaren berriak eman zizkion: epailleak etzekiela zer egin; etzala ori noski Krispiñen lana izango; baiña dirua zebilela or bitarteko.

— Nik ez diñat berdin pentsatzen. Oraindik zalan-tzan negon, eraso ori bere lana izango dala noski.

— Ori, Joxepa, izketan ari geran bezelaxe ezetz. Epaillea ere or galtzen den: ezin zezakeala arek lan ori egin. Orrela pentsatzen baden, ez dion on aundirik egingo zuen elkar-maitasunari. Orain bear din arek gure laguntza.

— Laguntzea etzegon gaizki. Nik aspaldi utzi niñan ura. Ez naun aren itxaropenetan bizi. Beste bide bat bi-llatu bearko diñat.

— Ai, Joxepa! Ezagutzen aunat. Mingaiñez ala dion, baiña ez biotzez.


— Bera ere, aspaldi ontan bere modura bizi den.

— Utzi zaiogun orri. Orduan, Potzalorekin ezkon-tzeko asmoak ditun.

— Aren zai ezin egongo gaitun.

— Neri berdin-berdin zaidan. Ori ere mutilla den, ta ez nolanaikoa. Baiña bazekiñat bere lekutik aterata-ko ezurrak bezela geratuko zeratela ura ta i.

Onekin bukatu zuten beren elkar-izketa. Andik aurrera ere, lagun maiteak bezela jarraitu zuten bi nes-kak. Baiña geroztik etzion Karmenek anaiaren berri-rik eman. Ez-ta aipatu ere aren izenik. Bazekien, ordea, aren berri jakiteko zoratzen zegoela Joxepa. Ez-ta onenik ere bere anaiari. Bestela etzion onek geiago ar-pegira begiratuko ere.



MOLDAKETAK

Joxeparen baietza jakin zutenean, neska-mutillen gurasoak zoramenez ekin zioten, lenbailen eztaiak ospatzeko asmoan. Anka-luzea aske etortzen bazan, ainbeste urtean bere lagun izana beste batekin uztartua arkituko zuen.

Lenengo lana, bikarioari adierazi pregoiak egiteko. Iru igande jarraituetan egiten zan ori elizan: ezkontzeko ezeren eragozpenik bazeukaten, bikarioari abisatzeko.

Egin ziran. Baiña etzuen iñork ori galerazteko gogorik. Bi aldeak ala nai bazuten, or konpon zitezela.

Jantziak ere, bikoteari tokatzen zitzaion bezelakoak egin bearko ziran. Joxepari esan zioten auzoak, aiek ordainduko zutela. Baiña uko egin zien. Berak, beste iñori eskatu gabe, bazeukala ainbeste, diruz erosi zutela esan etzezaten.

Auzoan, ordea, ori zebillen. Diruak egin zuela dena. Mutil bat beragatik espetxean zegoela, beste batekin ez-

kondu. Orregatik gaizki itzegiten zuen jendeak. Baiña Joxeparen belarriak itxiak zeuden.

Afrika'ra zijoala, ala esan zion neskaren lengusuak:

— Bai. Larros ederra dek. Baiña atal lilluragarrien artean arantzak ere ez al ditu edukiko?

— Nik oraindik ez dit olakorik somatu —erantzun zion Krispiñek.

— Beti berearekin atera bear duen oietakoa dala entzun izan diot norbaiti.

Orain azaldu zituen belarriak. Ordurarte maite izan zituen aolkuen gaiñetik, berea egingo zuen.

Orregatik, espetxean zegoen mutillari ere esan zioten etxeakoak, nola egun aietan Joxepa ezkontzen zan Potzolarekin.

— Presaka dabil, laxter etxera bialiko ote naun esan zidan epailleak-eta. Ezin zitekela ori nere lana izan. Baiña ederki egingo du. Ezin ziteken nere zai egon. Gaiñera, nerekin beti beartsu bizi bearko zuen. Orduan, galdu degu jokoa. Nork esan bear zidan neri, amasei urteko mototsak txikortan garrondoan beera zebilzkien azpildurik gabeko neskatz zoragarri aren maitasuna ortan bukatuko zanik? Izan ere, ainbeste eragozpenen artean... Nere itxilluak ez dute asko balio. Nik begiondoak eman nion Potzolarekin ezkontzen da, beraz,...

— Baiña, diotenez, amaika negar egiten omen dik ixillean.

— Ori aurretik. Ondorena ez du goxoagoa izango. Potzolo ez da normala. Joxepa kaskagorra zala esan zidan norbaitek. Potzolo, berriz, ero gaizto oietakoa. Egunen batean, aren eskuetan bukatuko ditu egunak. Negurako, alare, berogarri polita.

Ezkontzera zijoana naigabetan, espetxean zegoena berdin, zorigaiztoko dirua maitasunaren gaiñetik jar-tzen dutelako.

Egun ori etorri aurretik, oso damutua zegoela esan omen zion koiñatari. Zenbat eta urbillago, orduan ta larriago. Berak aukeratu zuen, ta oso zailla zan atzera egiten. Ia negarrez eskatu zion laguntzeko egun ortan.

— Joxepa, oien borondatera makurtu zera, bai, ta or daukazu aita.

— Ura agian mozkorra ere joan liteke, ordea.

— Neretzat ere lotsakizun gaiztoa izango litzake ori, ta ez nauzu an ikusiko. Orain zuk aiñako naigaberik ez dit aspaldi ontan iñork eman. Ijito batekin ezkontzen ziñala esan bazenidan, lagunduko nizun. Baiña au umilgarria da gure famelirako. Diruagatik ezkontzen zerala diote denak. Baserria ematen badigute ere, polliki-polliki ordaindu egingo degu. Ez gera oien morroi bezela geratuko. Atso orrek lau aizeetara zabalduko du zer eman diguten. Egun ona igaro ta izan zorionekoa. Ala opa dizut. Baiña nik lagunduko dizudan itxaropenik ez izan.

Negarrez aldegin zuen andik Joxepak. Anaiak benetan arrazoi zuen. Bera andik joango zan ta etxeakoak lotsagarri utziko zituen. Pauso txar ori eman zuen eta etzekien nola bukatuko zan. Gero ta larriago zegoen.

Karmeni ere eskatu zion, bere eztaietara konbidatuz.

— Biotza negarrez zeukanat iregatik, Joxepa. Baiña ni ez naun iñauterietara joango.

— Iñauteriak dion? Bai, noski. Arrazoi den. Itxura ohea emango diñagu gu biok aldarean.

— Krispiñen aldetik, berriz, zorionak. Ala opa omen dizkin. Berarekin edo besterekin, ez daukala iretzat gorroto-izpirik.

— Agon ixilik. Etzaidan olakorik esan. Bestela ere, naiko larria bazeramat.

— Jakiña, maite denana kabalozan utzi ta diruagatik bestearekin ezkondu nai den. Ori ikaragarria den bere etorkizunerako. Eta beste berri bat, ona neretzat, iretzat etzekiñat: egun auetakoren batean askatuko duten itxaropena daukala.

— Eta noren lana den ori?

— Iñondik ere, ire alde dauden oietakoena.

— Leku onean sartu naun orduan.

— Presaka ibilli aiz-ta. Krispiñek gaiñera au esan zidan: i ezkondu baiño len ateratzen bada, an izango dala eztaietan.

— Karmen, agur. Ezin diñat geiago.

Etorri zan ordu ori. Joxepak etzeraman aita beste laguntzarik. Potzolok, mordoska polita.

Serio-serio zegoen Joxepa, oso naigabetua, bere aita-ren ondoan. Etzirudien ezkontzera zijoanik.

Denak, ordurarte, ezkontzera zijoan neska pinpilin-pauxa bezela, alai ta zoriontsu ikusi izan zuten. Orain, berriz, agiña ateratzera balijoake ere baiño larriago.

Potzolok bazeukan par-irudi pixar bat. Baiña, jendeak zionez, oiek etziran ondo elkartzen ziranak. Norbaitek beartuta egindako ezkontza zala ura.

Potzoloren gurasoak zoriontsu zeuden. Azkenean iritxi zuten beren etxerako errain eder, osasuntsu ta langille bat. Zerbaiten bearra bazeukaten.

Joxe Mari, neskaren aita, ezin zan bere praketan ka-bitu, alaba eder ura laxter aberats batekin ezkonduko zala pentsatuz.

Giro ederra zegoen; eta gain artatik dagoen ikuskizunari begira, eztaietara noiz deituko zai zegoen jendea.

Bitarte ortan, Potzoloren aita ikaragarriak esaten ari zan Krispiñen aurka: Joxe Mari iltzera erten zitzaiola, ta orain an zegoela espetxean, egindako pekatua aitor-tuta, laixter auzia egingo zioten zai.

— Pixka bateko itzala emango al ziotek beiñepein. Bestela, bere andregai izana iltzera ere laixter abiatuko dek ura. Bai. Etzidaken nolanaiko sastakoa eman, eta ez dit uste oraindik ondo sendatu zaidanik. Baiña kor-dea joan baiño len, garbi-garbi ikusi nin. Bai ezagutu ere.

— Zein zan mutil ori? —galdetu zuen batek.

— Guadalupe aldera askotan igotzen zan arraintzale anka-luze bat.

— Krispin izeneko ori? Askotan ikusten nin alda-pa auetan gora. Etziot iñori ezer kendu ta ematen. Bai-ña gazte argia ta jatorra iruditzen zitzaidaken beti. Oraingoa baiño milla aldiz egokiagoa uan ura neska orrentzat. Ez al zion norbaitek buruan zauri gaiztoren bat egin?

— Bai. Antxen niñun —neskaren aitak.

— Eta zergatik ori?

— Orain ezkontzera dijoan mutil potzolo ori jo zue-lako. Bai. Guadalupe aldera askotan etortzen uan. Bai-ña ez Ama Birjiñari otoitz egitera, nere alabaren atze-tik baizik.

— Ez dek berriz puska batean igoko. Ondo zegok dagoen lekuan.

— Andik ateratzen bada, ea besteren bat josten duen.

— Guardiazibillak aren atzetik ibilli arren, bedera-tziurrena oso-osorik egin zuela ere norbaiti entzun diot. Goizero Prantzi'tik etorrita gaiñera. Alderago biziaga-

tik, ea guretako iñork egin duen beste orrenbeste. Bakarren batek salatuta emen arrapatu zutela. Ura or balego, beste itxura bat emango likek bikote orrek. Diruz erositako ezkontza.

Joxepak ez entzuna egiten zuen. Baiña arraintzaleagatik arrazoirik gabe gaizki esaka ari ziralako, naitzabetan zegoen.

USTE GABEKOA

Krispin larrutzen ari zirala, bada, iritxi zan elizan sartzeko ordua.

Joxepa goibel zegoen oso. Aurreregi sartu zan ta orain ezin atzeratu.

Neska-mutillak, ezkongaiak alegia, jarri ziran ortarako moldatua zeukaten lekuan, dotore jantziak. Joxepa txuriz, neurri-neurrikoa, ia oiñak ere estaltzen zizkiola, dotore zegoen. Erregiña zirudien. Mutilla jazteko ere etziran, bada, kastu-beldurrak ibilli. Baiña len norbaiti entzuna: meta-ziria ta meta ziruditela.

Beren jaun ta amandreak ere erne asko an zeuden, beren egin bearrak ondo betetzeko.

Batzuk eskubitan, besteak ezkerretara, atzean jende gutxi. Ezkongaiak etziran ezagunak.

Meza ta guziko ezkontza. Apaizak, ezkondu baiño len, itzaldi goxo bat egin zien, beren kristau bezela bete bearrak nolakoak ziran adieraziz.

Aldaretik aiek ezkontzera jeixterakoan, bertako serorak apaizari ixilka itz batzuk esan zizkion belarrira.

Au benetan larritu zan; eta, goibel, ezkongai ta ango jendeari begiratur, ala itz egin zien:

— Bi gazteak ezkontzeko, uste gabeko eragozpen bat badegu.

Denak arretaz, zer ote zan jakiteko, jarri zitzaizkion entzuten.

— Eta, jarraitzezkeroz, zuen baimena bear degu. Batez ere ezkongaiena. Atean dauzkagu bi guardiazibil zai. Elizkizuna bukatu arte itxogingo digutela esan digute. Baiña neska-mutillak ez badute nai, ezin gentzazke ezkondu.

— Ea au dan nere salbazioa —zion berekiko Joxepak.

— Domingo Arozena espetxera eramateko agindua artu omen dute. Jarraitzea nai badezute edo ez, ori da nere galdera.

Bonba bat bertan lertu balitzaie ere, etzituen geiago larrituko. Denak buru-makur. Txomiñen gurasoak eman zuten lenengo erantzuna.

— Ontaraiño geran ezkeru, ezkon ditezela.

— Eta zuk nai dezu, Txomin?

— Bai, jauna —esan zuen triste—. Gurasoen naiera nago ni ere.

— Ori da. Ezkon ditezela —esan zuen Joxe Marik ere, bere itxumenean alabaren zorionari asko begiratu gabe.

Ori entzun zuenean, Joxepari biotzak buelta eman zion:

— Auxen dek nere ordua!

— Eta zuk nai dezu, Joxepa?

— Espetxera daramaten batekin ez, jauna!

— Orain edo gero, zer ajola din?

— Ez, aita, ez! Orain arte makurtu naiz zuen borondatera. Baiña emendik aurrera ez. Len ere indarrean nakarzute ni onera.

Itxututa etzeuden guziak, arrazoi eman zioten nes-kari. Orduan oartu ziran beartuta zeramatela arekin ez-kontzera.

Denak bertan aoa bete ortzekin utzita, etxera eto-rrri zan laixterka Joxepa. Potzoloren urbillekoak ez bes-teak, ontzat eman zuten neskaren erabakia.

Elizatik ateratzerakoan:

— *¿A dónde vas, guapa, tan de prisa?* —esan zio-ten guardiazibillak—.

— *¡Gracias por todo!*

Ta laixterka aldapak bera artu zuen. Ezkongai ba-tek aldegin ta bestea, berriz, lotuta eraman, orra mol-datzen ainbeste kostatako eztaiak.

Bazkaria enkargatua edukiko zuten eta gogoia zu-tenak ara joango ziran. Joxe Mari beiñepein ez omen zan egun guzian azaldu.

Joan Joxe baratzen ari zan lanean, eta ara or rfon ikusten duen bere arreba, aingeru bat bezela txuriz jan-tzia, laixterka aldapak beera zetorrela.

— Iñauteriak ote ditugu?

Ez baizuen ezagutzen oraindik. Urbildu-alean asi zan antz ematen.

— Ea ori Joxepa dan!

Gero garbi ezagutu zuen, etsaiak atzetik balitu be-zela, laixterka bizian, bere soñeko ta oiñetako eder aiek

ondatzeko beldurrik gabe, galbariotik iges. Ondo eza-gutu zuenean:

— Ez diagu gauz onik!

Erlojuari begiratu zion ta amaikak eta amar.

— Amaiketan ezkontza, orrek iges egin dik. Goxoak geratuko itun besteak. Orri gogozko etzaion zerbait gertatu dek goi ortan. Bejondeiola! —zion—. Bere esku-bideak eskatu besterik ez dik egin.

Bere aurretik igarota, etzuen anaia ikusiko noski, txuxenean etxean gorde zan.

— Indarrean eramateko asmoan iñor badator, jo atxurrarekin ta burua autsiko ziot.

Eta bere lanean jardun zuen. Zer gertatu zitzaion jakiteko, bazeukan oraindik naiko beta.

Bazkaltzeko garaian etorri zan anaia. Baiña Joxeparik etzan azaldu. Etzion iñori esan, bere naigabea malkotan urtutzen bere gelan egongo zala-ta.

Bazkaltzera bildu ziranean, bi gazteak serio zeuden. Amak, berriz, arro-arro:

— Amaika etsai bagenizkin. Etxekoak okerrenak. Baiña onuzkero, alai ta zorionsu, gure alaba an ariko dek bazkaltzen. Gurasoak zizkin arek lenengo.

— Ortan, ama, arrazoi dezu: gurasoak maite bear ditugula. Baiña alaba alai-alai bazkaltzen ariko dan itxaropenik ez daukat nik.

— Alaituko dek oraindik, diruaren paltik ez dik izango-ta.

— Oien diru-putzua ere ez da uste aiñakoa.

— Gurasoen naiera makurtu dek beiñepein, ta arek egin dik berea.

— Bai. Arrebak egin du berea. Etzuen nai, ta ez da ezkondu.

— Ik nola dakik ori? —galdetu zion amak urduri.

— Ikusi detalako.

— Guadalupe'n al intzan, bada?

— Ori jakiteko, ez nuen Guadalupe'ra joan bearrik.

— Ez dek, motell, errex, zer esan nai diguken uler-tzen —zion amak asarre.

— Garbi asko esan det, bada, Joxepa ez dala ezkon-du. Amaiketan zuten; eta andik amar bat minutura, ain-geru bat bezela txuriz jantzia, aldapa ortan beera laix-terka datorrela ikusi det. Gelan egongo da noski.

— Jesus! Ori ere badegu? Egitan ari al aiz?

— Bai, ama. Nik ez det gezurretan ikasi.

Bi emakumeak arrituta geratu ziran. Baiña gaztea pozez, ta zaarra amorrus.

— Deitu iozute, ea zer esaten digun.

— Utzi oraindik lasai, ama. Etorri ez danean, ez du naiko. Ez da umea, belarritik artu ta ekartzeko.

Baiña bereala bera azaldu zan, bai-baizekien kapea ta goxoki batzuk ere bazirala, Potzoloren amak eguna ospatzeko ekarriak, alai-alai ta zoriontsu.

— On egin dizuela.

— Bai iri ere. Zer gertatu zain? Orain ere erea egin den —eraso zion amak.

— Amaika alperrikako errita egiten dezu egunaren buruan. Gertatu danaren berri jakin gabe, ezin liteke iñor ortara asi.

— Zer atarramentu izan dezu, bada, aldapa beera ala etortzeko? —anaiak.

— Potzolo guardiazibillak lotuta eraman dutela, ta bakarrik geratu naizela.

— Eta ezkondu ta gero ezin al zezaketen eraman?
— asarre zion amak.

— Ori nai zuten nere aita, Potzolo ta bere gurasoak.
Nik ez, ordea.

— Ederki egiña! —oiu egin zuten Joan Joxe ta koiñatak.

— Baiña laixter ateratzen bada, ezkontzeko asmoan geratuko intzan.

— Iñauteriak aspaldi pasa ziran, ama.

— Arritzekoa den ire joera. Birekin asi ta biak espexera biali. Edozein arrimatzen den orain ire ondora.

— Ori dena gurasoen anka-sartzeak ekarri du —
erantzun zion semeak.

Amak, ori moztu ta beste galdera bat egin zion:

— Eta zergatik eraman duten badakin?

— Ori ez. Baiña, Karmen Krispiñen arrebak esan zidanez, au egun auetakoren batean etorriko dala aske, epailleak dionez. Ura ezin liteke izan. Zorionak biali zizkidan ezkontzen nintzalako. Etzeukala gorrotoizpirik; eta, lenago etortzen bazan, nere eztaietan an izango zala. Arraintzalea olakoxea da.

— Orduan nork egin bear ziñan ori?

— Arek ez beiñepein. Eta, au espexera eraman dutenean, orregatik izango ote dan...

— Susmur txarrak besterik ez dituk oiek. Potzolo ez dek olakoa.

Amak etzuen ortaz itzegin nai. Baiña sumindua geratu zan, alaba berearekin atera zalako.

— Ai, Joxepa! Ederretik libratu zera —esan zion anaiak.

— Zergatik diok ori? —amak.

— Aita il nai zuenarekin ia ezkondu zala. Orain sartuko da etxe ontara pakea.


— Orrek il nai zuela? Ik dena badakik.

— Atso ori beiñepein ez dedilla orrela ibilli emen. Orrek kalte egiten dizu, zearo naastuta uzten zaitu-ta.

Ortan bukatu zan bazkaria: iru gazteak eztaietan eta ama asarre.

Baserrian arritu baziran, etzan Krispin gutxiago egin, bere etsaia espetxean ikusi zuenean. Potzolo, alajainkia, berari lagun egitera! Baiña besteak aldegin zuen.

Ea bera zan aita iltzera joan zana... Joxepa etzan ezkonduko, bai, eta an egindako lagun batzuekin pelotan jarraitu zuen. Baiña alai, laixter aterako zan itxaropenetan.



BAZAN ORDU

Jostundegitik ateratzerakoan, ango bere lagun batek ala esan zion Joxepari:

— Neska, birekin asi aiz ta biak espetxera biali ditun. Edozein urbiltzen den orain iregana.

Arrazoi kaxkarra. Amak ere ori bera esan zion.

Goibel, naigabetua ta asarre zijoan, bada, Joxepa bere oldozpenetan lotua.

Bere atzetik bixi-bixi aldapak gora zijoan norbait, bizkarrean ukuituz, onela agurtu zuen:

— Agur, Joxepa! Bazoazela...

Begiratu ta agurtu zuena nor zan ezagutuz, alaitu zitzaion arpegia:

— Krispin! —erantzun zion atsegiñez.

— Bai. Alaxe naiz, bada.

— Aske zatoz orduan?

— Bai. Aske ta esku garbiakin. Bion izen ona dakart nik auetan. Epailleak gure susmurra baizeukan. Etzenduen usteko berriz nerekin topo egiterik.

— Laixter askatuko ziñuzten itxaropenak eman zizkidan Karmenek. Baiña ez nuen uste neregana etorriko ziñanik.

— Berriro emen nauzu, bada, lengoari jarraitzeko asmoan. Asko suprituko zenduen.

— Ez daukat ukatzerik. Lotsa batetik, zalantza bestetik. Alderdi guzietan guregatik izketan nabaitzen nituen, eta ez beti ondo. Zuk ere zureak igaroko zenituen, bein iges, gero espetxean.

— Neretzat ere ez dira, ez, lau illabete auek atsegiñak izan. Afrika'n asi ziran nere naigabeak. Zuk diozun bezela, gero zalantzak. Dena galdutzat emana neukan. Sumindua, lau illebete alper-alperrik galduak, gaizki esaka... Orain, Jaunari eskerrak, dena atzean geratzen da. Gure izen garbiari ere eman diote bere saskakoa. Edozeiñek biltzen du orain ereiña. Baiña ontan geranean, kontentu. Guadalupe'ra noa, denon Amari eskerrak ematera. Nai badezu beñepein, goazen.

— Orduan dena barkatzen didazu?

— Bai, Joxepa. Ez nintzan bestela azalduko. Zu naigabetzera ez naiz etorri. Biok barkatu bear diogu elkarrri. Ezbearretan ezagutzen omen da nork maite gaituen.

Zalantzan balego bezela, lotsatua noski, begira-begira jarri zitzaion. Baiña polliki-polliki arpegia alaituz:

— Goazen —erantzun zion—. Eraso guzien artean, ni ordu onen zai nengoan.

— Egirik esan badezu, auxe da bat. Ziur banekien ori. Nik ez det itz txar bat ere esan zure joeragatik. Ne-

retzat samiña bazan ere, etzala zuretzat alaiago izango, bi etxeetako zapalketa ikaragarria zala igerri nion-ta.

— Orain, Jaunari eskerrak, dena igaro da —zion Joxepak.

Eta, udaberrian txoriak baiño alaiago ta zoriontsuago, Guadalupe'ra joan ziran.

Aiek elkarrekin gora zijoazela, ikusi zituen Karmenek. Eskuak igurtziz ala zion:

— Bitartekotzat artu niñun anaiak, eta eginkizuna ondo bete det. Orain or konponduko dira.

Ta etxera joan zan.

EGIA AGERTU

Guadalupe'ko Amari eskerrak eman zizkioten. Baiña bai norbaitek ikusi ere.

— Noizbaiteren buruan ona auek elkarrekin. Bat, aita il nai zuelako, espetxean zeukaten. Besteak, Potzorekin ezkontzera etorrita, iges egin zuen. Baiña berriro gure uxapalak elkar billatu dute.

Etzan bistara azaldu. Baiña asperen luze bat egiñaz, ala zion:

— Ai, maitasuna! Itxua omen aiz. Baiña badakik maitaleen bideak argitzen.

— Orain, Joxepa, ondo baderizkiozu, zure etxera joan bear degu. Aitak galerazi zidan. Baiña oraindik au da lenengoa —eskatu zion Krispiñek.

— Gurasoak gaizki artuko zaituzte.

— Sarreran baliteke. Baiña egia jakitean, ez. Eta komeni zaigu oiekin adiskidetzea.

Lanean ari ziran lekutik, oraindik urrun, ikusi zituen koiñatak.

— Aizu, Joan Joxe: nor dira oiek?

— Ara Joxepa Krispiñekin. Esaten nizuten nik ori errugabea zala.

— Ez nuen nik ere beñere sinistu arraintzalearen lana zala ori.

Elkar agurtu zutenean, ala esan zien mutillak:

— Zuen gurasoekin itzegin nai nuke.

— Suminduak daude ta gaizki artuko zaituzte.

— Sarreran bai, baiña erteran ez. Orixe bera esan diot Joxepari ere. Egia jakitean, ez naute berdin epaituko.

Laurak batera joan ziran. Aiek ere jakin nai zuten gertatuaren berri. Aita, orduantxe azokatik etorri berria, emaztearekin izketan ari zan.

— Kaixo, etxekoak! —agur egin zien.

— Zertara ator gure etxera, bazter guziak naastu ta gero?

— Baliteke ori. Baiña ez iñori txarrik egin diodalako.

— Ik emandako sastakoak min ematen zidak oraindik bizkarrean.

— Ebaki au badakizu ziur zuk egin zenidala. Baiña ez nik sastakoa eman nizunik.

— Bai. Egia diok. Baiña ori bezin ziur zekit bestea.

— Joxe Mari, gezurrezko testigantza egitea ikaragarria da gero.

— Oraindik ere iseka egitera al ator etxera?

— Ez da beñere olako asmorik nere buruan jaio.

— Ez jaio bakarra; baita egin ere.

— Joxe Mari, aixegi ari zera gero, zabiltzan lekuan, berriketan. Zuk egin zenidan zauri au. Beste alkikazo bat ematera zinjoazela, eskutik kendu nizun. Potzolo-rekin burruka asterakoan, zuk, oiñak trabatuta, atzeko aldera bota ninduzun. Eun da ogei ta amar kiloko zama erori zitzaidan gaiñera. Ez nion errex buelta eman. Ori, nik arrazoi txar bat eman gabe. Joxepak ikusi zuen dena, ta nik ez nizun ezertxo ere egin. Geroztik itzik ez det atera zure aurka. Zuk, berriz, ezer ez dakizula, tximiniko kearra bezela beztu dezu nere izena. Zuk asarre orrela erantzuteko arrazoiak baldin badituzu, ez dauzkat nik gutxiago. Joxe Mari, nere pazientziak ere badute gero neurria. Nik ez det ortan kulparen izpirik, eta epailleak berak esana, geroneko batean. «Zuk ezin zenezaken lan ori egin esan» eta aske biali nau. Orrela, Joxeparen izena ere garbi geratzen da, bion lana zala uste zuen arek-eta.

— Nik i ikusi iñudan, bada, an.

— Ori ez da egia. Bearbada, ametsetan.

— Nor zebileken orduan an? Au ez dek berez egiña izango.

— Gure ixkanbilla ikusi zutenean, baziran neretzat gaizki ta aiei ondo zetorkienak. Izketan uzten badida-

zute, garbi-garbi azalduko det, nor dan eta zergatik arrapatu duten. Berak aitortu du. Larunbata artan ez al ziñan zu Irun'era joan?

— Ez daukak ik zertan jakiñik.

— Ondo dago. Nik ere ez dizutet orduan zer gertatu dan esango.

— Bai, Joxe Mari. Larunbata artan zu Irun'era joan ziñan —esan zion emazteak—.

— Ori da: erloju txar bat konpontzeko asmoan.

— Arek etzuela bost xentimorik balio. Konpondu ta aste bete baiño len autsia zegoela esan zizun. «Orduan zer egin bear det onekin?» «Txatarretarako bota zazu ta kito.» «Ni erlojurik gabe galdua nabil.» «Nik badet bat ederra; esan oi dan bezela, azkeneko itza. Oso modu onean salduko dizut.» Biok konpondu ziñaten eta zu erlojuaren jabe egin ziñan. Etzenduen galdu edo beste norbaiti emango?

— Egia. Oraintxen oroitzen nauk. Sastako mada-rikatu arek burua naastu zidaken. Ez neukaken galtzeko moduan. Ez iñori eman ere. Erloju ona uan benetan.

— Eta orain non dezu?

— Nerekin ez beiñepein.

— Zuri sastako ori eman zizunak, patrikatik ebatsi zizun. Baiña eskutik erorita-edo, gero matxuratu egin zitzaion, eta bere amari eman konpontzera eramateko. Au, beretzat zoritxarrez, zuri saldu zizunarengana joan zan. Onek, ikusi zueneko, ezagutu. Bai nori saldu zion oroitu ere. «Erloju au ona da. Nondikakoa dezu?» galdetu zion. «Semeak eman dit. Galdetu arren, ez dit

erantzun jatorrik eman.» «Orlako egunerako zatoz, ta ordurako konpondua egongo da». Arek bereala igerri zion bat zala pekataria; ta beste bat, kulparik gabea, zala espetxean zegoena. Ta, bere kontzientzira begiratu, salatu egin zuen.

— Eta nor da pekatari ori?

— Guadalupe'tik eraman zutena: Potzolo.

— Datorrela berriz bere ama neregana maxiatzera! Adituko dizkik... —zion amak.

— Aberatsa dala, baiña gauz onari eldu orrek ere.

— Aberatsa? Esana aiña izana bai ote da gero?

— Ni ederretik salbatu naiz. Aita il nai zuenarekin ia ezkondu nintzan —zion Joxepak, pentsatze utsarekin ikaratua.

Etzion iñork erantzun.

— Eta ziur bai al dakik ori? —galdetu zion aitak.

— Arek aitortu zuenean, askatu niñun ni epailleak. Beste gaiñerako guzia, zuri saldu zizun erlojeroak esan zidan.

— Etxean pakea nai degu. Ez al da beste eragozpenik jarriko! —zion anaiak.

— Ez, ez. Lengoagatik ere ederki damutuak gaudetik. Utzi maitasunari bere bidea. Ez genin asko galduko len ere, ixilik geratu bagiña.

— Emaidazu, Joxe Mari, tabernan ukatu zenidan esku ori.

— Bai, motell. Ire mazaltasun orrek irabazi dik gure biotza.


Pakeak egin ondoren, Krispin, zorientsu, etxera joan zan.


Gure gazteak beren adiñean zeuden eta etzeukaten atzera-aurrera ibiltzeko gogorik. Guadalupe'n ezkondu ziran, eta kaiako etxe batera joan bizitzera. Jakiña, arraintzale-bizitza.

AMAIA


AURKIBIDEA

Esneketaria.....	7
Kupidoren lanak.....	13
Biak kezketan.....	19
Agur tristea.....	27
Afrika'ra.....	33
Afrika'n.....	39
Kantinera.....	43
Txalak naiko al dute?.....	51
Famelia bi zatitan.....	59
Krispiñen kezkak.....	65
Kaiako negarra.....	69
Au besterik da.....	77
Krispin etxean.....	81
Anai-arrebak.....	87
Erantzuna.....	93
Lengo lantegian.....	101
Tonelada.....	105
Etxeko ixkanbillak.....	113
Sesioa.....	121
Burruka.....	129
Joxe Mari.....	137
Galderak eta susmurrak.....	143
Krispiñen igesa.....	147
Joxepa auzitegira.....	153
Arraintzalea.....	161
Auzoko berriak.....	165
Zirika.....	171
Krispiñen zalantzak.....	177
Bederatziurrena.....	185
Joxeparen etsipena.....	189
Auzitegian.....	195
Moldaketak.....	201
Uste gabekoa.....	207
Bazan ordu.....	215
Egia agertu.....	219





AZKUE
EUROPEAN
1990
67625
1990
1003003



AUSPOA
LIBURUTEGIA



1003003

BO-Li/ATA-mai

B